

ASEL LUZARRAGA

*Hamaika ispilu ganbil*



ASEL LUZARRAGA

*Hamaika ispilu ganbil*

LABAYRU IKASTEGIA  
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA  
BILBAO  
2003

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

© Asel Luzarraga  
© Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa  
Aretxabaleta, 1-1.a  
48010 BILBAO  
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58  
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.  
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.  
Silutegia: A. G. Rontegui, S. A. L.

Lege Gordailua: BI-3122-03  
ISBN: 84-89816-43-3

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz beraz transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimen barik.

# AURKIBIDEA

I	13
II	25
III	41
IV	53
V	55
VI	77
VII	91
VIII	101
IX	109
X	123
XI	125
XII	143
XIII	157
XIV	169
XV	175
XVI	183
XVII	191
XVIII	197
XIX	205
XX	213



*Lourdes, aita eta amari.  
Π L.T.-ri.*

***Amamari**, euskerea hainbeste  
maitatuten irakasteagaitik.*

*Martari.*





—Bihar hasiko gaituk.

—Bai, bihar... Alkar ikusiko jonagu.

Gizaki biren urratsak urrundu egin ziren kale ilun eta heze-  
tik, nork bere norabidea harturik. Katu zuri-gorriak bere eginki-  
zunari ekin zion, zakarrontzi barruan jateko zerbaiten bila, pipe-  
rrik ere ulertu barik.

—Erabagi al dok? —ahots sakona telefonoaren beste aldean  
erantzunaren zain ito zen.

—Ba... bai, alde egingo dot... Alde egin dodala esan nahi dot  
—izan ziren soinu dardartiaren hitzak.

—Ederto, badakik eure onerako dala. Agur.



# I

—Egun on. Parkatu berandu etortzearren, baina ondino ez dot ikastetxe hau ezagutzen, eta pasabideetatik galdu naz —haren begirada, banan-banan, ikaslez ikasle ibili zen, aurpegi berriak gogoratzen saiatuz—. Bueno, hasi baino lehen, Unax da nire izena, eta zuen Arteko irakaslea izango ei naz —jarraitu aurretik urruma egin zuen bi bider, irribarrea ezkutatuz—. Zuen aurreko irakaslea ez ei da ikastolara itzuliko; beraz, guk berak itxitako puntutik jarraituko dogu.

—Errenazimenduan —esan zion neska batek, klasekideak atzetik uhuka zituela.

—Lasai, lasai, ondo dago. Hasieratik jakin behar da baktotxak zer leku bete behar dauen. Orain badakit lausengaria zein den —klase osoa barreka jarrita, bazekien bere aldeko puntu batzuk irabazirik zeuzkala, eta bere lana bukatu behar zuen—, orain jakin daigun nork esaten dituen zelebrequiak.

Klaseko azken ilaratik mutil ganorabako makarra batek eskua altxatu zuen, desafio itxuraz.

—Bada, hire berbea hire aurpegiaren besteko zelebrea bada, nahiko ondo pausauko joagu —klasea hasieran ez zen ausartu, baina neska ile gorridun bat barrezka hasi zenean, eztanda egin zuen.

Unax neskari begira gelditu zen. Polita zen oso. Hamabost urteko neskak ederrak direnean, benetan dira ederrak, eta hau bazen. Gela erdialdean zegoen, begi muskerrak, eta jantziak gor-

putzari ondo zeutsolarik. Klasea baretu baino lehen, keinu bat egin zion hogeita zortzi urteko irakasle sendoak.

—Aski da, aski da. Ondo deritzot noizean behin barre egiteari, baina nahiz eta lehenengo eguna izan, zerrendari begiratuko deusat, alkar ezagutzeko, eta zuek ikusitakoari errebasoa egingo deusagu. Bihar hasiko gara Errenazimenduagaz... ados?

Klaseak ez zirudien oso ados, baina konformatu behar.

Neska-mutilak tropelka atera ziren klasetik. Irakaslea arnasa sakon hartzen geratu zen, jesarrita, lasaitasun bila. Esku adeitsu baten ukituek mundura itzularazi zuten. Begiak leunki jatorik, neska ile gorridunaren aurpegi lagunkoia ikusi zuen, haren irribarrean keinu ironikoa sumatzen zela.

—Zure lehenengo eguna gainditu dozula uste dot —Unaxek bestearen aurpegiaren aldaki batez ihardetsi zion.

—Ea gauza bera esan neikizun azterketen ondoren —neska erantzun barik gelditu zen, bere eraso prestatzen, baina irakasleak lehia bukatutzat eman zuen—. Zelan dozu izena?

—Zerrendea ez daukazu akorduan ala?

—Ainhize, ez zatoz, ala? —mutil baten ahotsa kanpotik heldu zen, gogaikarri.

—Hoa pikutara! —eta gero irakasleari begiraturik—.Parkatu, baina hain da astuna ze...

—Mutil-laguna? —itaundu zion, haren jokaera aztertzen zuen bitartean.

—Zer? —neskak gustura egin zuen barre—. Bai zera! Koipezto bat, besterik ez... Bueno, banoa, agur —eta beheko ezpainari koska eginenez, begiekin keinu tentagarria iradoki zuen.

—Agur, Ainhitze, zintzoa izan —erantzun zion ez-ikusiarena eginenez. Neska arrapaladan atera zen, bazkariaren bila. Unaxek karpeta hartu eta txistuka irten zuen, pitika-pitika.

—Zelan, Unai zara, ezta? Ni Bibiot naz —irakasle gazteak eskua luzatu zion ongi etorria egiteko, plastikozko edalontzia uzten zuen bitartean.

—Unax —zuzendu zion besteak, eskua onartzuz. Gero, karpetara berari zegokion lekuan utzirik, aulkian jesarri zen.

—Parkatu, Unax. Ez da izen arrunta hori... —haren alboan jarri zen, paper batzuei begiratzeari utzi barik.

—Zeurea bez —elkarrizketa amaitutzat eman nahirik, egunkariari begira jarri zen.

—Eta..., zelan zure lehenengo klasea? zein gelatan?

—4 B. Momentuz ez dirudi arazo handirik emongo deustetik.

—Ez dot uste. Hemengo mutilak nahiko zintzoak dira, ikusiko dozu.

—Neskak be bai, ezta? —esan zion asko pentsatu barik. Bibiotek irribarre maltzurra erakutsi zuen, esku artean zeuzkan paperak mahai gainean utzirik.

—Neskak bereziki —Unaxek begiak altxatu zituen, pixka bat harriturik —. Ez da egia, ala? —baina besteak bere golkorako gorde zuen erantzuna—. Bueno, telebista izetuko dot, ea hor be neskaren bat agertzen dan.

Unaxek burua mugitu zuen, errukiturik bezala.

»*Tenemos nuevas noticias sobre los dos extraños objetos que, en días sucesivos, cayeron cerca de las costas vascas. Nos informa desde Bermeo...* —baina Bibiotek ez zion denborarik eman, katea aldatuz.

»Athleticek irabazi zuen berriro igandean, Betisen aurkako partidari, eta hala beste hiru puntu eskuratu...

—Mesedez, ipini barrero espainola, barriak entzun gura neukez.

—Lasai, Gaur Egun hasi barri dago, barria osorik entzungo dogu. Neu be irrikan nago, jakiteko zer gertatu dan tramankulu horreekaz. Yankien akats bat izan ei da —irakasle gazteenak bere lekua hartu zuen berriak lasai entzuteko. Azkenean heldu zen eurek nahi zutena.

»Bai, horrela da. Eskerrik asko, Itziar... Bada, entzun duzue, ikus-entzuleok. Estatu Batuetako zientzialarien arabera, gure kostaldean jausitako tramankuluak beste planeta batetik etorritako espaziontziak izan omen dira. Istorio hau, denok gogoratuko zaretzen bezala, orain dela aste bete hasi zen —telebistako neska serio zegoen berria irakurtzerakoan—. Aurreko asteartean, gure kostaldean, zerbait erori zen zerutik, Bermeo, Mundaka eta Bakioko biztanleei ikara bizia sortaraziz. Ertzaintzak fenomeno horren ikerketan ziharduen bitartean, handik bi egunera, beste zerbait erori zen leku berean. Orduetik, herri guztietako jakintsuak gune hartara bildu dira, erantzunaren bila. Gaur, umeentzako ipuina badirudi ere, extra-lurtarrak gure kostaldera etorri direla jakin dugu.

—Extra-lurtarrak... —Bibiot pentsakor gelditu zen, telebista itzali orduko.

—Sinesten dozu hori? —Unaxek sinesgogor zirudien.

—Sinestu gura dot... Jakin gura neuke ea hareei be atzerria otserri egiten jaken. Gustura idatziko neuke hareen istorioa.

—Idatzi egiten dozu ala? —orduan bai, orduan haren arreta irabazi zuela ematen zuen.

—Bai, zertxobait. Badaukadaz lan batzuk argitaratuta, ez pentsau, baina orain arte gauza handirik ez. Gehiena bidean dago.

—Interesgarria da irakaskide idazle eta lizun bat edukitzea...

—Karmele, entzun dozu? Alien iritsi da Bermeora. Oso arriskutsua izan ei da, baina... —Patxik, klaseko makarrak, irribarre maltzurra agertu zuen—, gura badozu neuk egingo dot lo zure ondoan —eta beso eta gerriaz keinu lizuna antzetzuz, barreari eman zion.

—Patxi, umemoko hutsa zara —Ainhizek beti lortzen zuen haren graziak moztea, batez ere, Karmele, bere lagunik onena babesteko.

—Eugaz joatea gurago dona, ala? —egia esan, Patxi ez zen oso galtzaile ona, baina neskari berdin zion.

—Eta zeozer hartzen bagoaz?, han gehiago ikasiko dogu martiztarrei buruz —Urko, taldeko punkya, ez zen istilu zalea, batez ere istiluak talde barruan sortzen baziren. Gainera, ez zituen oso begiko Patxiren gatzgabeko txisteak.

—Zoaze ba, gu liburutegira joango gara, apur bat ikasten —aitzakia bazen ere, Ainhizek nahiago zuen benetan ikastea teman ibilitako Patxirekin egotea baino. Altxatu, Karmele eskutik hartu, eta aldendu egin zen.

—Baina Ainhi, zatoz geugaz —atera zen Joxe azkar, neskek alde egin baino lehenago.

—Itxi joaten, ea liburuak kontrako zulotik sartzen jakezan —Patxiren arreta ere ez zihoan Karmele neska-lagunagana bakarrik. Urko eta Ainara bikote banaezina ziren, bestalde, eta jakina, neska hau ez zen liburutegira joan, kafetegira baino.

Gurdian sartuta, metro eta laurogeita bi zentimetroko irakasleak azeleragailuari sakatu zion. Ez zuen aparteko presarik, baina azkar joatea gustatzen zitzaion, musika nahikoa ozen ipinita. Mutil sendoa eta bizkorra zen, ezpainetan irribarre bitxia zuela beti, begi urdinak eta ilea zertxobait izurtua. Beraren eskuek finak ematen zuten, baina izugarrizko indarra ezkututzen zuten.

Ez zen etxerantz abiatu; gurdia utzi ostean, kale txiki ilun eta zikinetatik aldendu zen. Txiriboga bat aurkitu zuen, sareta erdi jaitzirik eta atea erdi irekirik. Burua makurtuta barrura sartu zen; han zeuden hiru jubilatuei jaramon egin barik, txoko ezkutuenera joan, eta han jesarri zen isil-isilik. Tabernaria patxadaz hurbildu zitzaion, barra garbitzen ziharduela. Ez zen toki oso garbia berez, usainean ere nabari zen. Tabernariak zorrotz begiratu zion, trapua harraskan estuturik.

—Baltza —eskatu zion Unaxek begiak altxatu barik.

—¿*Qué?* —morroiak txarto ahoskatu zuela pentsatu bide zuen.

—*Un tinto... o mejor un tequila, qué coño.*

Zurrutada batez, behar den bezala, edan eta gero, hurrengoa etorri zen; hurrengoa eta hurrengoa. Eta azken hurrengoaren atzetik beste bat, zortzi tekila barrura sartu arte. Gero garagardoa eskatu zuen eta lasai-lasai eseri zen mahai baten aurrean, bere edariaren bitsari begira. Leku hartatik euli eta eltxoen gorabeherak zekuskien tutik ere esan barik.

—*Es triste* —bota zuen agure batek—. *Es triste ver a la juventud matarse antes de nacer.*

Irakasleak lotsagabe begiratu zion.

—*He visto nacer y morir muchos más jóvenes que tú en toda tu vida, y para muchos es una suerte, porque llegar a ser algo como tú quita las ganas de vivir a cualquiera. Pero vosotros no podéis entenderlo, sólo vivís una vez.*

Hiru jubilatuak sutan jarri ziren.

—*Al menos tenemos decencia y dignidad!* —zaharrena zutik zegoen, aurpegia gorri- gorri zuela.

—*Llévese su dignidad a la tumba, payaso* —eta garagardoa dzangada batez garbituta, alde egin zuen. Agureak ez ziren mugitu, baina begiradan iraina erakusten zuten.

—*Eh, tú, ni se te ocurra irte sin pagar* —tabernaria urduri zebilen oso, eta haren atzetik atera zen, arrapaladan.

Jubilatuak bat egin zuten tabernariarekin, arineketan irten ziren euren gorputzek uzten zienik eta azkarren, baina kanpora heldutakoan, txundituta geratu ziren guztiz: mutilaren aztarnarik ere ez.

Eskaileretako argiak haztamuka izetu zituen, eta segituan eskuak berokiaren poltsikoetan sartu. Ez zuen igogailua erabili. Burua ubilean murgilduta zeukala, zabuka heldu zen bere ateraino. Giltzak ozta-ozta aurkitu zituen eta, sarraila zuloan ia asma-



tu ezinik, etxeko atea ireki. Atzeko aterantz itzuli eta behatxuloari bere irribarrerik onena eskaini zion. Ziur zegoen auzokide kux-kuxeroa beste aldean egongo zela. Atea itxi eta iluntasuna hautsi zuen.

—Nahikoa da —esan zion bere buruari, normaltasunera itzulirik—, nahikoa da gaurkoz. Orain lanari ekin behar deusat —begi itxi-ireki baten guztiz erne zegoen. Berokia sukaldean utzi eta logelara abiatu zen.

Pasabidetik zihoala gela itxiak atzean utzi zituen. Unaxen bizilekuak zortzi gela zituen, baina sukaldea, komuna eta logela izan ezik, beste guztiak itxita zeuden. Bidean alkandora erantzi eta logelara heldu orduko, ohe gainera bota zuen. Armairua ireki eta jantzien artean zein eroango zuen pentsatzen gelditu zen.

—Ez, hasteko eta, ez naz honegaz hasiko, hau gerotxoago erabiliko dot —eta janzkiaren eperditik sortzen zen isatsa askatu zuen. Gakotxak egin gabe zegoen ohe gainean pilatzen ziren—. Ez, hau be ez. Ez dakit zertarako egin dodan hainbeste trapu. Zeozer apartekoagoa behar dot... Bai, egoki deritxot honeri debuta egiteko.

Horma-erlojuak hamabiak jo zituen. Unax bere logelan zetzan, jantzi berri, pentsakor. Nora jo behar zuen?, zelan hasi?, aurkituko zuen? Ezin zezakeen astirik galdu; mugitzen hasten ez bazen ez ziren inoiz elkartuko. Jauzi batez zutitu eta atera egin zen.

Bilbo, eguazten goizeko ordu bata laurden gutxiago. Haizeak leun baina hotz jotzen zuen gau izartsu hartan. Ilargia ez zen oso handi ikusten. BBVAko ateak itxita zeuden, gauero legez. Banku zaindariatario bat laugarren solairutik zebilen, beti bezain asper-tuta. Zaintzaile guztiak euren postuetan zeuden, eta bera bere ohi-ko ostera egitera joan zen. Leiho aurrean gelditu zen, kanpoko lasaitasunari begira.

Bat-baten zerbaitek oztopo egin zion haren begiradari. Gizaki baten antza zuen, baina zer egiten zuen han kanpoan? Orduan leihoa jausi zen, isilik, eta metro biko izaki musker bat agertu zen zaindariaren aurrean. Haizeak astintzen zuen haren soingainekoa. Banku zaindaria pistola eskuratu zuen.

—¿*Qui... quién coño eres? Faltan unas semanas para el carnaval, ¿sabes?*—arrotzak ez zuen tutik ere esan—. *Creo que la he jodido, eso no parece un disfraz* —esan zion bere buruari. Orduan telebistan entzundako berriak etorri zitzaizkion burura—. *Puede que no me entiendas... Tú debes ser un marciano de esos, ¿no? Pues si me entiendes te diré que aquí no hay nada de valor, nada en absoluto* —eta hitz egiten zuen bitartean irrati-emangailua ahora hurbildu zuen—. *¿Por qué no eres buen chico y echas a volar por esa ventana?*

—Utzi hori, hementxe bertan akaba hazadan nahi ez baduk.

—¿*Quién hostias eres, hablas euskera!*... —izerditan blai, zaindaria atzera egin zuen urrats pare bat—. Nik ere euskaltegian nago, badakizu?, baina astiroago hitz egin behar duzu nik ulertzeko, ados? —eta hitz egiteko botoiari sakatu zion. Ezer esan baino lehen, ordea, arrotzak eskua jaso eta irratia ezandarazi zuen.

—Uzteko esan dizut, hurrengoan ez dut hain bigun jokatuko —banku zaindaria zuri-zuri geratu zen, mugitu ezinik. Azkenean atzamarrak erantzun egin zion, eta pistolak danba egin zuen. Hala ere, izaki berde hark zutik zirauen—. Akats bi egin dituzu: bata, martiztar deitzea, Namektarra naiz eta; bestea, ni hiltzen saiatzea, hilezkorra bainaiz... Ulertu duzu?

—B..., b..., ba..., bai, ulertu dut —eta zaindaria pistola jaus-ten utzi zuen, dardarka.

—Oso ondo. Hirugarren akatsa ez dizut barkatuko —arrotza astiro-astiro mintzatzen zen, antzezleen moduan—. Orain mutil zintzoa izango zara eta dirua dagoen lekura eramango nauzu, konforme?

Momentu hartan banku-zaindari guztiak sartu ziren arrapaladan, segurtasun-igogailutik, hortzetaraino armaturik, eta segundo baten tokiak hartu zituzten.

—*¡No se mueva, no respire, no haga un solo gesto, o nos lo cargamos! ¡Debe saber que la policía está en camino y no tardará en llegar!* —hitz egiten zuena tipo garai eta sendoa zen, taldearen burua, antza—. *Si se entrega ahora mismo la justicia será benigna; hemos visto todo por los monitores y hasta aquí no ha causado demasiado daño.*

—Isilduko haiz, mamuori? Zer egingo didazue jostailu horiekin?

Zaindariak, ez bat ez bi, tiroka hasi ziren, euren kideek gorputzak lurrera bota ondoren. Egundoko kea eta ezpalak atera ostean eta danbada ito zenean, buruzagiak begiratu bat egin zuen. Haren aurpegiak herioaren kolorea hartu zuen, arrotza osorik eta irribarretsu ikusi zuenean. Kideak ere zur eta lur geratu ziren, batzuk otoitzean hasita zeuden. Benetan ere Zinematik ateratako eszena zirudien.

—Kokoloak halakoak... —eta besoak gurutzatuz hormaren kontra ipini zituen guztiak. Hasierako zaindariak lagunei begiratu zien, baina denak zeuden konorterik gabe—. Tira, bakarrik gaude berriro... Eroango nauzu orain diruaren bila? —itaundu zion eztiro.

—Bai, oraintxe bertan. Ni ez naiz *heroe* bat, eta ez dut izateko asmorik ere —erantzun zion bekokia lehortuz.

—Ondo, ba. Goazen, bada.

—Nora hoa? —ahots berria haien atzetik iritsi zen, sarkina geldiaraziz. Poliki-poliki itzuli zen, eta han topatu ziren, aurrez aurre, etsaiak. Zaindariak harrituta ikusten zuen gertaera, amesgaiztoa izatea nahi zuen. Etorri berriak agure baten antza zuen, bizar zuri luze eta guzti. Burusoila zen eta, makila bat eskuan zuela, alkandora jamaikarra eta bermudak zeramatzan, begiak betaurreko beltzen atzean ezkututzen zituela. Lepoan dortoka baten oskola zeraman.

—*A este tío yo lo he visto* —esan zion guardiak bere buruari.

—ETBn agian. Ziurrenik hire seme-alabek *Dragoi Bola* ikusten ditek... Jantzi hau Iratxo Dortokarena duk, eta harena Satan Bihotz Txikirena. Antzerki zaleak gaituk... Orain irten hemendik, hau ez duk txantxetarako eta ez diat inor zauritzerik nahi —gizajoak ez zuen tutik ere ulertu, baina badaezpada alde egin zuen arineketan.

—Musturluzeori! Beraz nire atzetik bialdu habe, ezta? Zelan aurkitu nok?

—Ez dok gatxa izan, hire kiratsa urrundik igarten dok. Zeren bila etorri haz hona? Sarraski gehiago egiten, psikopata halakoa? Ba, jakin eik Lur hau neurea balitz lez babestuko dodala... Halanda ze, gertu burruka egiteko —agure antzekoa lehiarako prest jarri zen, baina bestea ez zen mugitu.

—Ez naiagok prest hiri aurre egiteko, baina zuen mendekua hartzeko behar dodana aurkituko joat... Ikusi arte —eta izaki muskerrak sartu zen leiho beretik atzera alde egin zuen.

—Ez dok alde egingo!

Eta biak argiaren abiadan desagertu ziren polizia heldu baino lehen.

Galdu egin zuen; beraz, airean gelditu zen, gauaren edertasuna miresten. Izarrek ñirñir egiten zuten Bilbo gainean (edo azpian?), ilargiaren distiraren nahian. Benetan polita zegoen ilargia, eta bera argizagi nagusiaren lerdentasunaren parte sentitzen zen handik goitik, munduko erregea balitz legez. Haren oinetan hiriko argiak Ortziren isla zurbila besterik ez ziren. Itsasadarra osorik ageri zen goitik, zubien azpitik zigi-zagan, Udaletxearen aurretik, Unibertsitatearen aurretik, Guggenheim, Euskalduna eta eraikitzeke zeuden burdin berrien aurretik, gizaki-arratoinen aurretik... Eta gertaturikoaz ezer ulertu barik, han, banku-etxeke monitoreek grabatutakoaren erantzunaren bila, polizien izpi urdinak, bere aiuri etengabearekin. Egin beharreko lana eginda zegoen, eta nahiko ondo eginda gainera.

Ia-ia ordu bi eta erdiak ziren, beraz etxera itzuli behar zuen lo apur bat egitera. Haize korronteei jarraituz laster heldu zen bere auzo gainera. Logelako leihoa zabalik zegoen, berak utzi zuen bezala, eta joan zen legetxe, auzokideen isilean sartu zen berriro, baita berehala ohean lo jarri ere.



## II

Txirrinak jo zuen, baina klasean ia inork ez zuen entzun. 4. B gela gudan murgilduta zegoen. Klarionek hegan egiten zuten alde batetik bestera, baita boligrafo eta kutxatila batzuek ere. Ezabagailuak mutil bat jo zuen, sekulako mina eginez.

—Putakumeori! Pasau egin zara. Gero ikusiko dozu, klase ostean —entzun zen mehatxua, haserre bizian.

—Ze matraka! Gaur barria Berpizkundeagaz hasiko da —esan zion Karmelek lagunari.

—Bai, ez deusku atsedetik hartzen izten tipoak, gatzil hutsa da —Ainhize ados agertu zen, aharrausika.

—Ba, zu atzo zer edo zer esaten gelditu zinan, klasea amaitu ondoren —bota zion Karmelek.

—Puntuak irabazi behar azterketarako —Ainhizek, begi keinu batez.

—Bai, komeni jaku... Baina gainera, tipoa ez dago bape txar-to, ezta? —eta ukondokada zirikatzailea eman zion.

—Zuk beti gauza bera buruan...

—Zugandik ikasita, likitsori! —Ainhizek zeharretara begiratu zion hori entzunda.

—Ts, ts, ts. Ni ez naz egoten horretan pentsetan, baina euren pentsamentuak erabilten dodaz. Gizonak, bai, hori dauke beti buruan.

Momentu horretan irakaslea sartu zen. Azken klarionak jausi ziren, baina zarata ez zen isildu. Lasai, presa barik, Unaxek kar-

peta mahai gainean utzi eta arbelari begira jarri zen. Irribarretsu irakurri zituen hango idatziak: “Ikastetxea = putetxea”, “Hator gure jaira, barikuan Joxeren etxean”, “Rosa: visa, tel. 69696969” eta anarkia ikur handi bat.

—Ondo dago, ondo dago. Bueno ba, nik ez nekian hori; esango deustazue non dagozan horreek emagalduek? Gustauko litxakit ezagutzea —ahotsak baretu egin ziren, arreta bereganaturik—. Adibidez, Rosa hori... gela honetakoa da? Haren zenbakia nahiko iradokorra da —klase osoak barreari eman zion. Klase osoak, aurreneko lerroko neska batek izan ezik. Neska hura, berriz, gorri-gorri jarri zen, guztiz lotsatuta. Klaseko lausengaria zen, jakina—. Barkatu, neska, txantxa lelo bat baino ez da.

Ikasleak isildu ziren, azkenean.

—Bueno... “Hator gure jaira, barikuan Joxeren etxean”. Hau benetan da? —itaundu zuen.

—Bai —Ainhizeren ahotsak. Joxek begirada mendekosa bota zion.

—Eta nor da anfitrioi hau? —makarraren ondoan jesarrita zegoenak eskua altxatu zuen, etsipenez—. Aupa, zu. Eta gonbidatuta nago?

—Bai, noski —Ainhizeren ahotsak, berriro.

—Ondo dago, ba; gero esango deustazue helbidea, orain klaseari ekingo deustagu astirik galdu barik.

Baina hasi baino lehenago ahots batek, gelditzen zen idatziaz galdetu zion. Unax arbelerantz itzuli zen, ikur anarkistari begira.

—Polito..., nor egin dau, ba? —Urkok, punkak, eskua jaso zuen—. Mmm, punky bat daukagu klasean... Badakizu hori zer dan?

—Anarkia —erantzun zion lainoki.

—Bai, jakina, anarkia, baina..., zer da zure ustez anarkia? —momentu batez irakaslea serio jarri zen, ikasleak isilaraziz. Urko pentsakor geratu zen.

—Norberak gura dauena egitea —bota zuen batek, lagundu nahian.



—Anarkia ez da hori! —haserretu zen gazte punkya.

—Ondo esan dozu, ez da hori, edo hori baino gehiago da; zer da, beraz? —bazirudien irakasleak kontuan hartu nahi zuela haren iritzia.

—Nik ez dakit azaltzen, itaundu Bibioti —erantzun zion azkenean, pisu hori gainetik kendu nahirik.

—Bibioti? Nor da Bibiot, ba?

Rosak berehala gogorarazi zion Hizkuntza eta Literaturako irakaslea zela.

—A, bai, ezagutzen dot... Bai, atzo egon ginan berbetan —eta Urkori begiratu zion berriro, irakaslearen mahai nagusian jesarritan—. Beraz, anarkista da Bibiot —Urko erantzuten saiatu zen, baina Unaxek ez zion jaramonik egin—. Interesgarria da: idazle, neskazale eta anarkista... —ikasleek barre egin zuten leunki; bere buruari esan gura ziona ozenki azaldu bide zuen. Ez zitzaion zail gertatu konturatzea. Zutitu egin zen berriro, eta arbela ezabatzen hasi zen.

Klasekideak hizketan hasi ziren euren artean, murmurioan. Irakasleak presa handirik ez zuela zirudien. Behin arbela ezabatu eta gero, aulkira itzuli, karpeta ireki, eta begiratu bat egin zion klaseari.

—Tira ba, inork ez badauka ezer interesgarriagorik, Errenazimentuan sartuko gara bete-betean —ikasleen uhukada berehala sumatu zen, baina inork ez zuen ezer esan—. Hemen dago, Berpizkundera... Gustuko dodaz aro honetako margolariak, batez bere Tiziano.

Baina belarriak gaitik desbideratzeko aukera eman zion, ikasle baten “Mutenroshi” delako bati buruzko solasa aditu zuelarik. Ikasleek, jakina, klaseari hasierarik ez ematea bilatzen zuten zelan edo halan.

—Ezer esatekorik badaukazu, esaiguzu guztioi —mutila isildu egin zen, lotsatuta, bere kideak ukondoaz jotzen zuen bitartean, mintza zedin—. Ez, ez, benetan. Egia esan, gaur ez daukat honekin hasteko gogo handirik; gurago dot zeuek ezagutzea.

—Ez da ezer, bart gertatutakoa, besterik ez —azaldu zuen apal-apal.

Irakasleak, ordea, berak ezer ez zekiela, irratian lapurreta bati buruzko zerbait baino ez zuela entzun esanez, zekiena kon-tatzera bultzatu zuen.

—Eta, nortzuk dira horreek, Satanko eta Dortoka hori? —itaundu zuen ezjakinarena eginez, azalpenak patxadaz entzun eta gero.

—Ez dozu Dragoi Bola ikusten, ala? Marrazki bizidunak dira, eta zahartxoak dira honezkero, zeuk bere ezagutzeko modukoak —beste batek, itxuraz haserre.

—Ah bai, parkatu. Ez dot telebistarik ikusten, eta... Beraz, mozorroturiko tipo bi agertu dira bankuan, bata bestearen atzetik... Uri honek zirku baten antza dauka! —neska-mutilek barre egin zuten—. Ba, ez egin jaramonik, zoro koadrila bat baino ez da izango.

—Hori eroango dozu? —itaundu zion Karmelek, haren soinekoa ikusi eta batera. Soinketa egiteko barik, aerobic egiteko jantzia zirudien.

—Zer ba, ez jatzu gustatzen, ala? —ihardetsi zion Ainhizek, bularretakoa uzten zuen bitartean; azpian haren titi hazberriak agertu ziren, zuri-zuriak.

—Ba, mutilak adurra dariola hasiko dira —Karmelek. Baina haren harridura ez zen han amaitu, Ainhizek kuleroa ere utzi baitzuen—. Ala, aluko bizarrak ikusiko jatzuz, holan bazoaz.

—Isilik ba, ondo neurtuta dago dana. Hau oso estua da eta, bestela, kuleroa igarriko da, eta oso zatar geratzen da, tanga izan-da be.

Jantzi zituen soinekoa eta galtzerdiak. Neska guztiak berari begira zeuden, gaitzespenez eta asaldaturik. Jantzia estu-estua zen, eta beraren biribiltasun guztiak zituen nabarmentzen. Gainera ez zuen gezurrik esan: dena zegoen ederto neurturik. Haren

zango politik, haitzurdinezkoak ziruditenak, jantzian sartzen ziren ipurdiaren parean, izter eta ipurmasailak agerian.

—Burutik zagoz, neska —aitortu zion lagunak.

—Bai, badakit, baina gero ikusiko dozuz soinketako notak, irakasle gonazale horrekin. Mila aldiz harrapatu dogu eperdi eta titiei begira, ez da halan? —eta begi keinu lotsagabea egin zion. Karmelek eta Ainarak burua astindu zuten, errukiturik.

—Arrastion —agurtu zuen Bibiot Unaxek, bere kafesnea mahaian utzi eta haren alboan jesarten zela. Besteak bekainak altxatuz erantzun zion. Esne hutsa ezpainetara eroateari utzi eta leku gehiago egin zion.

—Ze, jende berririk ezagutu edo bai? —galdetu zion, irribarretsu.

—Ez, momentuz. Ikasleak eta zeu, besterik ez. Beno, eta zuzendaria eta idazkaria, jakina, atzo eskola-ordu biak emoteko baino ez nintzen etorri eta.

—Ez da asko, ba! —eta esne-zurripada bat hartu zuen.

—Nahikoa. Eta zu, noiztik hona zagoz hemen? —galdetu zion, ordurako lagun eginda.

—Aurten hasi naz. Iaz amaitu nebazan ikasketak, eta hemen... —pozik ikusten zen.

—Gaztea zara, gero! —Unaxek, irribarre adiskidetsua erakutsiz.

—Zeu be bai, ezta?

—Apur bat zaharragoa, lau bat urte edo, dinozunaren arabera —Bibioten eskuei begiratzerakoan eraztuna aurkitu zion—. Ez zara ezkondata egongo...

—Bai —eta Bibiot bere eraztunari begira gelditu zen—. Eta hemendik lasterrera, aita —Unax begiak zabal-zabalik geratu zen—. Ez dot emoten, ala?

—Ba, egia esan, ez. Eta neskatilak? —itaundu zion, aurreko egunekoa gogoratuta.

—Ba; hori begiz dastatzekoa da, *hobbya*. Gustetan jataz neskak, jakina, neskazale amorratua naz. Baina zelan esan..., ikasleak dira, txo, gazteegiak. Uste dozu holakoakaz beste zeozer pase-tan jatala burutik, ala?

—A... Aditzen dodala uste dot —eta pentsakor gelditu zen.

—Baina edan, gehiegi hoztu jatzu eta —ohartarazi zion, bere soraiotasuna etenez. Unaxek jaramon egin zion eta kafesnea edan.

Ia bakarrik zeuden irakasleen jantokian, beste guztiak joanak baitziren, baina mahaiaren beste puntan andereño bat zegoen. Gaztea zen eta handik ikusita esan zitekeen polita zela. Ogi puska bukatu eta, zutituta, erretilua hartu zuen.

—Bazoaz, Arantxa? —itaundu zion Bibiotek. Neskak alai begiratu zion.

—Bai, nire txanda da patioan. Langelan ikusiko gara. Gero osagarria duzu, ezta? —ez zen esnegainezko opil horietakoa, baina nahikoa ederra bai.

—Bai, egongo gara alkarregaz eta irakasle barria aurkeztuko deutsut. Agur —agurra itzulirik, alde egin zuen. Unaxek begiratu egin zion, eta Bibiotek harrapatu zuen mezua—. Bai, polita da, baina ez dago ezer. Gaztea da eta bera be barria, eta alkar ulertzen dogu... Guztiz maiteminduta nago neure neska-lagunagaz, benetan; ez neuskio inoiz ziria sartuko. Baina zu ez zagoz harrapatuta, ezta? —Unaxek eskua ipini zion gainean.

—Zu lasai, bakarrik konpontzen naz holako gauzetan. Eza-gutuko dot, hemengo langilea dan aldetik, eta kito —eta erretilua hartuta, zutitu egin zen.

—Zeuk gura dozun moduan, niri bost ardura. Eta ezkonduaren kontua... txantxetan izan da, txo; hau ez da nirea —eta eraztuna kenduta poltsikoan sartu zuen—. Baten batek galdu dau, gero bilatuko dot jabea; hemen topau dodanez, DBHko irakaslea izango da.

Biak aldendu ziren jantokitik, isilik.

Bibiot klasea lasaitu eta isilarazten zebilen.

—Olerki hau banatuko deusuet iruzkintzeko, ea nork asma-tzen dauan norena dan. Badakizue, zuek ipini ikusten dozuena, olerkiak sentiarazten deusuen. Irakurri behin eta barrero, astiro-astiro, eta itxi zeuen eskuei gura dabena idazten —azaldu zien, betiko legez, orriak banatzen zituen bitartean.

Behin guztiak banatu ondoren, bere lekuan eseri zen eman-dako olerkia aztertzeko. Haren esku geldiezinak boligrafoarekin dantzatzeko ziren. Oso irakasle gaztea zen, ez zen metro eta hiru-rogeita hamar zentimetrora heltzen, ilea pixka bat argia, begiak muskerrak, eta alaia, itxura baten. Hala ere, askotan pentsakor eta mudurri zirudien. Bere janzkera guztiz informala zen: kolore ezberdinetako bakeroak eta atorrak, musika taldeen kamisetak... Irakaslerena baino lagun itxura ematen saiatzen zen gehiago; laguna eta laguntzailea.

Neska-mutilek lanari ekin zioten. Batzuek ozenkiago, besteek bareago, denek azaltzen zituzten gauzak euren artean, olerkiari buruz zein beste edozein gairen gainean. Ainhize eta Karmele bigarren taldekoak ziren.

—Gero zer egingo dozu? —itaundu zion Karmelek, lan egiteko gogoia uxatuta. Burua beso gainean zeukala eta besoa mahai gainean, boligrafoari haginka egiten zion. Ederra zen, agian Ainhize baino emakumeago, baina ez zuen hark bezala zaintzen janzkera; eta, noski, ez zen hura bezain ausarta eta irtirina. Askoren-tzat Karmeleren gorputza askoz ere gozoagoa zatekeen, soinekoak hobeto aukeratuko balitu. Patxi ez zen zoritxarrekoa, baina askotan gertatzen denez, edukitzen ez dena nahi izaten da. Gainera, Ainhizek ez zituen gauzak errazegi ipintzen, denak kilikatzerakoan. Honen ile gorriak morboa pizten omen zuen: benetako ile gorriduna ote zen?, margo berekoak ote zituen ile guztiak? Misterio horrek inguratzen zuen Ainhize..., hori, beste askoren artean, jakina—. Etxean geldituko zara?

—Hori ez, seguru. Igerilekura joango naz, etorri gura badozu...

—Gustauko litxakit, baina... Zuk ez dozu inoiz ikasten?

—Tira, egizu lo nire etxean —eta kideasun-keinua egin zion.

—Ados, gero amari deituko deusat, kezkatu ez daiten —biek irribarre egin zuten, pozik.

—E, Karmele, ez ipini holan eperdia, harrizkoak be ez gara eta —entzun zen atzetik.

—Zureagaz ez daukagu arriskurik, egon seguru —kontraera-so zion Ainhizek, jaramon handirik egin barik. Gero neska biak barreka hasi ziren, Patxi zirikatuz.

—Ba, zurea harrapetan badot... —esan zuen Patxik, ahopeka. Hitz horiek Joxek baino ez zituen entzun.

—Ea ba, lanak batu egingo dodaz, ea zelan egin dozuezan. Bihar emongo deusuedaz atzera —esan zuen Bibiotek. Zutitu egin zen, eskuineko hankan hatz eginez. Bere ohiko patxadaz paperak hartzen joan zen, guztiak batu artean. Batzuk zuri itzuli ziren, beti bezala.

Txirrinak laster jo zuen, eta neska-mutil batzuk klasetik aterra ziren, ohi bezala, atsedentxo bat hartzen, zigarroa ezkutuka irolean erretzen edota pixka bat olgutzen, arauen kontra.

—Jasone, zatoz hona unetxo baten —esan zion irakasleak neska bati. Jasone ezer esan gabe hurbildu zitzaion—. Zeozer gertatzen jatzu gaur, ezta? —neskak begiratu egin zion, isilik—. Badakizu, ez deustazu ezer esan behar, baina nonogaz berba egin gura badozu... Ni bulegoan egongo naz —eta joaten utzi zion. Goibel bazegoen edo zeozer txarto bazihoakion, seguruenik neska bulegora joango zen, gazte adikor eta ulerkor harekin solastatzen.

—Bueno, gaurkoz amaitu dot —esan zuen Bibiotek, eta karpeta eta liburuak zalaparta atereaz utzi zituen bere lekuan—. Zelan?

—Asper eginda —izan zen Arantxaren erantzuna, koinaka hartzen zuen aldi berean.

—Bai, nekatuta zagozala esan lei, zer ba?

—Uf, kokoteraino nago, azkenengo mailakoak...

—Lasai —eta soinetik helduta, igurtziak egiten hasi zitzaion. Arantxa eserita geratu zen eta egiten utzi zion.

—Zuretzat oso erraza da, ikasleak lagun dituzu, baina nik...

Orduantxe iritsi zen Unax irakasleen gelara. Bere lekura abiatu zen, agurtu ondoren, eta gauzak han itxita Bibioten ondora hurbildu zen.

—Aupa, hau Arantxa da, ez dozue alkar ezagutzen, ezta?

—Unaxek, ezetz esanez, eskua luzatu zion andereñoari—. Unax dau izena eta barria da hemen.

—Kaixo —Arantzaren begiek behetik gora begiratu zioten, apal—. Lehen ikusi zaitut, jantokian.

—Kaixo —erantzun zion besteak, lazki.

—Tira ba, jesarri gugaz, beti komentatzen doguz klaseko kontuak —saiatu zen Bibiot—. Horrek pisua alkarregaz eroaten laguntzen dau —irribarrez.

—Nik berehala joan behar dot —Unaxek.

Atea irekirik, Jasonek burua agertu zuen.

—Parkatu —esan zuen, herabe.

—A, zu zara... Oraintxe noatzu, bulegora joango gara —eta gero besteei—. Bueno, bakarrik ixten zaituet, neure beharra da eta —Bibiotek sinesgogor begiratu zion.

—Beharra, lana ala astia?

—Beharra, beharra, baina ez ogibidea bakarrik. Gustura egin leiken horreetarikoa —hori esanda, alde egin zuen.

Autobuseko atea haien atzetik itxi ziren, motorearen zarata urruntzen zihoala, etxe garestien artean galdu arte. Haizearen urrumada ile gorritxoetan ezkututzen saiatu zen, alferrik. Haiek dantza ezta dantzatzen zuten neskatoaren soin gainean, fereka. Dotore zebilen, urratsak ondo markatuz, ozar. Esku bat patrikan eta bestea karpetari eutsiz, berbetan zihoan bere lagunarekin, hau altuagoa eta lotsorragoa, itxuraz.

—Urrun dago igerilekuori? —Karmelek. Apur bat galdata, bazter guztietara begira zegoen, ikusten ez zuela. Behin baino gehiagotan joana zen Ainhizeren etxera, baina hala ere dena hotz egiten zitzaion. Ez zuen oso gogoko, ez zen eroso sentitzen, batez ere Ainhizeren ama etxean egonez gero.

—Ez gara hara joango, egia esan ez dot gogo handirik —gil-tzak patrikatik aterata atarira hurbildu zen, txistuka.

—Zer dinozu, orduan?

—Bakarrik lotzen banaz, ez jat gustetan etxean egotea, eta igerilekura joaten naz (gainera han beti dago mutil gihartsuren bat, begiak alaitzeko), baina zu egon ezkerro, etxean hobeto. Etxe osoa daukagu geuretzako, ama joan egin da eta —igogailua behe-ra heldu zen. Oso zabala eta berria zen, etxe hartako gauza guz-tiak legez, eta gainera azkarra.

—Zeuk gura dozun lez... Badaukazu pelikularen bat bideo-an? —itaundu zuen Karmelek, begiak guztiz biziturik.

—Euki dot pelikula on-on bat, baina orain ez dakit... Zeozer grabatuta ete dago? —eta ahopeka gaineratu zuen, aurpegi mal-tzurra jarririk— Pornoren bat?

Bosgarren solairua. Igogailua igotzen zuenean bezain isilik gelditu zen, atea automatikoki irekirik. Neska biek solasean irten zuten. Eskailera zabalaren haitzurdinetik urratsen hotsa luzatu zen, guztiz ito artean. Aurreko atea zabaldu eta batera, Ainhizek karpeta behe-ra bota zuen, izugarrizko zama kendu izan balu bezala. Karmele haren atzetik sartu zen, isilik, kristal eta urrezko jauregi hauskor baten sartzen denean nabaritzen den dartada arrotzaz. Hormak pastel kolorekoak ziren, oso zainduak eta koa-dro garesti eta ulergaitzez josiak, bakoitzak bere izenburua eta egilearen izena zilarrezko karteltxo baten grabatuta, azpian. Lan-para dotore eta bitxidunak, estatuak, pitxerrak... Bai, egongela hura ondo zegoen museo baterako, edozertarako..., egongela bate-rako izan ezik. Sarri ere ez zen sartzen etxe hartan, baina egiten zuen guztietan ulertzen zuen zergatik gustatzen zitzaion hain gu-txi Ainhizeri etxean bakarrik geratzea. Izan ere, etxeko neskak



maiz erakusten zuen errespeturik eza, txamarra txinatar zerami-ka baten gainean utziz edota txabusina argimutil batetik eskegiz... Hasieran ama izorratzeko (edo haren arreta bereganatzeko, behintzat) egiten zuen, baina beti alperrik zenez gero, azkenean ia ohitura bihurtu zen.

—Ikusiko dozu, orain kristoren bokadiloak egingo doguz, niri gustetan jatazan modukoak: maionesa eta ketxup mordo bat, urdaiazpikoa, gaztaia, urazea, tomatea, gurina, arrautzea... — hori bai, horrek ondo jotzen zuen Karmeleren belarrietan—. Gura badozu kubata pare bat be prestauko dodaz..., edo bi.

—Zu zara, Ainhi? —entzun zuten, beren poza bat-baten mozturik.

—Bai, ama, baina zelan zu hemen? Ez zara izan kanpoan lo egitekoa, ba?

—Bai, bai, oraintxe urteteko nago, neuri itxaroten egongo dira eta. Parkatu, laztana, baina ez daukat astirik zuretzat ezer prestetako —ahotsa etxearen beste puntatik iritsi zen.

—Ez arduratu, ez deustazu inoiz ezer prestetan... —esan zuen bere kolkorako.

—Zeozero esan dozu?

—Ez ama, ez... A, laguna ekarri dot etxera, lo egiten —Karmelek zeharretara begiratu zion, tutik ere esan gabe.

—Ondo dago, laztana; ez daukat bera agurtzeko astirik be; egiozu zeuk zeozero... Noiz daukazuz azterketak?

—Horretarako bai, horren ardurea hartzeko astia badozu —Ainhizek marmarka—. Ondino ez, ama, jakingo dozu.

—Ikasten ibiliko zara, ezta?

—Bai, ama, horretarako etorri da Karmele, matematikak neuri azaltzeko —erantzun zion, gezurretan.

Amak ez zuen ezer esan, lanpetuta baitzegoen, baina minutu batzuk geroxeago berriro entzun zitzaion:

—Bueno, agur. Zintzo ibili eta asko ikasi... A, eta ez zikindu moketa, mesedez —erantzuteko denborarik eman gabe, atearen danbatekoa heldu zitzaion.

—Lasai, ama, ez dogu ezer zikinduko —ondo ebaki zituen hitzok.

Baina kanpotik behintzat, bere amaren axolagabekeriaren eragina arin gainditzen zuen beti.

—Bokadiloa jan ostean bainua hartuko dodala uste dot; gura dozu zuk?

—Nor da?

Telefonoaren txirrinak luzaroan jo zuen. Egia esanda, ez zuen hartzeko gogorik, baina telefonoak ekin eta ekin egin zion jotzeari, harik eta hartu arte. Haren doinuan erraz sumatzen ziren nekea eta gogorik eza, baina beste aldean zegoenari ez zion asko axola.

—Zer, hain apurtuta ixten hau hire behar barriak, ala? —ahots hori ez zen inoiz aldatuko: beti ardura gabekoa, erdi sensuala erdi hotza, lotsagabea eta askotan gogaikarria.

—Zer gura dona orain? Ez nagon oso seguru hire ahotsa entzun gura dodan —Unaxek alboan utzi zuen esnea, erdi hazita zuen bizarra karrakatzen zuen bitartean.

—Zer ba, ez hau hire arreba maitearen ahotsa entzuteak pozten? —neskaren ahotsaren atzetik beste hotsen bat sumatu zen.

—Zertarako deitzen deustan; tipo bategaz hago ohean, ezta? —esan zion berezkotasun osoz.

—Bai, baina egon lasai, euskeraz ez jok ezer aditzen. Hiri be gustauko litxakik, oso emakume ederra dan aldetik... —tentatu zuen.

—Momentuz ez, eskerrik asko. Agian beste egun baten alkartuko gaitun *menage à trois* bat egiten. Orain agur, eta ondo pasa.

—Bardin, nire nebatto kuttuna, hain aldarte txarrean bahago —erantzun zion ironiaz—. Atzokoa jarraitzeko deituko deustak —eta eskegi egin zuen.

Bainuontzia urbegiz gainezka zegoen, epel eta usaintsu, neska bien zain. Karmele liluratuta zegoen begira, etxean ezin baitzuen horrelako toki hain handian bainurik hartu, jakuzzi eta guzti. Igerilekua zirudien, bainuontzia baino gehiago. Gainera biribila zen.

—Hau nire amesetan agertzen da bakarrik.

—Tira ba, beti esaten dozu gauza bera hau ikusten dozunean. Kendu bata eta sartu, geuretzako da eta —esan zion Ainhizek. Berak ere txabusina utzi eta ur goxotan sartu zen. Xaboi punpui-lak itsasten zitzaizkion haren gorputz zuriari—. Ua, hau *de puta madre* dago, sartu behingoz ba!

Azkenean Karmele ere biluztu eta lagunarekin elkartu zen uretan. Aurpegian zuen ezagun atsegina.

—Ez neuke hemendik sekula be urtengo —aitortu zuen.

—Ba, nigaitik ez atzeratu; nahi badozu egizu bertan lo... Seguritik ames erotikoak eukiko dozuz —eta barreari eman zion.

—Hobeto alkarregaz lo egiten badogu —jarraitu zion Karmelek, ahoa sentsualki irekirik. Gero bera ere barreka hasi zen.

—Mmmm, hemen mutil pare bat falta dira—esan zuen buruan egoera begitandurik.

—Esate baterako? —Karmelek, burua lanean jarrita bera ere.

—Patxi eta Joxe ez, behintzat, ikusiegi dagoz eta... Gurago neuke... ez dakit...

—Unax, adibidez? —lagundu zion besteak, zirikalari.

—Bai, eta zuretzako Bibiot, ezta?

—Hori?, neskea dauka eta —Karmelek belakia hartu eta soina garbitzen hasi zen.

—Eta, arazoren bat? Guztiz urtenda dago ha. Seguru nago gu lako neska gazteak gustetan jakozana.

—Ba, ez dagoz txarto, ez bata ez bestea; amesetan egiteko, behintzat —onetsi zuen Karmelek. Ainhize pentsakor gelditu zen unetxo batez.

—Nire titiak txikiegiak dirala uste dozu? —itaundu zion azkenean, euren gaintetik eskua igarotzen zuela, laztanka.

—Ez horixe. Beti pentsau dot oso politak daukazuzala... Neu-reak dira handiegiak... —erantzun zuen arduratuta.

—Baina zer dinozu, klaseko titirik onenak daukazuz eta! Egin behar dozun gauza bakarra da gehiago nabarmendu, eta kito.

—Gurago neuke zureak lakoak banitu; oraindino gazteak gara eta gehiago haziko jakuz. Pentsau ama izaten nazenean! Gainera, zuk mutil guztiak erakarten dauzan gauza bat daukazu —Ainhizek ulertu ezinik begiratu zion.

—Zer da, ba?

—Guztiak jakin gura dabe ea benetako ule gorriduna zaran —bestea lehengo lez geratu zen—. Badakizu..., ea tortolea be ule gorriduna dozun, eta hori —amaitu zuen, gorriturik.

—Ba, ikusten dozun lez, bai, badaukat —erantzun zion garrantzirik eman gabe—. Baina nik, Bibiot banintz, badakizu zer egingo neuken? —itaundu zion, aurreko gaiari helduz.

—Ez.

—Hauxe!

Eta Kar mele guztiz ustekabean harrapatuz, Ainhizek bularretara jauzi egin zion, haginka eta eskua hanka artean sartuz. Kar mele hasieran izutu egin zen, baina handik laster biek gustura barre egiten ziharduten, elkarri ura bota eta gorputzak ukitzeko saioetan.

Data barik,  
(ez dago egun hau gogoratu beharrik)  
Gaua,  
amaitzen ez dan gaua.  
Garretan behintzat hasiko balitz  
inoiz egun barria,  
edo baletor euria...  
Lorak,  
zimelduko dira lorak,  
baina zimelduta bere  
gordeko dodaz barrenean.  
Helduko ete da egunsentian  
inontzaren estalia?

Itxaron,  
besterik ez da geratzen.  
Itxaron ordu luzeetan, beti ilun, beti idor...  
Alperrik.  
Eguzkiak ez dakartaz biziteko izpi goxoak;  
eta euriaren laztanakaz  
aspaldian ahaztu nintzan.  
Baina agian negu honetan,  
ilargia barriturik,  
lorak ikusi dabe  
euren buruan argia.

Aita, arren, esaidazu,  
erabili nire bihotza;  
negarra ahoan jasorik  
zuzendu nire urratsak.  
Ondo dakizu, bai, aita,  
behar dodala beroa,  
eta ama, nahiz ta bizi,  
urrunago daukadala.

Zutunik irauteko  
tanta batzuk aski dira,  
baina jakin gura neuke  
aurkitu dodala iturria.

Eguna.  
Somatu eguna hurbiltzen.  
Gau amaigabe honen ostean  
iritsiko jat argia.

Bai, gaur negar egin dot. Nire lagunaren isilean negar egin dot. Kanpotik hain gogorra, barrutik hain hauskorra... Ez dot bera lakoa izan nahi, baina zezerk harantz naroa. Aitaren berbea entzun ahal baneu... Gatxa dot soka barik portuari eustea, korronte eta naiak gainditzea. Halan bere eutsi egingo deusat, beti egin dot eta.

Zelan baina?

### III

Burukoa negar tanta batzuekin bustita zegoen goizean. Hain ziren politak begi muskerrak negar egin ostean, hain polita gorputza dardarka...

Gurdian sartu ondoren, goiz hartan ez zuen musika ipintzeko gogorik. Atzean utzi zuen hiria, alboan mendia eta goian ortzia. Ia konturatu gabe gidaria azeleragailua sakatzeari uzten joan zen. Ohartu orduko errepide erdian zegoen, geldi-geldi. Bidearen albo-ra zuzendu zuen ibilgailua eta han geratu zen. Kanpora irten eta Bilborantz begira jarri zen.

—Lehen aldiz dakust uria, lehen aldiz, bai —esan zion Unaxek bere buruari. Eta ez zen gezurra, lehen aldiz sumatzen zuen hiriaren bizitza. Han behean, etxe zahar politen eta garai mingarri bateko munstro motzen artean, jendeak bizirik zirauen, baita eraikuntzen barruetan ere.

Pagasarriri begiratu zion lehenbizi, Ganekogortari gero. Haiek bai, haiek beti ikusi zituen bizirik, beti... egun horretara arte. Egun horretan idor eta hilik sumatzen zituen. Hiritarren goseak jainkozko mendiak itotzen zituen. Ortziri so egin zion, eta han, sortaldetik, Eki odoletan jaiotzen zetorren. Bere argia, bere odola, belardi egartsuetatik isurtzen zuen. Belarren ertz-puntek dir-dir egiten zuten, urre kolorez, ezpata zorrotzen antzera. Zuhaxka eta zuhaitzen itzala aldapan behera luzatzen zen Ar-

txandako goiko aldean... Dena beti bezain ezberdin zegoen, inoiz berdin errepikatzen ez zen ikuskizun hunkigarria, baina bere buruan ezberdinago agertzen zitzaion: dinosauruen hezurak iza-ki jaioberriaren gainean jausteko zorian, mamu erraldoiak bere borroeroaren mendekua hartu nahian...

—Zer gertatzen jat gaur? Zer ikusten dot, baina, gizakietan?  
—burua astinduz sartu zen gurdian, barrutik zebilkiona ulertu ezinik.

—Ba nik bildur apur bat daukat, ez-lurtarrak etorri badira... Ez doguz ezagutzen haren benetako asmoak —esan zuen mutil batek.

—Bai, neu bere guztiz ikaratuta geratu nintzan atzo, telebis-tan ikusi nebanean. Horreek ez-lurtarrak edo zoroak dira, eta ez dakit zer dan txarragoa —beste batek.

—Ba! Etorri daitezala ta ederrak emongo deutseguz —eta baserriko morrosko hark ukabila astindu zuen airean.

Bien bitartean, gelako beste bazter baten Patxi, Urko eta besteak ostiraleko jaiaz mintzatzen ari ziren. Ainhize jesarrita zegoen bere mahaiaren gainean, oin bat aulkian eta bestea ondoko mahaiaren ebala, hankak erdi zabaldua, txikle ahoan zerabilela. Patxik, Joxek eta Urkok begiratu azkarrak luzatzen zizkieten haren zangoei, kulero zuria ikusten baitzitzaion haien artean.

—Orduan zer, maisua gonbidatuko dogu? —itaundu zuen Patxik; baina inork ez zion erantzun.

—Zeuri jagotzu, neska, honetan zeuk sartu nozu eta —bota zion Joxek Ainhizeri. Neskak ez-entzunarena egin zuen eta belau-nak mugitu zituen, itxi eta zabaldu, itxi eta zabaldu. Eskuek mahaiari zeutsoten haren atzetik—. *Laostia* zara, Ainhi, momentu ezegokietan badakizu berba egiten, dana nahasteko, baina gero, urtenbidea aurkitzeko... —Ainhizek begiratzen ez zionez gero, Joxek bere begiratuak ugaritzeko aukera hartu zuen, urdu-ri.



—Nigaitik ez dago arazorik, etorri daiten; zelebrea izan leiteke maisu barria gugaz mozkortuko balitz, ezta? —esan zuen Urkok, neskak jaramonik egiten ez zuela ikusita.

Baina Ainhizek, bere eran, jaramon egiten zien. Edonora begira zegoela ematen bazuen ere, neskak mutilen begiak ere ondo zekuskien, eta bere barruan barre egiten zien. Harrapaturik zeuzkan eta bazekien hori. Begiak sumatzerakoan, hotzikara zetorkion mutilen begi puntutik ahora, eta ondo zekien haiengandik nahi zuena lortu zezakeela. Ez zegoen ziur Ainara eta Karmele ere jabetu ote ziren, baina dena dela ez zen gauza handirik gertatuko; agian lizun hutsa zela pentsatuko zuketan, besterik ez, eta hori ez zen berria izango.

Gauza bat ez zuen kontuan hartu: irakaslea sartu zen, eta segundo bakar bat baino ez zuen behar izan egoera ikusi eta ulertzeko, egun hartan oso sentikor baitzegoen.

—Ondo dago; orduan afaria-eta egingo doguz, eta Unax erango dogu, baina gitxienez zeuk esango deutzazu etorteko, behin egin dozu eta —agindu zion Joxek neskari. Neskatzak irri maltzurra agertu zuen, bere adostasunaren adierazgarri.

—Oraintxe —eta altxatuta, mutilen ikuskizuna bukatutzat eman zuen. Panpoxa oso ibili zen maisuaren mahairantz eta, hark arbela ezabatzen ziharduela, mahai gainean jesarri zen haren zain, zangoak gurutzaturik eta burua makurtuta, ilea bere gorputzean behera jaisten zela.

Unaxek jeurt egiterakoan neskarekin topo egin zuen. Une batez belaunetara begira gelditu zen: bai belaun polit eta dotoreak. Hurreratu zitzaion, hunkituta, benetan hunkibera baitzegoen gaur. Neskak burua altxatu zuen, ile gorria atzerantz bota nahian, baina iletxo batzuk aurpegian geratu ziren. Unax ahaztu egin zen klasean zegoela, eta ile xerloa belarri atzean ipini zion hatz batez, eztiro. Begietara begiratzen zion, eta Ainhizek bazterrik ezkutuenetara heltzen ari zela nabaritu zuen; hitz egiten saiatu zen, baina hitz guztiak zintzurtean gelditu ziren, trabatuta. Hankak mugitu zituen, gero eta urduriago, bere itxura gogorra eta axola-

gabea bertanbehera galduta, eta nahi gabe ukitutxo bat egin zion irakasleari hankartean. Unaxek hotzikara sumatu zuen hortik gora eta berehala ikusi zuen estualditik atera behar zuela neskatxo onbera hura, jende aurrean bere burdin-jantzia berreskura zezan.

—Zer gura dozu, zeozer esan behar deustazu? —bai, segundo baten neska bere rolaz gogoratu zen. Gainera dena gertatu zen hain azkar, non klasea ez baitzen ezertaz ohartu.

—A, bai..., lagunek eta, zuri jaira etorri zaitezcan esateko agindu deuste... Badakizu, barikuan Joxeren etxean —hala ere, Unaxek hitzetan zertxobait makal nabaritu zuen, onera guztiz itzuli gabe.

—A, eskerrik asko, jakina joango nazana... Baina etxea non dagoan esan beharko deustazue.

—Bai, jakina, klase ostean.

Eta keinu bat eginda lekura bidali zuen. Ainhize jauzi batez mahaitik jaitsi eta arineketan itzuli zen jesarlekura.

Egun hartan bai, egun hartan Errenazimendua ikusten hasi ziren, azterketak gero eta hurbilago zeudenez, gai hori gutxienez osorik ikusi beharko zutela eta.

—Aupa, zelan gaur? —itaundu zion gazteak. Oinak mahai gainean zeuzkala, ikasleren baten lana irakurtzen ziharduen, bere aulkian kulunka.

—Badaukazu klaserik orain? —besteak, karpeta mahai gainean utzirik.

Arkatzari koska egiteari utzita, so egin zion. Besteak ere begiratu zion; ezohiko gizakia zela pentsatu zuen: irakaslea, idazlea, anarkista eta militrontxoak oinetan.

—Ez —erantzun zion ezohiko gizaki hark hain ohiko eran.

—Goazen kafetegira.

—Bai, hemen ez da zangorik ikusten.

Unaxek kafesnea eskatu zuen eta Bibiotek Pagoa garagardoa, gorria, jakina, Bertoko, merkatuan ondo sartu ez zelarrik, desager-

tua zela eta kexu. Bakoitzak berea hartuta, atzealdeko mahai bat aukeratu zuten.

—Ikusten? hemen ikuskizun ederragoa daukagu —Bibliotek.

—Badago zuretzat neskak ez diran beste ezer?

—Baietz... uste —baina Unaxen galderak erantzun sakonagoa nahi zuen.

—Ez, benetan, zer deritxazu bizitzari, neskez aparte?

—Pufff, batek daki! —eta garagardoa edaten zuen bitartean bazter guztietara begiratzen zuen—. Dana da bizitza, eta bizitza dana da.

—Horrekin ez dozu ezer esan. Gehiago espero neban idazle batengandik —esan zion bere harrotasuna zirikatzeke asmoz.

—Zer gura dozu erantzutea?

—Ez dakit, gehiago ezagutu gura neuke neugaz behar egiten dauena —kafeari puzka—; zeure balioak zeintzuk diran, esaterako.

—Ez dakit ondo lehenengoa zein dan, baina gitxi gorabehera, askatasuna, maitasuna, adiskidetasuna eta sexua.

—Sexua balioa al da? —galdetu zion barreka.

—Ez dakit, baina gustatzen jat. Gainera, monotonia apurtzeko; ostantzean danak dira tasunak —erantzun zion, patxadaz. Isilik gelditu ziren biak, irribarrea ezpainetan zutela—. Eta zureak, zeintzuk dira?

Unaxek begiratu zion baina ez zuen erantzun.

—Zertaz idazten dozu? —galdetu zion azkenean.

Bibioten gorputza ikara batek astindu zuen. “Nor da gizon hau? Berak nire ispiluan begiratzen dio bere buruari, baina berarenak ez dit ezer itzultzen...” Hala ere erantzunaren zain zeukan.

—Ikusten dodanari buruz. Askotan zer edo zer esan gura dot, eta ideia horri istorio bat bilatzen deusat. Beste askotan giro bat, mundu bat sortu nahi dot, edota pertsonaia batzuk, eta itxurea zelan emon pentsetan hasten naz. Halanda be arrazoi batzuk nahastau ohi dira, eleberri barruan nire barneko gogoak eta ezak ostentzen dodaz... Bueno, askotan gura dodana baino argiago azaltzen dira.

Ez dakit, sentimenduak konpartitzeko beharrezana daukat, idatziz zein berba eginez, eta hori arriskutsua da askotan. Giza-kiengan sinestu egiten dot bat-batean, eta neure barrena zabal-tzen deusat ia edonori. Egiaiegi jokutzen dot normalean... Berba egitea gustetan jat. Gainera neure ideiak argiago ikusten dodaz beste bategaz hitz egiten dodanean. Edo batek daki, agian berba lodien atzetik barruan hutsik sentitzen nazala ezkutau gura dot.

Unaxek ezer esan barik entzuten zion bere kafea nahaskiltzen zuela. Azkenean hark esandakoetarik hari jakin bati heldu zion, barnean gehien geratu zitzaionari, hain zuzen.

—Bai, arriskutsua da guztiz. Eta zergaitik sartu zinan irakasle? —aitzin-aitzinetik, lehen aldiz entzuten zituen holako azalpe-nak bere barnean barre egin gabe.

—Irakasle... Gogoko dot, barruan daroat. Ezinbestekoa da jentea umetatik ondo heztea mundua gitxika-gitxika hobetzen joan daiten —Unaxek begiak zabaldu zituen. Ba ote zegoen orain-dik halako jende idealistarik? Bai, Bibiot anarkista zela gogoratu zen... Dinosauru bat, azken finean, haren ustez, goizean sumatu zituen mendiak bezalako dinosaurua.

—Zer da heziketa ona, ba? —betondoa zimurtuta.

—Gizaki bakotxagandik onena ateratea. Horretarako egiten itxi behar jako, askatasuna emon behar jako, txikitatik erantzuki-zuna hartu dagiala. Txarto badabil zuzendu, haserretu barik, eta ondo badabil txalotu. Ez jako ezer inposatu behar, berak aukera-tu behar dauz bere balioak eta bere morala —hitz hori entzunda irria marraztu zitzaion ezpainenetan—. Gatxa da, baina berak egi-niko aukerea balioko dala erakusten bajako eta norberari be ardura deusala ikusten badau, etsipen barik haziko da.

—Oso polita, baina baikorregia zara. Pentsau baten batek moralik ez daukala.

—Eta zer da azken baten morala? Konbentzino bat, besterik ez. Kalterik egiten ez badau...

—Eta kalte egiten badau? —Unaxek harrapatuta zeukala sentitu zuen, une batez, baina Bibiot burugogorra zen.

Garagardea hartu zuen eta patxada handiz erantzun zion:

—Baten batek hankea sartu dau, ez dabe nik esandakoa egin. Egia esan, irakaskuntzan neuk be ez dot egiten, seguruenik... Lehenago kalte egitea zer dan zehaztuko bagendu. Zer da AEBentzat kalte egitea? Euren interesen aurka jotea, baina mundua gura daben lez suntsitu edo pobretzea ez da kaltea, ezta? Orain Afganistan, gero Irak, edo Korea, edo batek daki, agian egumen baten Espainiagaz bat egin eta Euskal Herria izango da gaizkileen sorleku... Dana dala, moralik ez daukanik ez dago. Beste nonork kalteak egiten dauzanean ohartzten da, eta ez da barruan lasai gelditzen, diruak eta erosotasunak barrua lasaitzen laguntzen badabe bere.

—Ez pentsau... —esan zuen Unaxek bere barrurako.

Ezpainak gorri-gorri margotu ondoren ispilua musukatu zuen, begi keinua eginez. Euskarri urdinaz bular goxoak estali zituen, kolore bereko kulero batez hankarteko aho gosetia ezkutu, eta galtzerdi gardenek izterretarantz igo zuten, azal zuria laztanduz. Setazko alkandora fin zuria aukeratu zuen, minigona gorria eta jaka; Chanel n<sup>o</sup> 5 lurrina, eta zorroa hartuta joan egin zen.

Idak galdeketari jarraitzeko gogoa zuen. Beti zen aitzaki ona etxeetan sartzeko, eta idazkari-zintzo-betaurreko horiekin eta bere itxurarekin —erdi tolesgabea, erdi maltzurra— nahi zuenean baten bat seduzitzea lortzen zuen.

—Ai, nebatxo, nebatxo, hik gehiegi luzatzen dok eure istorioa, gehiegi lantzen dok. Hain dok erraza joan eta hartzea... Ez ete haz kezkatiegi bihurtzen hasi? —esaten zion Idak bere buruari, bidean zihoala —. Ez, beti izan haz perfekzionista hutsa.

Audi dotorea aparkalekuan utzita, ikastetxeko ate nagusi-rantz zuzendu zen. Haizeak iparraldetik jotzen zuen, ile hori tin-

datua nahasiaz. Ibilera dotore eta ondo ikasia, zangoak gurutzatuz, jantzi muskerra eta zurruma luzedun oinetakoak... ataltzaindegitik sartu zen. Gizon heldu bat atera zitzaion, hanka bat erdi arrastaka zuela.

—Arratsaldeon, anderea. Norbaiten bila zabilta? —galdetu zion bere beharra beteaz.

—Bai, eskerrik asko. Bibiot irakaslearen bulegoa? —esan zuen gizonari begiratu gabe.

—Ate horretatik pasilloa bukatu arte eta hortik ezkerretara. Bere atean “Literatura saila” dio... Erraz aurkituko duzu —amaitu zuen andaluziar ahoskera ezkutatu ezinik.

—Eskerrik asko.

Ilea txukuntzen joan zen. Haren urratsen oihartzuna ate ostetik galdu zen. Berehala aurkitu zuen bulegoa; jantzia leundu eta atean jo zuen. Ez zekien zer nolako gizona aurkituko zuen beste aldean, baina haren ahotsak behintzat polita zirudien “Aurrera!” esan zue-nean. Paper eta liburuz jositako mahai baten atzean gizon gazte eta alai bat topatu zuen. Zutitu eta eskua luzatu zion atsegin handiz.

—Ainhizeren ama, ezta?

—Bai, eta zu Literatura eta Hizkuntzako irakaslea?

—Nor bestela? —irribarretsu—. Baina jesarri, mesedez. Zeuk esango dozu nigandik zer gura dozun.

Andreak goitik behera aztertu zuen: haren itxura, haren janzkera, mugimenduak, begirada... eta behingo horretan, liburuen izenei begiratua eman zien. Bibiot haren begiak izenburu bati il-tzatuta zeudela ohartu zen: *Kamasutrari*, hain zuzen. Gordetzea ahaztu zuen; normalean ez zuen oso eragin ona izaten gurasoen-gan, baina nola azaldu gaztea zela eta asko ikasi behar zuela bere maitearekin gauza berriak dastatzeko? Halaz ere andreak ez zuen ezer esan eta bere golkorako gorde zuen iritzia. Bibiot urduritu egin zen apur bat; gainera, emakumea ederra eta artean gaztea zen, eta bere hanka luzeak iradokor gurutzatzen zituen. Orduan haren alabarekin gogoraturik ondo ulertu zuen Ainhize nork eskolatua zen. Ez zen ez, beraz, hain autodidakta neskatxoa.

—Bueno, zuzenean mintzatuko naz. Gustetan jat nire alabaren irakasle guztiak ezagutzea haren martxa hurretik jarraitzeko. Aurreko kurtsoetatik ezagunak dodaz besteak, baina zu aurrean sartu zaran ezkerero, azken azterketak heldu aurretik buruz buru berba egin gura neban. Bestea, barria, ezagutzea falta dot, baina hain denbora laburra daroan ezkerero ez dot uste ondino eretxirik eukiko dauanik.

—Beraz Ainhizeri buruz berba egin degizudan gura dozu... Ba... ez dot beste batzuk baizen ondo ezagutzen, beragaz mintzatzea gatxa da eta, baina gogokoa dot... Jatorra dirudiala esan gura dot. Neska oso alaia eta bizia da, beti irribarretsu eta...

—Alaiegia beharbada —moztu zuen—. Baina zelakoa dan badakit. Ardura deustana kurtsoa zelan daroan jakitea da.

Bibiotek begietara begiratu zion. Ez zitzaion gustatu andre hura, ez. Emakume harropuzta ematen zuen eta alabaren gorabeherak ezer gutxi axola ziotela pentsatzen hasia zen. Elkarrizketak bide beretik jarraitu zuen tartetxo batez. Neska horrek haren laguntza behar zuen momentu horretan. Eta horretarako Ainhizegatik gezurretan ibili behar bazuen ere, egingo zuen. Ez zen lehenengo aldia ikasle bategatik hori egiten zuena.

Desagertu zenean Bibiotek arnasa hartu zuen, sakon. Bai, holako gurasoak zeudeino, berak irakasle izaten jarraitu beharko zuen.

Mahaiko paper-liburuak pixka bat bildu zituen, buruan Kanadako D.O.A. punk taldearen aspaldiko “No productivity” zerabilen bitartean. Baretasuna kanpoan eta barrua haren bila, irten zuen bulegotik, eskuak poltsikoetan zituela. “Ez naz oso ondo ibili —zioen bere baitan—, baina holako gauzak ikusteak senetik ateraten nau... Kaka! Gainera gaur apur bat itxura formalagoaz etorri banintz behintzat” —pentsatu zuen bere janzkerari erreparatuz: bakeroak, *martens*-ak eta kamiseta... Ez, ez zen arropa oso dotorea—. Zergatik jarri ete naz holan? Berak ez dau hainbeste esan, bere alabeak kurtsoa zelan daroan itaundu bakarrik...”. Hori guztia hausnartzen zihoala Unax ikusi zuen, ikaste-

txetik orduantxe irteteko. Norbaiti kontatu behar zion barrua lasaituko bazuen.

—Ainhi, zatoz hona minututxo baten!

Bere logelan Ainhizek kasetea itzali zuen hurrengo kanta hasi baino lehen, abestiak erdian moztea ez baitzuen batere gogoko. Txiklea mamurtzen hurbildu zen amagana, egongelara. Ama besaulki baten jesarrita zuen zain, aurpegi ilunaz. Neskatilak tua irentsi zuen, gainera zer ote zetorkion sumatu ezinik.

—Zer, ama? —ausartu zen.

—Ikastetxean egon naz —hori entzutean txarrena zetorkiolar- ta prestatu zen; atzetik atzamarrak mugitzen hasi zen, urduri, gurutzatuz eta elkarren artean igurtziz— eta zure Hizkuntza eta Literaturako irakasleagaz alkartu naz... Harroputza halakoa! Ez dakit zelan egon leiteken be halako irakaslerik! Hori saskarra! —alabak zabal-zabalik zeuzkan begiak, tutik ere ulertzen ez zuela.

—Zer izan da, ba?

—Tira, bardin da —eta aurpegia zertxobait eztitu zitzaion—. Esan gura neutsuna izan da, oso pozik nagoala zugaz —begi biak ezin zabalduago jarri zitzaizkion; hori bai ez zuela espero—. Beharbada arrazoi apur bat baeukan, ez deusut behar besteko arretarik eskaini, baina esan deust asko ikasten zabilzala, langilea zareala, eta oso nota onak itxaroten dauzala zugandik —eta zutituta bekokia musukatu zion—. Ea egia dan! —Ainhizek irribarrea behartu zuen bere ezpainetara, zer eran- tzun ez zekiela.

—Bai, ama, saiatzen nabil.

—Bueno, orain zoaz ohera eta atsedean hartu. Gabon.

—Gabon, ondo lo egin.

—Bardin; ala, zoaz ba. A, Ainhi, ganerako egun baten irakas- le barria ezagutu gura dot, azterketen ostean segurutik, ea harek zer kontu dakarstan zugaitik...



Bai jatorra Bibiot, pentsatu zuen, bai jatorra eta bai gezurtia. Baina zer esan ote zion ama horrela haserratzeko? Berdin zion, beraren alde jokatu zuen eta hori zen garrantzitsuena... Baina Unaxekin ere hitz egin nahi zuen eta ez zuen uste hark horren ondo jokatuko zuenik, momentuz. Unax...

Etzan egin zen ohe gainean, biluzik, sabaira begira, begiak ametsetan zituela. Orduan gogoratu zen haren klasean gertatutakoarekin, segundo miragarri harekin. Eta Joxeren etxeke jaiari egongo zen berari esker. Eskuak, ia ukitu barik, papoa laztantzen hasi ziren, papo ume txiki goxoa, papo esne eztea. Negarrak irten zion: haurregia zen irakasleak gogoko izateko; andregaiia edukiko zuen, panpoxa eta liraina, bular handiak,... Gustura egin zuen negar, isilean, atzamarrak leunkiro mugitzen zituela, izara blai-blai uzteraino.

Unax ortzira begira zegoen, leihoan. Bazekien han, hodei ilunen atzetik, begia zegoela. Baina gaur ez du gorrotz edo etsipenez begiratzen; begiratu egiten du, soil-soilik. Gaur inguruko aldakortasuna sumatzen du, eta hura ere aldatuz doa, orain badaiki. “Eta zer gertatzen zait?” itauntzen dio bere buruari. Urrunean gorputzez baina bihotzetik hurbil, ikara nabaritu du. Eta ikara gora doa, eta ito egiten du, eta malkoak saltoka dabilta bero atsegin batek bihotzetik behera izterrak gerarazita dituen bitartean.

Logelaren zorabiora itzuli da eta zorabiatuta ohean datza. Pare bat titi zuri hazberri dantzan dabilta haren ametsetan.



## IV

Goitik, honen goitik, ez dakit gauzak oker ikusten ez ote diren. Edo agian hori pentsatzea nahiago ote dut. Baina behin egin nuena orain ezin alda nezake. Ordutik bakean bizi naiz neure larru barruan, erosoegi, ahaztuta, itsu-mitsuan. Egun baten joko legez hasi zenak, harrokeria zigortu nahian, luzaroegi dirau. Zein da orain harroa?

Hemendik orain hiria dakusat, hor behean, erdi lo, amets..., zahartuta, berritu nahi arren. Aspalditik lepoa emanda bizi naiz, eta ahotsen bat entzuten banuen, neure argiak berak ez zidan ikusten uzten. Baina gaur begiak zorrotzak dauzkat, edo beste era batera esanda: nahikoa izaten da nahi izatea, ahal izateko... Eta gaur nahi izan dut. Zergatik?

Eta zer dakusat gaur hor behean, hirian barrena? Gizon bat, gizon gazte bakarti bat dakusat. San Antongo zubian dago, eta olerkaria ei da. Ez dakit, baina seguru nago; olerkaria izan behar gauez hor egoteko, itsasadarrari begira, kale argiek itxura emandako hiriak zer barneratzen dion ezagutu nahian. Bai, nik badazagut sentsazio hori, arrazoi argirik gabe bihotza taupa hasten zaizunean; une batez mundu osoa besarkatu nahi duzu jarraian zakarrontzira bota nahi izateko. Gizadiaren handitasuna ikusi orduko, horren atzetik zakartasuna agertzen delarik, are handiago. Eta ez dakizu zer den bota nahi duzuna, gizadia ala zeure burua bera.

Gizonak gora begiratzen du, ea izarrek zer kontatzen dioten, eta guztion artean neu ere banakusa (edo ikus nintzake, behintzat). Izar izatea zein polita litzatekeen bururatu zaio, baina izarra zein ilun eta bakarti sentitzen den baleki...

Honek ere badauzka gauza onak. Bai, hemendik ikus dezaket gizadi osoa. Gauez haiek ere ikus nintzakete, oskarbi dagoenean, baina lehen nik haiek ikusten nituen legez: puntu mordo bat, hantemenka, galdurik. Behin bakarrik ikusi ninduten neba-arreba bik, eta orduan neu ere beheko gizakiak banan-banan ikusten hasi nintzen... Eta hobe hasi ez banintz, haien bizitzak bere ohiko bidea jarraituko baitzukeen. Ondo pasatuko nuela uste nuen... Ni bai tentela, ni bai itsua! Eta zenbat gizaldi nire itsukeriari nahita eusten...

Baina gaurtik aurrera ezin esango dut hor batek nire beharri-zana daukana ez dudala ikusi. Ez. Haren bihotzaren negar isurtzea ondo ikusi dot. Lore txiker gorri polit horrek benetan hunkitu nau eta haren zoriontasuna nire esku dagoke... Zenbat bider dastatu ote dut haren edertasuna ohean etzanda zegoela eta nire izpiak leihotik sartzen zirela...

Baina erabakiak ez dira egun batetik bestera hartzen, ezta?

## V

—Egun on, Arantxa. Klasera zoaz orain? —Bibiotek, zorroa mahai gainean utziz.

—Bai, 2 B-koekin daukat orain... Eta banoa, berandu egin baino lehen —eta liburuak besapean zituela, aterantz joan zen.

—A, gauzatxo bat —neska atzerantz bihurtu zen—. Zer dakizu Ainhizeren amaz?

—A, egia, atzo berarekin hitz egitekoa zinen, ezta? —Bibiotek baietz buruaz—. Uf... Ezagutu nuen bai, eta ez da batere emakume erraza. Zer ba?

—Inpresino hori emon eustan, eta pentsau dot neskeak gure laguntza beharko dauala —Arantxak irribarre egin zuen.

—Horrek bere buruari laguntzen ikasi behar du, apur bat txoriburua da eta. Guk baino hobeto ezagutzen du bere ama eta jakin behar luke hura pozteko zer egin behar duen... Ikas dezala —Bibiot pentsakor geratu zen Arantxa atera heltzen zen bitartean.

—A, orain haren klasera zoaz, ezta? Esango deutzazu, bazkal ostean bulegora neugaz berbetan etorteko, mesedez? —ezpainak okertuta begiratu zion Arantxak.

—Ongi, zurekin hitz egin dezala, nirekin jai dauka eta —hori esan eta batera alendu zen.

Ez, neskak ez zituen gauzak erraz edukiko, pentsatzen zuen gizonak.

—Ala, zuek biok, mesedez, zoaze kalera, haize apur bat hartzen —esan zien Unaxek atzealdean hizketan ziharduten lagun biri—. Ez dot goizetik haserretu nahi, eta bide honetan lortuko dozue.

Mutil biak, tutik ere esan barik, altxatu eta joan egin ziren, euren artean irribarrea ostenduta.

—Ondo ba, orain lasaiago jarraituko dogu, eulitzar horreek barik.

Klase osoa isilik geratu zen; ordurako bazekiten irakasle hura jatorra izan zitekeela, baina behin haserretuz gero nahiko umore bortitza zeukala. Gainera, egun horretan serio samar zebilen hasieratik, gaia aurrera azkar zeramala.

—Gaurko jaiagaz gogoratuko dala uste dozu? —itaundu zion Ainhizek Karmeleri.

—Ez dakit nik ba. Esan gero, ea zer erantzuten deusun —besteak, ipurdian txatxamurka eginez.

—Marizikinori, gero beragaz zer edo zer gura dodala pentsauko dau, beti neu banabilko... —hagin estutuak erakutsiz, maltzurki begiratu zion—. Badakit, gaur zeu joango zatzakoz gogorarazoten, ados?

—Ezta pentsau be... —baina esan bezain laster Ainhizek otoi-gile so egin zion.

—Mesedez, egizu hau nigaitik, gainera oraindino ez gara beragaz lotu, ez deusagu etorteko ordua be esan.

—Ea hortik atzetik baretzen zarien, neskak —Unaxek. Neskek begirada goxo eta errukiorra eskaini zioten eta, jakina, honek ez zien gehiago ezer esan, eta eskolarekin jarraitu zuen.

—Azkenean, beraz, tipo ha gonbidatuta dago, ezta? —Patzik Joxeri.

—Bai, ardura deutsu, ala? —Patzik axola bako aurpegia agertu zuen.

—Ez, niri ez. Bertan lotan lotzen ez bada, behintzat.

—Bai zera! —Joxek, irribarretsu—, alde horretatik egon lasai.

—Osterantzean dana izorratuko deusku, ezta? —eta begi kei-nua egin zion.

—Zuri agian bai, baina niri ez dot uste ezer izorratuko deustanik —etsitu aurpegiaz.

Patxik ukondoaz jo zuen.

—Txsss, alde horretatik ez arduratu, ikusiko dozu zelan mozkortzen diran kinitoan jolastu eta gero... Zu leloa bazara, ez egin ezer, baina nik behintzat Karmele hartu eta ohera eroango dot, badot gogoia behingoz estrenatzeko!..., zuk ixten badeustazu, jakina, etxea zeurea da eta —besteak barre egin zuen.

—Zuk bai suerteak daukazuna, beragaz urteten dozu eta ez jatzu asko kostauko, baina nik... Mozkortuta dagoala zer edo zer egiten badeustat, seguru nago gero ez deustala parkatuko.

—Zu zara, zu, tontoa! Eurei be gustetan jake, ala oraindino ez dakizu hori? —jarraitu aurretik sakon hartu zuen arnasa—. Gainera Ainhize izanda..., nik ez neuke birritan pentsauko aukera hori eukita... Zoragarria izan behar dau ohean, eta bere loretxoa irekitzea... —Joxe ere neskari begira geratu zen, pentsakor, haren gorputz biluzia buruan begitandurik, beharbada.

—Gaur zuk egiten ez badozu, nik neuk egingo dot —esan zion zirikatzeke asmoz edo.

Joxek ez zion erantzunik eman, hain zegoen liluratuta.

Txirrinak ozenki jo zuen. Liburuak itxi eta ikasleak irteten hasi ziren. Joxe, Patxi, Urko eta Ainara, Karmele eta Ainhizerekin elkartzera joan ziren.

—Bueno, horreri ze ordutan etorteko esan behar jako —Joxek.

—Eta, ze ordutan hasiko gara? —Ainhizek, bere betiko irri-barre zalantzagarriaz.

—Zazpi t'erdietan ondo dago? —aurpegiaren itxuratik, denek ontzat eman zuten—. Ba, zeuri jagotzu esatea, Ainhi —neskak ardurabako aurpegia ipiniz erantzun zion.

—Karmelek esango deutso, nik orain Bibiotegana joan behar dot; bulegora deitu deust —eta Karmeleri lepoan ukitutxo batzuk emanda, atetik alden du zen.

Denak atzean utzita, Ainhizek agur isila eskaini zion paperak zorroan gordetzen ziharduen irakasleari. Honek, begiak paperetatik altxatuz, agurra itzuli zion.

Txistuka zihoan pasabideetatik, jakin-mina ostenduta. Zer esango zion irakasleak, zergatik beraren alde jokatu amaren aurrean? Berak bazekien irakasle hura jatorra zela eta batzuetan onbera, baina ordura arte inoiz ez zukeen gezurtia ere izan zitekeela pentsatuko. Agian sermoi bat botako...; ez, ez, berehala baztertu zuen ideia hura. Berak ezagutzen zuen Bibiot ez zen, ez, sermoizalea, agian hitzaldi luze zalea bai. Batzuetan klaseetan bere gogoetetan galtzen zen, baina inoiz ez zuen sermoirik botaten entzun... A!, hori bai izan zitekeen: aholkuak. Bestea ez bazen ere, aholkuzalea bai, ostera. Berari, ordura arte, ez zion aholkurik inoiz eman, agian behar ere izan ez zuelako, baina gauza balioitsuak esaten ei zituen... Bai, gaindituko zuela esan ostean, pozik eta arretaz entzungo zion esan beharrekoa.

Konturatu orduko ate aurrean zegoen. Jantzia txukundu, ileari ukitutxo bat eman, eta atea jo zuen, leunkiro, ezpainak busti eta lehortzen zituen bitartean. Beste aldetik, sartzeko baimena entzun zuen. Atea pixka bat zabaldurik burua agertu zuen.

—Ainhize naz, Arantxak etorteko esan deust.

Bibliotek neskari begiratu eta sartzeko esan zion. Gorputz bihurgunetsu hark aurrera jo zuen, irakaslearen begiek hanka paregabezi zeutsetela. Begi puntua aldatzerakoan neska horren amak aurreko egunean ikusitako liburu berarekin topo egin zuen, eta arrapaladan hartu eta kaxoi baten gorde zuen. Ainhize begira zeukan, baina ez zuen jakin hark izenburua irakurtzeko beste asti eduki ote zuen.

—Jesarri, mesedez —esan zion, apur bat lasaiago. Ainhizek irribarre egin zion—. Bueno, ez dakit jakitun egongo zaran, baietz uste dot —lehen aldiz begietara so, begi musker xalo haie-tara. Une batez hitzek hegan egin zioten pentsamenduarekin



batera, begirada hain tolesgabea aurkitzerakoan—. E... A, bueno ba, mmm... atzo zure ama etorri jatan hona eta berbetan egon ginan...

—Bai, gaia zelan daroadan jakin gura eban —Ainhizek, lagundu nahian.

—Bai, hori da —berriro ere haren begietan ipini zuen arreta, baina oraingoan urrunago joan nahi zuen; buru nerabe horretan irakurri gura zuen—. Gura ez badozu ez erantzun, baina, zelan daroazue zeure ama eta bion arteko hartuemon?

—Ze hartuemon? —baina Bibiotek ez zuen neskaren ironia igarri.

—Zera..., berbarik egiten dozue? —ez, ez zuen orain psikoanalistarik behar, pentsatu zuen.

—Askotan —irakasleak atek momentuz itxita ikusi zituen.

—Beitu, berak ea gaintituko dozun itaundu eustan. Orain zeuk erantzutea gura dot —Ainhizek begiak jaitsi zituen, bekainak eta ezpainak higitu, eta zer erantzun jakin barik geratu zen. Azkenean burua jaso zuen:

—Ez dakit, baina behar dot. Ez naz oso iaioa olerkiak aztertzen, ez dodaz adituten... —Bibiotek ez zion bukatzen utzi.

—Mesedez, niri esan zeinkit gura dozun beste guzur, baina jokatu zintzo zeure buruagaz. Ni zuri laguntzeko nago, hori bai zin egiten deusut, baina laguntzen itxi behar deustazu, bestela...—ordurako Ainhizek burdin jantzia zeraman soinean, eta irribarre ernagarria eskaini zion—. Badakizu zer lortuko dauan zure amak? —neskak ezezka buruaz—, zuk gitxien gura dozuna, bera lako alabea egitea. Zu dirudizuna baino askoz gehiago zara —gaztearen aurpegia aldatzen hasi zen, hasieran seriotasun pixka bat hartuz.

Bibiot leihorantz itzuli zen, sortu zen tentsioa apurtzeko. Handik patioa ageri zen, eta patioan ehunka neska-mutil, hantemen, korrika eta saltoka, barre-algaraka, oihuka, negarrez, pozik eta goibel, futboleak, soka, ostenketetan, harrapaketan... Haurrak.

—Benetan... zuk, beste askok ez daukena daukazu. Agian Matematika, Fisika, Zientziak edo beste gaiak emoten dabezanez ez dabe igarriko, baina Literatura emonik argi sumatzen da. Ezin ostendu zeinke hori, barne-barnean daroazu eta —orain bai, orain neskak arretaz eta jakin-minez begiratzen zion, zer esango ote zion ez zekien eta—. Askotan zure testu azterketak hotzak dira, nortasun bakoak..., egiten dozuzanean, jakina. Baina beste batzuetan, sarri izan ez arren, olerkiaren barruan sartzen dakizu, zeure egiten dozu, eta orduan zeure benetako izaerea azaltzen da —neska mutu zegoen, bihotzean ikara nabaritzen zuela—. Itsasobeteko sentsibilitatea dozu gordeta, benetan olerkien mamina adituten dozu... Eta hori txalogarria da.

—Eskerrik asko —esan zuen ia ahotsik barik.

—Entzun, gura badozu gure sekretua izango da hori; lagunek ez dabe jakingo zein indartsua zaran, ze hori indarra da, ez ahultasuna. Baina tratu bat egingo dogu: azterketarako ikasi teoria, apur bat baino ez bada be, eta egizu holako iruzkin bat, eta Nahiko ez eze, Bikain be aterako dozu. Ados? —Bibliotek irribarre adikorra erakutsi zion—. Kanpoan izan zeuk gura dozuna.

—Eta Hizkuntzan? —galdetu zion, bere betiko lotsagabetsuna berriro azalean zuela. Irakasleak barre egin zuen.

—Ez izan bildurrik, hori ikasi barik menperatzen dozu eta —Ainhizek ere, erantzunaren esanahi osoa ulertuta, barreari eman zion—. Halanda be zer edo zer ikasi gero, badaezpadan. Eta inoiz berba egiteko norbaiten bila bazabilz, badakizu non nagoan. Orain zoaz dibertitzen, sasoian zagoz eta.

—Eskerrik asko, benetan. Azterketarik onena egingo deusut.

Jauzi batez zutundu eta gero, agur egin zion, aurpegira bere ohiko irria itzulirik. Atean zegoenean Bibliotek begi keinu batekin azken aholkua eman zion, txantxetako doinuz apainduta:

—Eta ez ahaztu beste gaiak, irakasle guztiak ez dira ni besteko jatorrak —Ainhizek begi keinua itzuli, eta alde egin zuen.

“Neskea ona da, eta azkarra, oso azkarra. Nerabearoa hain polita izanda pena litzake berarena hondatzea”.

—Eup! Bibiot! —pasabidetik beste puntara begiratzera-koan, Unax ikusi zuen deika. Urrunetik agur eginda, elkarrengana joan ziren.

—Aupa, etxerantza?

—Izan lei, baina ez daukat presarik. Zu nora? —elkartzera-koan zapladatxoa eman zion lepoan.

—Nora ezean... Bueno, zure bila, hobeto esanda —besteak buruari eragin zion.

—Zer dala-ta?

—Atzo Ainhizeren amarena kontau neutsun, ezta? —besteak baietz—, ba, orain dala gitxi alabeagaz egon naz berbetan, beraren eragingarriak aurkitu gurean, gogo apur bat sartu, eta hori...

—Eta?

—Bueno, pozik urten daualakoan nago.

—Baina hori ez da dana, ezta? —Bibiotek begietara begiratu zion, irri egin eta jarraitu.

—Ez. Nik badakit nireak gaindituko dauzala, baina pentsau dot guztion laguntza beharko dauala...

—Eta nik be beragaz berba egitea gura zenduan —Bibiotek aurreko mugimenduak errepikatu zituen.

—Ba, bai. Beitu, Arantxak ez deutso lagunduko, begi bitartean sartu jako eta.

—Jakina, Ainhizeren azpijokoek gizonontzako baino ez dabe balio.

—Halan da, bai —Bibiotek erdi barrezka—, eta gizon guztia-kaz ez dakit balioko deutsan. Seguru nago Soinketa gaindituko dauala, hori ezagutzen dot eta neska politak beti aprobatzen dauz, baina beste batzuen ez dago hain argi —Unax gelditu egin zen eta orain bera izan zen begietara begiratu ziona.

—Zergatik hartu dozu hain serio berak dana ateratea?

—Esan neutsun, ama ez jatan bape gustau, eta orain badakit ze momentu txarrak pasauko dauzan zer edo zer geratzen bajako. Orain ardura deutsan gauza bakarra da dana ateratea, eta edozer egiteko prest dago hori lortzeko. Konfiantza apur bat emoten

badeutsagu, agian bere buruagaitik ikasiko dau, eta ez bakarrik bere ama ez haserretzearren... Entzun, ni ez naz erraz aztoratzen, baina holan jarraitu ezker, egun baten bere bizi guztian damutuko jakon zer edo zer egingo dau.

—Oso garrantzitsuak dira ikasleak zuretzako, ezta?

—Bai, ikasle bakotxa. Ezin parkatu neio neure buruari ume bat arazoetan ikustea eta ez laguntzea.

—Beitu, gaur jaia egingo dabe Joxeren etxean, eta ni han egongo naz —beste irakasleek jakitea ez da beharrezkoa, jakina—, beraz berari hurbildu eta alkarrizketatxo bat eukiten ahaleginduko naz... Baina Nahikoa ez deusat oparizat emongo, berak irabazi beharko dau. Ni ez naz zure moduko altruista... Halan bere laguntza osoa eskainiko deusat.

—Eskerrik asko, banekian portatuko zinana —Unaxen erantzuna irribarre zalantzagarrria izan zen.

—“Non sarturik nago, denak itsuak ote?, geurea den zerbait otsoari emateko. Gehiengoak dauka arrazoi osoa!!; hori hik sinistuko dek!...” Disko hau itsasobetekoa da —erdi abestu erdi esaten zuen Patxik, burua goitik behera astintzeari utzi barik.

—Eta gero datorren punteoa benetan *flipantea* —Joxek, kalimotxo une batez mahaian utzita.

—Lagun batek esaten dauan lez, *auténticamente flipante* —esan zuen Urkok porroa Ainhizeri pasatzen zion bitartean—. Baina gero ipini beste zer edo zer, Extremoduro edo, hau heavyegia da niretzako.

—Ainhi, pasa azkar peta, Unax etorri baino lehen erre behar dogu, badaezpada —Karmelek.

—Lasai, itxi gustua hartzen.

—Heavyegia, heavyegia, Su Ta Gar da Euskadin dagoan talderik onena —Patxik, edalontzi hustua kalimotxoz berriro beteaz.

—Ea zelakoa dan ha jaietan, ea izorratzen ez deuskun —Urkok.

—Ainhi, pasa porro hori behingoz! —Karmelek, irrikan.

—Eutsi ba, neska gogaikarriori.

—Ei, ez horditu larregi Unax etorri aurretik, e? Osterantzean ez dogu bera kinitoan mozkorrarazoko —ohartarazi zien Joxek.

—Azkenean betiko seirak gagoz; zergaitik ez dozuz besteak konbidau? —kexatu zen Ainara. Joxek buruari eragin zion erantzun orduko.

—Unax etorrita gurago neban besteak ez ekartea, baten bat pasauko ez ete zan bildur nintzan eta. Gainera holan... —eta esaldia bukatu barik, Patxiri begiratu azkarra egin zion. Honek begi keinua itzuli zion Ainhize eta Karmeleri zeharka begiraturaz.

—Holan zer? —Ainarak.

—Bueno, jente larregi badator, kriston iskanbila sortu leiteke, eta auzoak ez dira oso adikorrak —arrazoia hura izan ez arren, sinesgarri iritzi zion Ainarak.

Une horretan txirrina entzun zen, atean. Denak geldi-geldi geratu ziren, elkarki begira. Joxek Karmeleri so egin zion; tira, Karmeleri baino, hark zeukan porroari.

—Karmele, amatau hori oraintxe, bota komunera.

Karmelek hala egin zuen, bidetik azkeneko zurrupadak ematen zizkion bitartean. Aldi berean Joxe atea irekitzera joan zen eta Ainhizek balkoia zabaldu zuen porro usaina kentzeko.

Egongelatik atearen hotsa eta Unaxen agurra entzun zituzten. Karmele pixka bat zorabiatuta heldu zen eta badaezpada jesarrita itxaron zuen. Joxe eta irakaslea sartu zirenean, egoeraren berezko-tasunik eza oso nabarmena zen: derrigorrezko irri leloak, geldotasuna (agian haxixaren eraginez)... Gainera Unax ez zen kaikua.

—Kaixo... Musikaren bolumena eta kaña ez datoz bat zuen itxureagaz. Zer dozue ba? Baten bat hil da, ala?

—Zer ba? Zure zain gengoan jaiari hasiera emoteko, eta zertxobait moteldu gara —erantzun zion Patxik, arduragabearena eginez.

—Ba, zerk edo zerk ni barik hasi zariela dinost... Edo baten bat budista da eta meditazioa egiteko intsentsua piztu dau

—gazteak elkarri begira lotu ziren, zer esan jakin gabe—. Tira, neska-mutilak, klasean irakaslea izango naz, baina jai batera etorri naz eta neuri be porrotxu batek ez deust kalterik egingo —hitz horien ondoren ez zuten jakin zelan erantzun, Ainhizek izan ezik.

—Jakin izan bagendu ez genduan komunetik botako —eta barretxo bati ihes egiten utzi zion—. Badakizu lietan?—Unaxek zeharretara begiratu zion, musturra okertuta.

—Ez dot jakingo ba... Esku bakar bategaz be bai. Ekarri ona eta erakutsiko deusuet zelan egiten dan benetako kanuto bat.

Irakasleak guztiz harrিতuta zeudela esaterik ez dago. Unaxek kosto harria hartu zuen, kartoizko muturra belarri atzean ipini, txiskeroaz berotu eta zunguluarekin nahastu, eta papertxoan bildu zuen, muturra zegokion puntan ipinita.

—Zer deritoxozue, e? —esan zien zigarroa erakutsiz. Guztiak aho bete hortzekin geratu ziren: paketetik zuzenean ateratakoa zirudien—. Ala, beste bat hasi daitela.

—Ez, hasi zeu —eskatu zion Ainhizek—, ez dot inoiz irakasle bat porroa erretan ikusi.

Unaxek bekainak altxatu, eta jarkitzen saiatu barik kanutoa piztu zuen. Bitartean, ordurako irekita edukitzea alperrekoa zela eta, Joxek balkoia itxi egin zuen ostera ere. Kosto usain goxoa berehala zabaldu zen gelatik. Irakasleak bizpahiru zurrupada eman ostean, Ainhizeri heldu zitzaion.

—Nekatu egiten zaitu musika honek? —itaundu zion neskak.

—Su Ta Gar? Ez, lasai. Hau baino gauza gogorragoak be jasaten dodaz. Hurrengo baten, hobe dozue belarra eskuratzea, zinez dinotsuet, baina tira, ez dago txarto.

—Ezagutzen dozu hau? —Paxik, sinesgogor.

—Entzun, gazte, ipini zeinke gura dozun guztia eta ezagutuko neuke. Musika asko entzun dot. Ze uste zenduan ba? Zuk baino urte batzuk gehiago daukadaz, eta denpora honetan danetarik entzun dot: heavy, punk, hard core, grunge, rock gogorra, hard core-rap, crossover, thrash, grin core, speed, death metal, eta baita rockanrolla, blues, rythm-and-blues, eta abar, eta abar be.

—Bai zera, zuk?—Urkok ere ezin sinets zezakeen.

—Bai. Gura badozu egun baten ezagutzen ez dozuzan talde batzuk itxiko deutsudaz.

—Esan bat, adibidez —punky gazteak, oraindino gogor be-rean.

—Gura dozun beste: entzunda daukozu The Adicts?

—Izena bai, aspalditik nabil horreen zerbaiten atzetik, baina inon ez da gaur aurkitzen.

—Ba neuk itxiko deutsut, dana dala Interneten be topau zeinke, iMesh edo erabilia... Zer gehiago... Angelic Upstarts, Theatre of Hate, Peter and the Test Tube Babies, Bad Religion, Antinowhere League, One Way System, Blitz, K.G.B., Die Toten Hosen, D.O.A., Anhrefn, Mudhoney, Dinosaur Jr., Weirdos..., Fugazzi, U.K. Subs, Stiff Little Fingers, Sonic Youth, The Partisans, Hard-Ons, Henry Rollins..., Devil Dogs, Siouxi and the Banshes..., Angry Samoans, Misfits..., Youth Brigade, Meatmen, Fu's..., Canal Terror, Spux, Black Flag, Dwarves..., Government Issue, Hüsker Du, Adrenalin O.D, The Defects, No FX..., Chron Gen, Naho Nemsyt..., Sham 69, Discharge, Exploited, Toy Dolls, Dictators, Damned..., Poloniako Pidżama Porno, Włochaty, Dezerter, Yugoton... Errusiako Cektop Gaza, Finlandiako J.M.K.E., Vennaskond, Metro Luminal, Idiotsuye Revolutsio-on... Hungariako Hétköznapi Csalódások, Frantziako Bérurier Noir, Ludwig von 88 edo Lofofora... Italiako Gli Impossibili, Punkreas, Banda Bassotti... Japoniako The Blue Hearts, Kemuri, Hide, Brahman, SOBUT edo Grind Vibes..., Brasilgo Devotos do odio...

—Nahikoa, nahikoa da. Jarraitzen badozu buruak leher egin-go deust.

—Benetan egon dagoz talde horreek guztiak, ala asmau egin dauz? —galdetu zion Patxik Urkori. Bitartean, laguntasunezko keinua egin zion Ainhizek Unaxi, ukalondoko txikerra joaz. Unaxek gaia lehenago Bibiotekin “prestau” izana eskertu zuen bere baitan.

—Baietz uste. Izen batzuk ezagun egiten jataz, beste batzuk neuk be badaukadaz, Henry Rollins, Devil Dogs edo D.O.A. lez, baina gehienak inoiz entzun bez. Harrituta itxi nozu, benetan.

—Banekian itxiko zindudazana. Eta zuri, Patxi, metala gus-tetan bajatzu, beste izen andana esan neikizu.

—Itxi, itxi, sinisten deusut eta. Holako beste zerrenda bat entzun ezkeru, hilda nago. Hobe dogu kinitoan jokatzen hastea... Hori be ezagutuko dozu, seguru —Unaxek irribarre egin zuen.

—Zelan ez ba. Esan leike geuk asmatu genduala joko hori.

—Ordun hobe da lehenbailehen hastea, irakasle bat horditu-ta ikusteko irrikan nago ta —esan zuen Ainarak.

—Zuen nahia hori bada, kostako jatzue. Hemen ez daukazue ni mozkortzeko behar dan beste ardao.

—Itxurak emoten ez zara makala, behintzat —Joxek.

—Bikoa eta gora.

—Hirukoa eta gora.

—Laukoa eta...

—Ez... Kaka, osteru be niri.

—Kar, kar, kar...

—Ederra hartuko dozu holan jarraitu ezkeru, Ainhi.

—Zeuen errua da. Ez genduan Unax mozkortu behar, ala?

—Tira, neska, edan, niri bidaltzea alperrekoa da eta.

—Tira ba, hamar.

—Ondo ba, saiatuko gara bikotea ateraten... Batekoa eta gora.

—Ez.

—Zelan igarri dozu ba? Ikusten, Ainhi, neu be banabil eda-ten... Ez dago txarto edari hau. Ze demontre da?

—Esango deusagu?... Etxeko edaria da: ardao baltza, limoi eta laranja ura, rona, ginebra, kasa, azukerea eta osagai sekretua.

—Buff, hau ez eban Panoramixek asmatu ba?

—Bai, eta Urko umetan galdaran jausi zan eta orain ez dau-ka beragan eraginik.



—Ji, ji, oso txiste ona, Ainara.

—Egingo dozu beste petatxu bat? Hau hiltamuan dabil.

—Hemen bizio larregi dago, nik dakustanez.

Zigarro eta porro, porro eta zigarro, dadoak gora eta behera, denbora (arrats-gaua) aurrera zihoan. Gero eta beherago, hormako erloju zaharra berunezko sabai hodeitsuak erdi estalita zegoen. Baina sagar-masailtxoak gorrituz zihoazela, alkohola zela eta, inork ez zituen hamaika kanpaiak entzun. Ordurako edalontzi bat baino gehiago joan zen zamautik, eskuak eta buruak hain bizkor ez baitzebiltzan. Jokalarien ganbarek ekaitza dakarren zeruaren jitea hartuta zeukaten.

—Fuuu, bukatu dogulakoan nago, baina oker banabil, ez esan, mesedez, *shocka* larregia izango litzake eta —esan zuen Ainhizek.

—Ez da harritzekoa, baldekadea edanda gero... —Unaxek, txantxetan.

—Horren egarri zinala esan izan bazendu, gehitxoago erosiko geunkean —jarraitu zuen Joxek txantxetan.

—Esan ostabe eta polito itxiko'tsut egongelea —Ainhizek, edandakoa botatzeko keinua eginez.

—Eta musika aldatzen bo'zu ta dantzetan eiten bo'gu? Zeo-zer lasaiagoa —eskatu zion Ainarak Patxiri.

Ahotsek nahiko garbi adierazten zuten gertatutakoa. Bakoitza bere aulkian jausita bezala lotu zen mugitu ezinik.

—Imini gu'zuna, Ainara, baia iminizu zeuk —erantzun zion Patxik, arnasa barrurantz bultzatzen zuela.

—Tira, gazteok, lotu zeuen lekuotan, ni mugituko naz eta, zuen orde.

Eta zutunik zegoela, sabel ederretako, musika katearantz abiatu zen.

Han zeuden disko, konpaktu eta zinten artean begira hasi zen. Pletinatik Rob Zombieren kasetea atera eta musika lasaia bilatu zuen.

—Bueno, zer ipiniko dot ba.

—Silvio Rodriguez, jarri Silvio, mesedez —iradoki zion Ainarak.

—Ez, Benito Lertxundi —Ainhizek.

—Zuek erabagi, Silvio ala Lertxundi.

—Bardin da, edozein dalakoa be loak eroango gaitu —esan zuen Patxik aharrausi handi bat eginez.

—Bueno, Benito izango da, euskaraz dago eta gainera berau aurkitu dot lehenengo.

Ainhizek txalotu egin zuen, aulkitik jaustear zegoela, oreka galduta. Hots maila egokitu eta gero irakaslea besaulki eroso eta zabal baten jesarri zen. Honen erdua hartuta, Urko eta Ainara larruzko besaulki hirukoitzean jesarri eta elkarri helduta geratu ziren. Patxik beste besaulkia aukeratu zuen eta Karmele eseri zuen magalean.

—Etzara mozkortu, ala?—itaundu zion honek Unaxi.

—Esan deusuet ba, ni mozkorrarazoteko hori baino gehiago behar zala. Ts, ts, ts, gaurko gazteria gogorragoa zalakoan nengotan.

Bitartean Joxe hirukoitzean kokatu zen, Urko eta Ainararen ondoan. Ainhize ozta-ozta hurbildu zen, begiak erdi itxita.

—Niretzako lekurik eztago, ala?

—Bai, neska, jarri nire belaunetan —eskaini zion Joxek, berak egokitutako lekuan esku biekkin txalotxoak emanaz.

Hara joateko te-mahai baten eta Unaxen artetik igaro behar zuen, baina oinak guztiz baldar zebiltzanez gero, behaztopatu eta irakaslearen gainera jausi zen, honek ez tiro jaso zuela.

—Txssss, kontuz, neska. Min hartu dozu? —itaundu zion, erortzerakoan mahaiari ostikada galanta jo ziolako.

—Danok lassssai, primeran nao ta. Ez da ezzzer gertatu —eta gero, begiak pixka bat joanda, ahots erdiaz Unaxi esan zion:—  
Ardura deustu zugaz lotutea?

—Zatoz hona, nik heldu degizudan —eskatu baino, agindu zion Joxek.

—Ixi, txo, hametik altxetan banaz, ostabe bertan behera joango naz.

Irakasleak besoaz gerritik inguratu zuen erortzen ez uzteko, artean oreka galduta zuelako. Neskak, gizonaren magalean eroso eserita, samatik heldu eta haren soinean burua jarri zuen, suzko ileak aurpegia estalita uzten ziola.

—Ez eban hainbeste edan behar. Orain loak hartzen badau, gatxerdi —esan zuen Unaxek.

—Bai, arrazoi apur bat ba'kozu. Halanda guzti be, zeuk be pilo bat edan dozu, inork baino gehiago —Urkok.

—Baina bitartean jan be, jan egin dogu, eta ni segurutik gehien jan dodana naz. Onena jokoren bat prestatzea izango da, ea esnatzen zarien.

—Dantzan —esan zuen Ainarak.

—Dantzan egiteko moduan bazagoze..., ni momentuz neskau jagoten lotuko naz.

Benito Lertxundiren gitarra atzetik entzuten zen, ahots ederrak lagundurik. Ainarak zutitu eta Urko altxarazi zuen. Gero elkarri zeutsotela, dantzan hasi ziren. Karmele, Patxiri helduta, imitatzen saiatu zen, baina mutilak besoa askatu eta bere lekuan geratu zen.

—Joxe, alztaten bazara Ainhize eratzango dogu hor —Unaxek.

Bien artean neska hartu zuten, baina neskatoak gorputza astindu eta bera bakarrik etzan zen, laguntzarik ez zuela behar eta.

—Ez dakizue bertsoan?—bururatu zitzaion irakasleari.

—A, bai, bai, botiaizue bertso batzuk —txalotu zuen Karmelek.

—Uf, buru astun honegaz eztot usten bertso onik urtengo's-kunik —Patxiren keinuak, eskuak buruaren alboetan ipinita, adierazkorra izan nahi zuen, baina ez zituen limurtu.

—Ez izan nagia, erakutsi irakasleari ze trebea zaran —tentatu zuen Joxek.

—Trebea? Ba'kizue zein bertso traketsak eiten dotazan.

—Tira ba, nik ez deutsut Egaña bat izatea eskatzen, danok dakigu mozkor talde bat garala —lagundu zion Unaxek.

—Mmmm..., ia ba zeozerk urteten deustan —azkenean, animaturik, urruma eta hasperen egin ostean, zerbait sortzen ausartu zen:

“Hamen gagoz guztiok  
mozkorra betian,  
Joxen etxi hartuta  
parranda gurian;  
irakaslea dogu  
lagunen artian,  
ha mozkortu nahiean, ai, ai, ai ,ai  
juan jaku gabia.”

—Ona, ona —guztiok, erdi lo zegoen Ainhizek izan ezik, bertsoa txalotu zioten.

Unax erantzuteko prestatzen zen bitartean, Urko eta Ainara dantza utzi eta moketan jesarri ziren.

—Tira ba, hor doa:

“Gazte honeen artian  
gaztetu nazela,  
iruditzen jat niri  
pozik nagoela.  
Ni horditzen saia ta  
lortu eztabela,  
hor dau Ainhi ordea, ai, ai, ai, ai  
bizirik eztela.”

—Ja, ja, ja, ja —gazteok gustura egin zuten barre, eta Ainhize ere begi bat zabaltzen saiatu zen.

—Eztao txarto —Patxik.

Orduan Joxeri iritsi zitzaion txanda, hartutako doinuari jarraipena emanez:

“Ainhi bizi ez eta  
danok barra barra,  
amak ikusi eta  
helduko nigarra;  
bitartean bertsotan  
gabiz su ta garra,  
mozkorti kontuetan, ai, ai, ai, ai  
Euskadi da zarra.”

—Oso ondo, Joxe.

Unaxek txalotu zion bereziki, baina txaloak bukatu orduko, Oparotasunaren Adarra ibiltzen jarria izan bailitzan, bertsotan hain aipatua zen Ainhizeren ahotik ardoa irteten hasi zen burrustan. Joxeri begiak ia-ia goitikaren atzetik jausi zitzaizkion, moke-ta, te-mahaia eta besaulkiaren larrua erdi jandako patata frijituen zatiz, makarroiz, saltxitxaz, ardoz eta nahasketaren edari guztiaz gainezka ikusi zituenean.

Guztiz harrituta, geldi-geldi lotu ziren, inork eteteko saiaker-tarik egin gabe. Azkenean, gazteak dena bota (hiru litro gutxi gorabehera) eta lagunei behatu zien.

—Goraalea etorri dazt —hitz egin zien.

—Bai, ohartu gara —erantzun zion Joxek, haserretu zitekeen-tz ere ez zekiela. Ainhize altxatzen saiatu zen.

—Nonok lagunduko dost irolera? —Joxek beldurtuta begira-tu zion.

—Eztozu botetako gehiago eukiko, ezta? —Unaxek zutitu eta besotik heldu zion neskari.

—Ez, garbittuteko da —ozta-ozta egiten zuen berba.

—Karme-le, lagundui-oztu irolera —eskatu zion irakasleak—, bera bakarrik ez da iritsiko eta.

Karme-lek laguna soinetik hartu, eta astiro eroan zuen, behaz-topa ez zedin. Besteak mutu geratu ziren, inork zer esan ez zekie-la. Patxik, botatakoa berari ez zitzaio-la heldu ikusirik, zigarroa piztu zuen, hasierako ikara igaro nahian. Urkok Ainara estutu zuen besoen artean hura lasaitzeko edo. Joxek, moketari begira,

hasperen egiten zuen bien bitartean, garbitzen hasteko behar zuen kemena bildu ezinik.

—Hemen ni naz erantzule, zuek gazteak zarie eta —Unax izan zen hitz egin zuen lehenengoa.

—Ez esan txorakeriarik. Zu hemen beste lagun bat baino ez zara izan —Urkok—. Erantzukizuna, inorena izatekotan, geu guztiona da.

—Gainera, zu barik okerrago gengokez, egon danaren erdia edan dozu ta —Patxi aurpegiak pixka bat argitzen saiatu zen, baina inor ez zegoen barre egiteko.

—Horreei laguntzen noie —esan zuen Ainarak. Baina une hartan Karmele eta Ainhize itzuli ziren.

—Hobeto nago —zioen Ainhizek. Bitartean besteak buruaz ezetz adierazi zien. Egia esan, aurpegi ez zitzaion asko hobetu.

—Hobe dozu zer edo zer hartzea, sabel-hutsik ez zara osatuko —aholkatu zion Unaxek.

—Ez, ez, mesedez, eztoz ezer gura —neskaren mugimenduek burua nahastuta eta desorekatuta zeukala garbi adierazten zuten.

—Tira, ezin zeinke hemen holan jarraitu, etxera eroango zaitut —eta hori esanda, besotik hartu zuen.

Patxik ostikoz jo zuen Joxe, baina honek ezer ez zioenez, berak hitz egin zuen.

—Ez, ez, ezin da etxera joan, hobe da hemen lotutea.

—Zer dala-ta?

—Etxean hemen lo egingo dauela esan dau, eta holan agertzen bada amak lepoa berotuko deutso —azaldu zion, pixka bat estututa zirudiela.

—Baina gaur ama ezta e...—Karmelek bukatu aurretik Joxek moztu zuen.

—Itxi hemen, ohea prest dauka... Amak ez dau ikusi behar.

—Parkatu, baina ez dot hemen itxiko, larriegi dago. Amak ezin ikusi balei, neugaz eroango dot, neure etxera, eta bihar, osatuta, bere etxera eroango dot, ados? —Urkok, Ainarak eta Karmelek baiezka erantzun zioten buruaz, baina Patxik eta Joxek ez ziruditen oso ados.

—Ez arduratu, ondo jagongo dogu. Lagunon artean hobeto egongo da —saiatu zen Patxi ostera ere.

—Zagoze lasai, etxean ez da nigaz bakarrik egongo, arreba be badaukat, eta ondo jagongo dau —esan zuen, susmo txarrei itzuri egiteko. Joxe gorri-gorri jarri zen.

—Patxik ez eban hori esan gura... Halan da guztiz be zuzen zagoz, hemen danok gagoz mozkortuta ta ez gintzatekez hori jagoteko gai izango... Jagon ondo, e? —Patxik begiradaz ia-ia garbitu egin behar zuen laguna.

—Eroaizu lehenbailehen, zugaz hobeto egongo da ta —xuxurlatu zion Karmelek.

—Bueno, gazteok, ba ondo segi eta astelehenera arte. Busti azkar moketea ur eta xaboi az edo bestela ez da garbituko.

Ainhize konortea galtzekotan zegoela, besoetan jaso eta eztiki eramane zuen kanporantz. Ziurrenik Joxek bereak eta bost entzun beharko zituen Patxiren ahotik, honek artean Karmele eduki arren.

Kontu handiz burdiaren atzeko jesarlekuan etzanda ipini zuen. Ordu bata t'erdia jotzeko egongo ziren berak gidari lekua hartu zuenean. Burdia martxan jarri aurretik ispilua egokitu zuen, haren bitartez gona txiker hartatik irteten zuten zango zuri goxak bistan eduki zituen arte. Gero, bere buruari irri eginez, sama bihurtu zuen, begiekin haren gorputz lo gaztean goitik behera ibiltzeko. Ile gorri hura aurpegitik jausten zitzaion, xerlo bat ezpaine helduta zutela. Txamarrarekin ez zitzaizkion bularrak igartzen, baina esne-eztizko izterrak ordezko bikainak ziren. Honela, lotan, aurpegiak aingeru batena zirudien, edo hura irakasten zebilen Errenazimenduaren ideala: azal zuria eta masailtxo gorrixkak. Bolantera itzuli eta motorea piztu baino lehen, musika jarri zuen, Anthraxen *Among the living*, soinua, neska ez esnatzeko, behera samar ipini bazuen ere.

Leunkiro gidatu zuen etxerantz, birak oso poliki hartuz eta semaforoetan aurretik geldituz. Hiria ez zegoen zeharo loak hartuta, argixken azpitik gazte jendea igarotzen zen, taldeka, eta noi-

zean behin, haien ahotsek auzoekin ahaztuta zeudela adierazten zuten. Errepidearen ispilu beltzak kale argiak, semaforoak, iragarkiak eta denden neoiak islatzen zituen nonahi. Burdiaren aurreko kristalean euri tanta batzuk jausten ziren, haizetako-garbigailua erritmikoki igarotzen zela Unaxen begien aurretik, haien ohiko soinu ezagunaz. Gizonak hosto gabeko errexalei begiratzen zien, buruz “I am the law” abestiari zerraiola. Gainera, oso gogoko zuen hurrengo kanta, “Efilmikufesin”. Hamazazpi-hamazortzi urteko mozkor talde batek kantetan irten zuen pub batetik, une batez “bakailao” musika jasangaitzak eta margo aniztuneko argiek kalera kiku bat egiteko astia eduki zutelara.

Azkenean, “Indians” kantak lagunduta, bere auzotegian sartu zen. Han bai, han zabor-biltzaileak baino ez ziren, kamioia plastikozko poltsekin betetzen. Ez zuen leku bila denbora asko eman. Gero, lehen bezain ezteki, besartean hartu zuen Ainhize. Hau burua mugitu eta begiak irekitzen saiatu zen.

—Heldu gara? —ulertzea lortu zuen neska ezpainenetik.

—Bai, zelan zagoz? —itaundu zion goxoro. Baina neska samatik heltzen ahalegindu eta lo geratu zen berriro.

Unax, kontuz eta ahal zuen bezala, atea irekitzen joan zen: atarikoa, igogailuarena eta, azkenik, etxekoa. Neska-mutilei etxean arreba egongo zela esanda zegoen, baina hori egia zela ikusi zuenean hartu zuen benetako ezustea. Haren hurrina usaindu bezain laster jabetu zen nahasle hura etxean zegoela. Sukaldeko argia piztu eta beti itxita zegoen gela horietariko batera eramanean zuen neska. Oso logela ederra eta ondo apaindua, txukuna zen. Bururdi muskerra kendu eta bertan eratzan zuen Ainhize. Gero leihoa zabaldu zuen apur baten, luzaro itxita egon diren gelen usain mindua desagerrarazteko. Gelako kaxoietan denetarik zeukan, eta laster aurkitu zuen Ainhizeren neurriko setazko azpikogona zuri bat. Guztiz egokia iritzi zion. Gaztetxoaren alboan uzten zuela, belarrira hitz egin zion.

—Jantzi hau eta itxi loari eroaten lasai. Bertora ekarriko deusut txizontzia, goragalea osterara be etorten bajatzu be.



Mahai-argia piztuta utzi eta atea itxi egin zuen. Irten orduko bere gelarantz jo zuen, zuzen-zuzen. Atea zabaldu eta han aurkitu zuen, susmatzen zuen legez, biluzik, bere izara zurien artean. Logelaren giroa lurrinak hartuta zegoen.

—Zertara etorri haz, bazter-nahasle alaena? —Unaxek, hase-rre bizian.

—Hau da arreba agurtzeko modua? Lo nagoala, izutu ez eze, errietan hasi be bai? Lehengoan be bardin telefonoan. Zer dok ba? Eure paperean sartuegi ez ete hago, arerioak garalakoan... —eta nagitasunez begiak marruskatu zituen—. Hator hona, nebatxo, txikitan lez —eta izarak alboratuz, leku egin zion.

Unax neskaren gorputzari begira lotu zen: beti bezain liraina, azal zaindua, gerri estua eta zango luzeak. Zenbat aldiz zuen haren hankarteko paradisuko ezta jan? Zenbat aldiz haren bular emankorren bizitzaren esnea edan? Eta zenbat aldiz zen Ida beraren iturritik ase? Kontaezinak zirela aitortu zion bere buruari. Ezin goxoagoa haren barrutik mugitzea, ezin goxoagoa haren titien zuritasuna eta haien buru gorrixkak gogortzen zirenean. Baina gau hartan...

—Zer gertatzen jak?... A, hori dok, bajakiat hire buruan irakurten. Ekarri dok, beraz... Eta hiretzat bakarrik gura dok, ezta? Heurekaioia halakoa! Zergaitik ez dogu biok ondo pasetan? —eta ondo ezagutzen zuen katu eme gosetiaren aurpegia ipini zuen.

—Ez, Ida, oraindino ez dakin plazerrik onenak luzeenak dirala. Orain ez leiteken plazerrik egongo, guztiz mozkortuta jagonata. Gainera, hau nire jokoa dona, eta ez deunat hondatzen itxiko —Idak nebaren aurpegia ezagutu zuen, ez zuen iritzia aldatuko.

—Ondo dago ba, itxi deiogun txiteari lo egiten... Baina ni hamen nok, aspaldiko partez.

—Bai, ezin ukatu jonat bera alboko gelan eukiteak morboa pizten deustana. Uste jonat aspaldian ez legez izorratuko hautala —esan zuen arropak erantzi ahala.

—Prest naukok..., baina habil kontuz, gogoratu hire arrebatxo kuttuna nazala.

—Gogoratuko jonat, egon seguru... A, parkatu unetxo batez, txizontziagaz ahaztuta nengonan, ea moketa goitikez betetzen ez dauan —eta txabusina hartuta, gelatik irten zuen.

—Egin azkar, gehiago berotzen banaz, ohea erreko joat eta.

Iroletik txizontzia eskuratu eta beste logelara abiatu zen. Isilean ireki zuen atea, zelan aurkituko zuen ez zekiela. Han zegoen neska berak utzi zuen bezala, lehen bezala jantzita. Kontuz hurbildu zitzaion, ez iratzartzeko, eta haren ondoan utzi zuen zekarrrena. Hain polit zegoen eta hain hurbil. Ilea laztandu zion eztiki, txabusina barruan mugimendu ostendu bat sumatzen zuela. Jantzi hura kendu eta bere egingo zuen, adar mugikor hark eskatzen zion bezala. Baina ez zuen altxorra hain goiz hondatu nahi. Atzamar batez, samatik hasita eta oin baten bukatuz, lepo, ipurdi, izterretatik ibili zitzaion. Burua astindu eta joan egin zen.

—Ida, zure laguntza behar dot —hitz egin zion arrebari itzultzerakoan—. Bildur naz, baina behin batez zugaz fidatu beharko dot.

—Ez esan hori, nebatxu, noiz huts egin deuat ba?

—Joango zara beste logelara neskatilari azpikogona jantzen?

—Ida harrituta gelditu zen.

—Zelan ba, ez dok heuk jantzi gura, ala? Hainbeste bigundu haz?

—Ez da hori. Beitu, esan neutsun hau maisu lana izango zala, eta horretarako unea heldu dala erabagi artean, gurago dot bere soina ez ikutzea, ezta ikustea be... Holan askozaz goxoagoa izango da.

—Hik gura doan lez, baina badakik ni konbentzitzeko zuka egitea alper-alperrekoa dala —erantzun zion, ohetik altxatuz.

—Jantzi zer edo zer eta zintzo jokatu, arren.

—Ondo dakik biluzik ibiltea zelan gustetan jatan. Gainera lotan jagok, eta berak banakus be, ze ardura deutso nik bera be biluzik ikusten badot?

Hori esanda eta erantzuteko betarik eman gabe, arrebak bakarrik utzi zuen Unax, betiko legez hankaz gora zegoen logelatxoan. Gizona behearen gainetik jantzi batzuk jaso, txabusina erantzi, eta ohean etzan zen. Neska biak buruan zituela, Ida itzultzeko irrikaz zegoen. Eta etorriko zen...

## VI

Inguru beltz hartan soina ostentzen saiatu zen. Haren aurrean ispilu handi bat agertu zen, eta beraren biluztasuna islatzen zuen. Mila begi pare sumatzen zituen iluntasunetik berari begira, eta begi horien azpian irribarreak egongo zirelakoan zegoen. Antxintxika egiten saiatu zen, ezkerretara, baina hemen beste ispilu bat agertu zitzaion, bestea bezain distiratsua. Beste alderantz ahalagindu zen, baina alperrik, hortik ere beste ispilutzar bat zegoen. Atzerantz saiatu zen, eta emaitza bera. Nora jo ez zekiela, behea ere ispilu bihurtu zitzaion, eta honen ostean sabaia bera ere bai. Oihu egin nahi izan zuen, laguntza eske, baina ispiluek, elkarri hurbilduz zihoazela, ahotsa itzuli zioten.

Geldi lotu zen, ikaratuta. Orain gela handi baten zegoen, baina horma guztiak, sabaia eta behea, ispiluzkoak ziren, eta guztiek islatzen zuten gorputz biluzia. Zer egin jakin ez eta, jesarri egin zen, negarrez.

Bat-batean esku bik besoetatik heldu, beste bik orkatiletatik, eta etzanda ipini zuten, beheko ispiluari zeutsola. Gauza arraroa zen: inguru hark hotza izan behar zuela zirudien, baina berak berotasuna baino ez zuen sumatzen. Goian, sabaian, bere burua zekusan, eskuek geldiarazita. Une batez egoerarekin ahaztuta, gorputzari begiratu zion: han zeuden mutil askoren ametsetako kizkur gorritxoak, gasnazko azalari kolore emanez —izter zuriak elkartzerakoan sua piztu zela ematen zuen—; goruntzago, sabel erdian, ziltxoa, eta are goruntzago, bulartxoak, txiker goxoak,

euren buruetan ilearen kolore bereko tontortxoak zeudela, zeruari begira. Sama fina oso zeukan, besoak bezain zuriak, eta ezpainak, mihin puntaz bustiz gero, gorriak eta distiratsuak. Haren gorputza bi margoz bakarrik eginda zegoen, pentsatu zuen; bi margoz, begi ederrok muskertxoak ez balira.

Horretan ziharduela, Venus menditik hasita, garretan zegoela sentitu zuen, garrok bere gorputz barrenetik gero eta gorago zihazkiola. Ito larrian marru egin zuen, begiak itxita eta hortzak estuturik. Goiko ispiluari so egin eta izterren artetik kaio luma bat zetorkiola ikusi zuen. Baina ez zen gehiago hurbildu eta hor geratu zen, goiak bere altxorrik zainduena gora eta behera laztantzen ziola. Izerditan hasi zen, izterrok astindu nahian; baina ezin. Geldi geldirik, jarki ezinik...

Lehertu barik gehiago ezin jasango zuela uste zuenean, luma desagertu zen. Hasperen egin zuen, blai eginda zegoela. Dena bukatutzat emanez, altxatzen saiatu zen, baina eskuek hor jarraitzen zuten. Orduan ohartu zen haiek ez zirela han zeuden esku bakarrak. Eskuz inguratuta zegoen, eta hurbilduz zihozzen. Zentabaezinak ziren, eta soinari heltzen, laztantzen eta igurzten hasi zitzaizkion. Kili-kili egiten zioten. Eta haien artean emakumezko aurpegi bat ikustea lortu zuen. Oso polita zen, eta hura ere biluzik zegoen, aurrean, irribarre maltzurra erakusten zuela. Ile luzea eta beltzarana zuen, eta eskua luzatzen zion. Eskua hartzen ahalegindu zen, eta ukitzear egon zen, baina oso gaitza zen hainbeste eskuren artean emakumearena ezagutzea.

Azkenik altxatu egin zen, eskuak artean bere inguruan laztanka eduki arren. Orduan Unax ikusi zuen, urruntzen eta urruntzen. Dei egin zion, baina hark entzun ez. Arineketan hasi zen, eta orduan bai, orduan atzean utzi zituen esku guztiak. Ispiluak ere desagertuak ziren, eta dena lehen bezain ilun zegoen. Geratzen zen gauza bakarra beraren irakaslea zen, gero eta urrinago.

Biluzik egon arren, haren atzetik joan zen, hura atzeman nahian. Hura zuen laguntzaile bakarra, eta handik irteten lagundu beharko zion lehenbailehen. Oihu egin zion ostera ere, eta

oraingoan entzun egin zion, antza, gizona atzera bihurtu zen eta. Hor zeukan, bere zain, baina ia-ia ukitu ere egin zezakeenean, behea ireki eta jausten hasi zen.

—Aaaaa! —bihotza ahoan zuela esnatu zen, arnasestuka—. Bukatu da, bukatu da —ziotson bere buruari, artean baretu barik. Orduan burura eraman zuen eskua—. Hau burukomina... Baina non nago?

Logela guztiz ezezaguna zuen. Aurrean zeukan ispilu handiari begiratu zion lehenbizi. Bere burua ikusi zuen, ilea guztiz korapilatuta, gau osoan borrokan ibili balitz lez; aurpegia zurbil eta betazpitsu; besoek dardarka eusten zioten... Ez, ez zeukan itxura onik. Zekusan gauza polit bakarra, azpikogona ezezagun hura zen... Eskerrak —pentsatu zuen— azkenean jantzita aurkitzen zuena bere gorputza!

Izarak blai eginda zeuzkan, azpikogona bezala. Itsatsita zegoela zirudien. Ohetik irteten saiatu zenean, urdailak aurreko eguneko parranda gogorarazi zion. Gainera, zintzurrean edariaren kutsu nazkagarria nabaritu zuen.

—Uf, kalimotxo garbia naz... Ez dot atzera inoiz be edango. Bestetan be itzelak harrapatu dodaz, baina atzokoak ikusgarria izan behar eban, non nagoan be ez dakidala... Zer egin dot bart?

Armairuaren atea laguntzaz zutitu zen eta ozta-ozta leihoraino iritsi ere bai. Kontu handiz pertsiana altxatu, astiro, argiak begietan min ez egiteko, eta logela aztertzen hasi zen. Txukuna eta polita zen, hormak lorezko paper dotore batez estalita, mahai txiker bat bere argitxoaz eta iratzargailu batekin, haritzezko apaintze-mahaia (haren ganean zegoen berak ikusi zuen ispilua)...

Horretan ziharduela, kolpe batzuk entzun zituen gelako atean. Azkenean jakingo zuen non zegoen.

—Aurrera —izan zen bere erantzun motela, ahotsa indarrekin batera galduta zeukan eta. Atea ireki eta Unax sartu zen, eskuan baso bete tomate-ur zekarkiola.

—Egun on. Zaratak entzun ditut eta hau ekartea pentsau dot; urdaila oihuka eukiko dozu, eta honek mesede egingo deutsu

—azpikogona, izerdia zela-ta garden zuena, bularrari zeutsola ikusi zuenean, atean lotu zen, zalantzatan.

—Sartu, sartu. Ez dakizu ze poza demostan zu ikusteak... Azkenean badakit non nagoan eta zer gertatu zan —eta ohean jesarri zen buruari eutsiz—. Zer da hori?

—Tomate-ura..., oso ona da urdaila garbitzeko —eta haren ondoan jesarri zen honek edaten zuen bitartean. Hustu eta edalontzia itzuli zion, ezpainen alboetan bibote gorritxoak zituela—. Oso ondo... Txabusina ekarriko deusut, holan hoztu egingo zara bestela —aldendu aurretik neskak eskuturretik heldu zion.

—Esaistazu, atzo tontakeria asko egin neban? —begiak ilunduta zeuzkan.

—Ez zendun astirik izan, lo gelditu zinan... —eta gero ahotsa jaitsiz:—. Egon lasai, dana dago ondo.

—Eskerrak..., batzutan burua galtzen dot eta...

—Ez zenduan galdu, baina badaezpada zu neure etxera ekar-tea erabagi neban, besteak mozkortuegi egozan eta.

Dutxa hartu ondoren, txabusinaz agertu zen sukaldera, eskuekin buruari eusten. Baina sartu eta batera, buruko mina ustekabeak eta lotsak gaintituta geratu zen. Beraren aurpegiak txabusinaren kolore gorria hartu zuen, Unaxek neska baten laguntasunean gosaltzen zuela ikusi zuenean. Emakumea gurina hartzeko zutitu zenean, azpiko gona gardenak eperdia doi-doi estaltzen ziola ikusita, txabusina estutu zuen, dena ondo ostentzeko, lehen, ohi bezala, axolagabeki erdi zabalik baitzeraman. Ez zeukan zereginik emakume zardai haren ondoan; bera haur hutsa zen eta haur bezala ikusiko zuen irakasleak, esaten zuen bere baitarako. Baina buruko kristal guztiak puskatu zituena ez zen izan emakumea ikustea, ezpada bera agurtzeko itzuli zenean haren aurpegia ezagutzea: hura bera zen ametsetan berari agertutako emakumea, eskua luzatzen ziona, hain zuzen ere!

—Zer dozu, neska? —galde egin zion Idak, harridura aurpe-  
gian islatuta ikusterakoan.

—Z... zu... zu nire ametsetan ikusi zaitut...

—Zer dinozu?

—B... bai, ametsetan zure arpegia agertu jat. Zelan izan leite-  
ke aurretik zu inoiz ikusi barik eukita?

—Lasai, ez naz mamua. Ikusi be egin ninduzun bart, jantzita  
daukozum azpikogonea jantzi neutsunean. Bai, begiak zabaldu  
zenduzan eta ulertzeko gai izan ez nintzan zer edo zer esaten hasi  
zinan... Lasai, zengozan egoeran normalena ezer ez gogoratzea da.

Ainhize lotsaz are gorrituago lotu zen. Benetako umemoko  
sentitzen zen, helduen aurrean barregarri geratu zena. Eskerrak  
Unax laguntzera etorri zitzaiona.

—Ida, ez izan holakoa, neskea lotsatzen habil —esan zion  
doinu goxo eta leun batez—. Tira, jesarri hamen eta hartu zer edo  
zer. Zer gurago dozu, kafea ala cola-caoa?

—Ez, ez dot ezer hartuko —erantzun zuen, eskua sabelean  
ipiniz. Unaxek zutituaz batera hitz egin zion, esne beroa hartzen  
zuen bitartean.

—Ez dot ezetzik onartzen, baraurik lotu ezkerro gehiago kos-  
tako jatzu osatzea. Beraz, zeuk erabagi, kafea ala cola-caoa.

—Itxi gura dauana egiten —Idak, ogi errean gurina zabaltzen  
zuela.

—Hi hago lasai... Ainhi, jesarri hamen eta itxi neuri zure  
ardurea hartzen —sukaldeko mahaia txikia zen, eta neba-arrebak  
aurrez aurre jarrita zeudenez, Ainhize bien artean geratu zen,  
lekuz kanpo sentitzen zela—. Zer izango da azkenean?

—Ba, cola-caoa gurago.

—Cola-caoa bero bat andereñoarentzako —eta katiluan esne  
beroa bota eta koilaraz eragin ostean, usain gozoko edaria ipini  
zion aurrean—. Mailukiaren mermeladea, gustatzen jatzu?

—Ez, ez, honegaz nahikoa da —eta esku batatz, uzteko adie-  
razi zion.

—Benetan?

—Itxi egiok... Eulimandoak baino astunagoa da batzutan —ostera ere Idak. Ainhizek lotsati samar begiratu zion emakume-ari, eta irribarre ezkutu batez eskerrak eman zizkion.

—A, ahaztuta nengoan, ez deusuet alkarren barri emon. Bar-  
katu... Hau Ida da, nire arreba bakarra, eta hau Ainhize, zalantza  
barik nire ikaslerik politena.

—Bai —esan zuen Idak—, nik bart euki dot ezagutzeko erea.

Ainhize lotsak gorritu zuen irakaslearen hitz ederrak entzute-  
an, baina benetan bihotza taupadaka utzi ziona, Ida arreba baino  
ez zuela jakitea izan zen.

—Hau nebea beti lez elezuri hutsa.

—Ez izan jeloskorra, hi nire arrebarik politena haz eta —eta  
barreari eman zion.

—Barkaiozu nire nebeari, baina apur bat leloa da... Mmmm,  
baina arrazoia be badauko: oso ederra zara, izan be. Gainera  
alborno hori oso ondo joako zure ulearen koloreari.

Bai, Ainhize ere ohartu zen: Idaren mugimendu bakoitzari,  
hitz bakoitza ebakitzeko zuen erari, haren ezpain gorri eta betile  
luzez inguraturiko begiei, gorputzaren atal garrantzitsu bakoitza  
erdi agerian uzten zuen jantziari eta axolagabeki gurutzatzen  
zituen haitzurdinezko zango luzeei, sentsualtasuna zerien. Honek  
egiten zuen gauza bakoitzak besteengan zuen eragina ondo neur-  
tuta zeukan. Bera haren ondoan hasiberria baino ez zen; eskerrak  
Unaxen arreba izanik, lehiarako beharrik edukiko ez zuena...

—Parkatu orduan, bart ohea kendu badeutsut... Eta eskerrik  
asko zure azpikogonea ixteagaitik —esan zion Ainhizek Idari,  
biak lehengo logela berean zeudela.

—Ez da ezer izan, Unaxen ondoan be goxo lo egiten da, bera-  
ren ohea txikerragoa izan arren... Tira ba, ez dozu jantzi behar,  
ala? Ez zara lotsa izango ni hemen egoteagaitik, ezta? Biok gara  
emakumeak, eta gainera bart neuk erantzi zindudazan —esan  
zion Idak, azpikogona aulki baten uzten zuela. Ainhizek, lotsa



apur batez, txabusina askatu eta ohe gainean ipini zuen—. Oraindino be buruko mina? —Ainhizek baietz buruaz—. Zatoz, etzan hemen ahoz behera, lepoan igurtzi batzuk egingo deutsudaz eta. Badakizu, ni masajista izan naz, eta badakit zer egin zu larrosa baten usaintsua ixteko.

Ainhize, hipnotizaturik balego bezala, ohean etzan zen eta begiak itxi. Ida, bien bitartean, kaxoiak irekitzen eta ixten hasi zen, zerbaiten bila. Neskatoa, zergatik ez zekiela, gero eta lasaia-go sentitzen zen, gela osoa kutsatzen zuen lurrinak mozkortuta.

—Hamen dago bila nenbilen olioia... —eta hau entzun ostean, Ainhizek Idaren izterrek bere albo bietan sumatu zituen, hau beraren ipurdi gainean eseri zelarik bizkarrean igurtziak hobeto egiteko—. Gustura?

—Bai, ez deuste inoiz hain masaje goxorik egin —hurrengo minutuak isilean eman zituzten biek, Idaren eskuak, eztiro, nes-karen soinean zebiltzan bitartean—. Badakizu? Gaur esnatzera-koan, azpikogona horregaz jantzita nengoala... —ez zekien esan behar zuenentz, baina aitormenatarako prest sentitu zen— Unaxek jantzi eustala uste izan dot... Eskerrak zu izan zarana, osterantzean...

—Nire nebeak? kar, kar, kar... Ez, beragatik izan balitz, oraindino kaleko jantziaz zengokez... Gustatzen jatzu?

—Zer? —ez zegoen erantzun beharrik, Ainhizek ondo ulertu baitzuen itaunaren esanahia.

—Zer ez, nor: Unax —neskatxa mutu lotu zen, masailetan bero izugarria nabaritzen zuela.

—Ze... zergaitik dinozu hori? —Idaren igurtziak are gozoago-ak egin ziren, laztan bilakatu arte.

—Badakit besteen begietan irakurten... Guzurra dinot, ala?

—Zelakoa da? —izan zen isilune baten ostean erantzun legez esan zuena.

—Mmmm..., orduan egia da... Ba, zorionekoa zarala esan beharko dot; oker ez banago, berak be zugaitik zer edo zer senti-tzen dauela uste dot—Ainhize osterera ere mutu. Dena zihoan Idak

nahi zuen bezala, eta orain hurrengo urratsa zelan eman hausnartzen zegoen—. Ez da harritzekoa, zu hain neska polita izanda... Emon bueltea —pentsamenduak zurrumbilo baten zeuzkala, Ainhize ahoz gora jarri zen, eta Ida sabel gainean eserita.

—Zer edo zer esan deutsu? —hain harrapakin erraza zen, non Idak sarean jausitako euli bat jateko prest zegoen mamarroa bezala ikusten baitzuen bere burua.

—Esan, esan, holan zuzenean ez, baina lerro artean irakurten jakin ezker... Sarritan hasten da, euki dauan klasearen gainean berbetan, eta zugaitik ezer esan orduko, aurpegia zeharo aldatzen jako... Ez dakit zelan esan, barruan zer edo zer biztu jakola dirudi.

—Benetan? —Idak begi musker dirdaitsuak zekuskien bere ile xerlo beltzen artean. Ez, ez zuen aingeru aurpegi haren errukirik izango. Bere nebak patxadaz har zezakeen, baina berak bere atzaparretan lehenbailehen jaus zedin nahi zuen, biak elkarrekin berriro dibertitzeko.

—Seguru. Berarentzako ikasle berezi zarala, horretan zalantzarik ez, hori berak be onartu dau eta, baina nire ustez zugaz maitemintzen hasita dago. Berak ez dau gura zuri ezer jazo dakizun, eta gainera berak erantzi ez bazinduzan, lotsa handia deusulako izan da —Ainhize dardaraka zegoen.

—Zelan izan leike? Ni gazteegia, ia umea naz berarentzako.

Ida, neskatilaren gorputza nebak jakin barik eskuartearen zeukala, hain beroturik zegoen, non honen sabela hezetzen hasia baitzen.

—Horregatixek ez deuto bere buruari autortu gura. Gainera, zu beraren ikasle izateak ondino gehitu egiten dau beraren larritasuna, irakasle eta ikasleen arteko hartuemonak debekatuta dagoz eta.

—Eta zer egin neike nik? —neska ia malkotan zegoen.

—Aukera bi dagoz: bere albotik guztiz aldendu eta beragaz ahaztu, edo ostein, eta nik neuk, zu zein jatorra zaran ikusita gurago neuke, inori be ezer esan ez eta ikastetxetik urten arte, ixilean eroan.

Neskak, gehiago eutsi ezinda, negarrari eman zion. Idak belar-  
rira ezpainak hurbildu eta baxu-baxu hitz egin zion:

— Unaxeri ez esan inoiz nik esan deutsudana, bale?

—Nor da? —ez zekien durdurioa kabletik zetorren, ala bere  
buru barruan ote zegoen.

—Karmeke hor dago?

—Nor zara? —zalantza egin zuen esan behar zuenentz. Ez  
zekien besteek egindakoa, eta Karmeke ez bazegoen, zer asmatu-  
ko zuen honen ama lasai uzteko? Azkenean indarrak bildu eta  
ahotsa harrotu zuen:

—Ainhi, Ainhize.

—A, egunon, zer, zer edo zer itxi dau ahaztuta zure etxean,  
ala? Ez zan harritzekoa izango, zelan etorri dan ikusita. Zer egin  
zenduen ba! Gixajea, etorri eta batera bere gelan zarratu da.  
Errukia emon deust beraren aurpegiak —gauzak ez doaz hain  
txarto, pentsatu zuen, emakumearen berba jarioan galduta—.  
Bueno, paretako esango deusat, ea espabiletan dan.

Zoriona makala ez zuen holako ama bat izatea; jatorra zen,  
edo berarena baino jatorragoa behintzat... Agian ez jatorragoa,  
baina bai tratu beroagokoa. Haizeak gortinak astintzen zituen,  
Ainhizek haizea edo leiho aurrean bueltaka eta bueltaka jostatzen  
zebilen euli taldearen eragina ote zen erabaki ezin zuela. Bere  
logelako moketan etzanda, esku bata telefonoan eta besteaz ilea  
kiribiltzen zebilela, sartzen ziren eguzki-izpiei begietan jo zezaten  
uzten zien. Gaueko euri jasaren ostean, eguzkiak urtaro horretan  
erakuts dezakeen indar gutzia zerabilen, eta ez zen makala, kan-  
poan benetan giro gozoa zegoen eta. Baina Ainhizek ezin jakin  
zezakeen ezer gaueko euriaz; bai, ostera, eguneko eguraldi zora-  
garri horrezaz. Eta zerk egiten zuen egun hura hain berezi? Eta  
aldi berean, zerk ez zion egun horrezaz zeharo gozatzen uzten?  
Baina gauza bera zela erabakitzeke aukera eduki baino lehen,  
telefonoaren beste aldean zerbait entzuten hasi zen, eta irrikan  
zegoen gertatutako gutzia kontatzeko...

—Ainhize, zeu zara, ezta? —ahotsaren moteltasunak dena ahaztarazi zion. Premia larrian sentitu zuen bere laguna.

—Karmele, ni ez izutu mesedez. Hilobitik berba egiten dozula dirudi.

—Ez da ezer, ostea. Zelan atzo maisuagaz? —baina ilusio barik eginiko galdera ematen zuen, eta Ainhizek hegalak moztu zizkion bere pozaldiari.

—Ez dago ezer barririk. Eta zu, lotu al zinan mutilakaz? Zelan Patxigaz? —hobe galdetu izan ez balu, Karmele Magdalena bezala negarrez hasi zen eta—. Karmele, konta, zer gertatu da?

Kostatu zitzaion, baina azkenean baretu egin zen, eta arnasa sakon hartuz, berbetan hasi zen:

—Egin dogu —Ainhize mutu—. Ez dot esango bortxatu egin nabarik, baina sekulako atxurragaz nengoan lez eta zugaz guztiz arduratuta, ahulduta ikusi nau, ohera eroan, ta nik ez deusatz ezelako trabarik ipini. Bueno, hasiera baten bai, baina geratu ez dan ezkerero...

—Eta zelan? —esatearekin batera, galdera guztiz inozoa zela jabetu zen, baina eginda zegoen.

—Eskerrak mozkortuta nengoana eta ia-ia gogoratzen ez nazana, ostantzean ez neukean jasango... Izugarria izan da, inoiz ez dot hain txarto igaro. Min egin eustan, erditik apurtuko nintzala uste neban, eta birrikak lehertu arte oihu egin dot —berriro negarrari eutsi, etenaldi bat, eta aurrera jarraitu zuen—. Baina bera ez da gelditzen izan, zoraturako animalia bat zala emoten eban... —Ainhizek ere ahoan zeukan bihotza, irten nahirik. Malkoak albo bietara jausten zitzaizkion, hauek egindako bide biak idor sentitzen zituela, eguzkiaren eraginez. Beraren begiak gortinen hegalaldiei zerraizkien, bularra alkandora erretzeko zorian zuela—..., gero ez dakit zer gertatu jakon, baina mozkorragaz egoalako edo, ez deutso ezerk urten eta neuri bota deust errua. Aurpegian jo nau behin edo birritan, eta azkenean lortu dau, edo hori esan dau behintzat, eta lo egin gura ebala-eta hortik zehar bialdu nau... Zer egingo dot orain? Gainera ez dau txapelik erabili eta izarra lotu neinteke...

—Kabroi alaena... Gizona banintz, berari ordaina emoteko... Zu egon lasai, igaro da eta ez dot uste haurdun lotuko zaranik. Gustura egiten ez danean aukera gitxi egoten ei da hori jazoteko —esan zuen, laguna lasaitu asmoz, kalean entzuten diren milaka zentzugabekerietako bat zatekeela pentsatu arren.

—Nik uste neban hori egitea politagoa zala, baina ez dot gehiago inoiz be egingo...

—Ez esan holakorik, hurrengoan zeugaz arduratuko dan mutil jator bat aurkituko dozu...

Baina berak zer zekien, bada? Eta beti hain mingarria bazen? Ez, Patxi astakirten hutsa zen, eta berak bazekien hori aspalditik. Unax, ordea, hain zen goxoa eta adeitsua...

Unax pentsakor zegoen. Gela guztiak, haren logela, sukaldea eta pasabideko komuna izan ezik, itxita zeuden berriro, isilik eta ilun, txukun eta garbi. Berak, ordea, beti hankaz gora egoten zen zulo hartan ziharduen. Arreba entzuten zuen, txistuka, harrikoa egiten. Zertarako etorri ote zen gau hartan? Eta zergatik ote zebilen beraren platerak garbitzen? Idak egun hartako ortzia bezain garbi zeukan beti bere etxea, hori bazekien, baina hura beraren etxea zen, eta ez harena. Gainera, oso gutxitan hartzen zuen halako jarrera. Zergatik ote zegoen horren pozik arreba? Eta zer egin ote zuen txarto berak? Zergatik ibili ote ziren ihesi Ainhizeren begiak, agur esateko orduan? Izan zitekeen horretan Idak zerikusia izatea, baina gakoa hura bazen, ez zion itxaron beharko arin jakiteari.

Bai, susmagarria zen Idaren poza. Buelta erdi bat ohean, eta leihotik patioak ikusten uzten zion zeru zatiari begira jarri zen. Gau horretarako Idak ondo pasatzeko zerbait eskatu zion, eta berak asmatu beharko zuen zer egin arrebaren nahiak, inoiz asezten ez zirenak, betetzeko.

Dena dela, hori, arreba berak ezagutzen zuen bezala ezagutu-ta, errazagoa zen Ainhizeri zegokion plana nondik nora eraman

jakitea baino. Berak ez zuen inoiz etsi, eta gura zuen guztia, Etsai-  
ren laguntza behar bazuen ere, lortzen zuen. Ez zegoen mugarik  
ez oztopo handiegirik...

Gaueko bederatzi eta erdiak. Ortzia egunez bezain garbi, lai-  
no izpirik ez, ilargia izarrek zainduta... Ez zen leku txarra txagain  
hura. Ez katuentzat, ez ameslarientzat, ezta bera bezalako zelata-  
rientzat ere. Ondo aukeratuak zituen tokia, ordua eta pertsona...,  
baita jantzia ere. Mozorro egokia zeritzon. Agian ez zen aurrekoa  
bezain ikusgarria, baina bai dotorea eta polita. Alde batetik,  
penagarria zen holako egun baten janztea, telebista kamerarik ez  
zegoela, baina tira...

Ez zeukan erlojurik, baina inoiz ere ez zuen haren beharrik  
izan. Jarrera aldatu zuen, ezkerraldea arintzeko. Ez zeukan pre-  
sarik; egia esan, ez zekien gau horretan gertatzekoa gerta zedin  
nahi zuenentz; burua beste arazo batekin nahastuta eta nagi  
sumatzen zuen. Gainera, aspaldian burura ez zetorkion galderak  
agerraldia egin zuen: zein zen beraren benetako nortasuna, nor  
zen eta nor izan gura zuen? Burua astindu zuen, horrekin batera  
mamu guztiek desagertu beharko balute legez, baina lortu zuen  
gauza bakarra, agerian behintzat, zeramatzan txima latz-luzeak  
airean ipintzea izan zen. Gainera, mugimendu horrekin mamurik  
handiena gelditu zitzaion begi aurrean: izar hura, beste guztien  
artean gizaki bi baino bereizteko gai ez zirena. Kanpotik erdeinua  
erakusten zion bitartean, barrutik erreguka zebilkion. Gorrotoa  
harrotu zitzaion bihotzean, hartutako erabakian inoiz baino tin-  
koago. Zalantza guztiak adrenalina eta oinarrizko senetan urtu  
ziren, ekintzarako deia egin ondoren.

Une hartan bertan, harrapakina kotxe handi eta dotore baten  
aldapan behera agertu zen, etxerako bidean. Bizkartzainak burdin  
hesia zabalduko zion, txoferrak garajera eramane zezan... Horixe  
zen itxaroten zuen aukera. Jauzi handi batez bizkartzainaren atze-  
an paratu, hura konorterik gabe utzi, kotxearen atea zabaldu, eta

txoferra zakarki atera ostean, honen lekua hartu zuen. Lau arnasaldi baino bizkorrago.

—Ez mobidu eta ez egin trabarik, zeure kalterako izan leiteke eta.

Hau esanda, gurpilen aztarna asfaltoan utzirik, handik desagertu zen, beste bizkartzainen garrasiak atzean gelditzen zirela. Barruko gizonak hasieran ez zuen tutik ere esan, hain zegoen harrituta eta izuturik! Gurdia gidatzen zuen gizon arraroaren menpe ikusi zuen bere burua. Zelan saiaturiko zen ezertan, ia orduko berrehun kilometroan joanik? Berrogeita hamar urteko enpresa-gizonak elkarrizketara jo zuen, hortik zerbait atera nahian.

—Alperrik zabilz... —ez zen erantzunik egon—. Ertzaintzak harrapatuko zaitu, hori badakizu, ezta?

—Tira, tira. Ez joat jakin euskalduna genduanik hain banku handiko zuzendaria... Orain ixilik, edo haserretu egingo nok.

—Ez neban uste honaino ausartuko zinakeenik. Beraz, indartsu dabil organizazinoa, ezta?

—Ez nahastu gauzak, ni ez nok ETAKoa, hire berbak horrantz badoaz. Eta gehiago jakin gura badok, lehengo egunean hire etxeko jagolei ikeratxoa emon neutsen berbera nok —gizon nagusia mutu geratu zen. Azkenean hitz batzuk jalkitzen joan ziren:

—Estraterrestrea zara... —gidariak irribarre egin zuen.

—Hartu gurago doan lez.

—Baina lehengo egunean berdea zinan, oso bestelakoa zara orain —esan zuen, apur bat nasaiago. Besteak ez zion erantzun.

BBVako Bilboko zuzendaria aurrean zeukan gizonari begira lotu zen. Handia eta indartsua zirudien; ile latza ipurdiaren azpitik iristen zitzaiola, jantzi bitxia besaburuko handiekin (borrokarako jantzia zirudien), hankak biluzik, bota gogor eta arraroak... Bai, nonbait ikusia zuen... Eta jakina, bankuan hartutako bideoan ere hori aipatua zuten: Dragoi Bolako beste pertsonaia bat zen. Nor, ordea?

—Parkatu..., gaurko itxurea be marrazki bizidunetakoa da, ezta?

—Bai, Raditzena. Argi jagok guztion umeek jarraitu dabela...

—Raditz?

—Bai, motel, Son Gokuren anaiea, gaiztoa zana. Kaka!!

Eta oihuarekin batera, bat-batean gelditu zen, lerratze eta guzti, errepide erdian geratu zen. Enpresa-gizonak buruaz kristal blindatuaren aurka jo arren, aurrean zeukaten pertsonaia ikusteko aukera eduki zuen, eta berehala ezagutu zuen: Son Goku bera zen, kimono gorriaz!

Besteak, Raditzez mozorrotuta zegoenak, kotxetik irten zuen, haserre bizian. Begietatik txinpartak zerizkiola zegoen.

—Bueno, hemen gagozak ostera be. Ez deustak inoiz bakerik emongo, ezta?

—Ez, egon seguru. Holakoak egiten diharduan bitartean, inoiz be ez.

—Orduan, berton bukatu beharko kontu honegaz. Gertu, ez nok-eta samurra izango —enpresa-gizona artean kotxe barruan zegoen, harrituta. Une hartantxe argi urdinak ikusten hasi ziren, ertzainak zetozen.

—Hobe beste leku batera aldatzen bagaituk, ez joat gura inork kalterik jaso dagian.

—Hik gurago donan lez. Parkatu, “doan” esan gura neban —zuzendu zuen, begi keinu bat eginik.

Ertzainak heldu aurretik, ziztu bizian desagertu ziren, haizeak eramanez. Banku-gizona jaioberria sentitu zen, txiripaz salbatua. Ez zekien zelan azalduko zien ertzainei, ezta emazte eta umei ere, baina horrek garrantzi gutxi zuen.

Gaua baketsu bihurtu zen berriro kale, hiri, mendietan, gizon baketsuak euren amets ulertezinetan uzteko.



## VII

Haizea epeltzen zihoan Bilboko egurats astunean. Mendiak kimuz kimu berdetzen ziren, udalehenaren zantzuak. Udalehen euritsua gainera, aldakorra; uda estalian, negua oroimenean; zehaztugabeko aroaren zehaztasun eza zeruaren bihotzean.

Eta Bilbon bertan zehaztugabeko presentzia. Egunkari guztietan —ez bakarrik Euskal Herrikoetan, baita mundu osokoetan ere— gai bera agertzen zen aspalditxotik: lurbestekoak. Nortzuk ziren? Zeintzuk ziren euren xedeak? Gizadia arriskuan? Zergatik Euskadin, eta zelan zekiten euskaraz? Zergatik ekintza guztiak BBVAren inguruan...?

Itaun asko eta erantzun gutxi. NASAk ere ez zeukan erantzunik. Espaziontziak AEBetara eraman zituzten, baina ezer aurkitu ez. Zirudienez, barrutik hutsik zeuden, altzairuzko oskol hutsak ziren. Hortaz, zelan egiten zuten hegan? Zer indar motaz aireratzten ziren tramankuluok? Gai bakarra zeukaten, altzairu arrunta, ez ezelako aleaziorik, ez pantailarik, ez giderrik... Adituek azalpen bat baino ez zuten eriden: buru-ahalmenez gidatuak ziren...

Ikastetxean zebiltzan haizeak oso bestelakoak ziren. Bigarren hiruhilekoa joana zen, emaitza ezberdinekin, eta beste bat baino ez zen gelditzen bukaerarako; bat eta irakasle batzuek egingo zituzten errekupeazioak. Eta gutxi gorabehera horrezaz mintzo ziren irakasleak, akeita hartzen ziharduten bitartean.

—Benetan, Unax, guztiz eskertzen deutsut egin dozuna. Badakit zuretzako beste behar bat baino ez dala izango, eta astia kenduko deutsula, baina Mundakan egongo ez banintz, neuk egingo neuke —Unax, aurrean zuen kikarari begira entzuten zegoen.

—Ez dago arazorik. Zuk idazteko behar dozu daukazun astia; nik, ostera, ez daukat ia beste zereginik. Horretarako dagoz lagunak. Zuretzako zer garrantzitsua dan ikusita, pozik egingo dot.

—Gizajeak, negarrez, ekainean dana ez gainditzekotan amak ikastolatik atera eta beharrean hasiarazoko eutsala esan eustanean... Badakit ikasle guztiak bardin hartu behar dirala, baina hori ez zan bidezkoa, hain argia dan neskeari ikasketak ukatzea. Gureak badakigu gaindituko dauzala, baina Matematika eta Zientziak... Arantxa-eta ez dagoz laguntzeko prest, ez. Ulertzen dot kopetaraino dagozala, eta...

Unaxek irribarrea ostendu zuen.

—Lasai, ez dogu euren laguntzaren beharrik izango. Ainhize, zuk dinozun lez, azkarra da, falta dauena ikasketei ardura gehiago ipintea baino ez da. Orain burua apur bat galduta dauka, badakizu, adinaren kontuak dira. Behintzat, nigaz egunean-egunean zer edo zer ikasten badau, biak atarako dauz arazo barik. Gainera, beitu, bai ama eta bai bera ados egon dira. Amak ideia zoragarria eretxi deutso, eta neskatileari, ba... Badakizu, nagiak dira gazteak, eta kostau jakon baietza emotea. Baina, zeu bai bazarala irakasle ona! Zuk eskatua zala jakin orduko, onartu egin dau. Gainera baekian holan amak bake apur bat emongo eutsana.

—Eta amagaz izan zenduan alkarrizketea, zelan? —hitz egiten zuen bitartean, Bibiot begiko leiharrekin zeuzkan arazoak konpontzen saiatzen zen.

—Bueno, ondo. Nik ez daukat, antza, zure odol beroa, eta ondo erabili neban. Egia esan, kristoren emakumea da. Eta alarguna dala dinozu? Buf...

Bibiotek irribarre maltzur batez begiratu zion.

—Misoginoa zinala pentsatzen hasita nengoan, baina bada-kust ni ez nazala urtenda dabilen bakarra —Unaxek gorputza aulki barruan atzera botata, zigarroa atera zuen, eta Bibioti eskai-ni—. Ez, ez dot erreten, badakizu.

—Ni misoginoa, e? Ba ez, neuk be gogoko dot sexua, eta ez dakizu zein gogoko, gainera. Eta zuri erakusteko, egun baten, gura badozu, Arantxa gonbidatuko dot afaltzera —Bibiot ezustean harrapatu zuen esandakoak, eta begiak altxatuz harrituta begiratu zion.

—Ez, niri ez deustazu esan beharrik; egitekotan, gustetan jatzulako izan daitela... Dana dala, ez legoke txarto; seguru nago berak ez leukela zalantzarik eukiko onartzeko.

—Zer dinozu? —Unaxek astiro bota zuen kea, hurrengo atxikia eman aurretik.

—Gustetan zatxakozala, horixe dinot, eta bikote polita egin-go zeunkie, gainera. Eta nik ia-ia, ha zuretzako izan be ez zala uste nebala...

—Batzutan arrebei jaramon egin behar jake, eta nirea aspal-ditik neska gehiago ezagutu behar dodala esan eta esan jabilt. Hortik sortu jatan ideia.

Zergatik susmatzen ote zuen Bibiotek, bere lagun berriak buruan beti ideia ilumen bat zerabilela? Haren begiek zintzoak ziruditen zuzen begiratzen zuenean, eta oso sendoa ematen zuen bere erabakietan. Beharbada sendotasunak berak bihurtzen zuen susmagarri haren begietan, eta gauza arraroa zen, Bibiot oso fida-korra izan ohi zen eta. Azkenean irakasle gazteak, gaitzikortasun horregatik bere buruarekin txarto sentitzen zela, pentsamentuok burutik uxatu zituen.

—Ez kexatu, Ainhi, Bibiotegaz Bikain eta Oso Ondo atara dozuz, Soinketan be Bikain, Ingelesean Ondo... Ez da hain txarto egon. Eta Unaxena be gainditu dozu... —bukatu zuen Karmelek, keinu maltzurra eginenez eta ahotsa eztatuz.

—Bale, ni ados nago, baina esan hori nire amari. Berarentzako penko bat nahikoa litzake, beraz, pentsaizu bi. Gainera berak ez daki Kultura Klasikoa txiripaz gainditu dodana. Gaur gitxienez, urten barik lotuko naz, zigortuta, bihar be bai, eta datorren astean ikusi beharko. Baina hori ez da gehien ardura deustana; latzena etorteko dagoana da, ekain santua, ea zelango udea jator-tan ganera —Karmelek, bere lagunaren arazoaren jakitun zegoe-nez, erruki handiz begiratu zion.

—Zergaitik ez dozuz bakarkako klaseak hartzen? Holan akaso Matematika eta Zientziak pasatzea lortuko zeunke. Ni akademia puta horretara noa eta tira... hori behintzat ez deusut gomen-datuko, emaitzak ikusita.

—Paso —ez, bere lagunik onenari ere ez zion Unaxena kon-tatuko. Horrek urduriegi zeukan inori esateko. Egunero-egunero elkarrekin egongo zirela, bakar-bakarrik, kontatuko balu, bere burua salatuko luke, eta artean Idaren hitzak zituen gomutan. Hobe zen isil egon eta horretaz gehiegi ez pentsatzea. Gauzak, gertatuko baziren, berez gertatuko ziren. Azken denboraldian nahikoa izan zuen Karmeleri zuen ikara igarotzen laguntzare-kin.

Arratseko seiak inguru. Neba-arrebak astiro zebiltzan Bilbo-ko Zazpi Kaleetatik. Artekale gainezka zegoen ostiraleko ordu eguzkitsu haietan. Amak euren seme-alabekin, ikasle-jantziak harlauza zuri-gorrien gainetik. Denak erakusleihen aurrean gel-ditzen ziren, batzuk oinetako berrien bila, beste batzuk txamarrak ikusten, bat edo bat goiz etorriko zen udarako bainujantziak ero-si nahian; ez zieten udako beherapenei itxaron nahi. Handik las-terrera kale haiek gazte jendeak beteko zituen: lehenengo ordue-tan hamalau hamazazpi urte bitarteko neska-mutilak agertuko ziren; hamabietatik aurrera, gehienak ondo mozkortuta, nagusiei utziko zieten kantxa (nagusi hauek ere orokorrean nahiko gazte-ak izango baziren ere).

Baina artean goiz zen, eta Unaxek eta Idak erosketak egiten ziharduten presarik gabe. Kanpoan luzaroegi egon barik, jantzi-denda batera sartu ziren, Unaxek eskuak poltsikoetan zituela.

—Eskerrik asko laguntzearren. Aspaldi da hemetik alkarregaz ez genbilzala. Erropak aukeratzen laguntza handirik emon deustaan ez jakiat baina.

—Neuk be ez; jaramon handirik be ez deustana egiten eta. Zer egiten dona egunean zehar? —itaundu zion, eskuak poltsiko-etatik atera baga. Idak setazko gonatxo bat zeukan eskuetan, baina berriro utzi zuen bere lekuan.

—Ba, ezertan be ez, ez joat gauza apartekorik egiten. Eta hik, zelan daroaz eure arazoak? Noizko eukiko joagu etxean ikasten?

—Eukiko joat, esan gura dona, ezta? Hi ez haz hara agertuko, ezta otartekoak egiten be, aditu dona? Ba, argi jagona. Eta orain, itaundu deustanan horrezaz, beraren etxera joaten hasiko nazala esan behar deunat. Aurrerago, beraren ama neugaz bat baletor, *neure* etxera eroango jonat.

—Uf, ze gogaikarria hazan, hemengo jantzien gogaikarria. Goazen beste batera, ea zer edo zer topetan dodan —kaletik haize sua-bea zebilen, jende artean lekutxoa eriden nahian—. Eta zer dinostak beste mari purtziltxuaz, irakasle horrezaz? Ortura eroango dok?

—Emon astia, oraindino goiz dona.

—Goiz, goiz, hiretzako beti dok eta izango dok goiz. Badakik zein dan bion arteko aldea? Hiri, heuk astiro prestatutako bazkariak patxadaz jatea gustetan jak; nik, ostera, *self-servicera* joan eta gura dodana hartzea gurago joat. Dana dala, erabiliko dok andereñoa, ezta? —Unaxek irribarrea azaldu zuen.

—Jakina, Ainhizek gainditzea segurtatu behar jonat.

—Itxiko deustak apur bat dastatu daidan, ezta, nebatxu maitea? —gizonak buruaz baietz egin zion—. Eta hire lagun horrek, Bibiotek, ez jok trabarik ipiniko, eztok?

—Ez, berak ez jeustana eragotziko, ez najona ondo ezagutzen, eta gainera, uste genduan lez, asko gustau jakona ideia hori. Eder-to jabilna dana.

—Bueno, beste gauza bat be komentau behar deuat. Gogoratu horrezaz ganera beste kontu bat be badaroagula, e? Dana hain ondo antolatu ostein ea alde batera ixten ez doan. Beti gabilzak denborapasa barriak asmau gurean, bion artean ondo pasetako, eta ez joat gura orain neska haregaitik dana pikutara bota dagia-an. Beraz, espabilau eta pentsau zer edo zer neuk be parte hartu daidan. Urte gehiegi izan dozak orain biguntzen hasteko.

—Ez nona bigundu; urteak bihotza lasaitzera jaroena. Pazientzia irabazi dodala, besterik ez dona. Guk ez jaukoguna presarik, besteak legez. Gogoratu noz edo noz Dalai Lamagaz.

—Gitxienez hori esakeran begietara berba egingo baheust, sinistuko neuan...

Unaxek, Erriberatik zebiltzala, urei begiratu zien: bai, beraren bihotza bezain bare zeuden. Eta hori komeni zitzaion beraren arrebari ere, arima baretzea eta gauzak berez aurrera joan zitezen uztea. Baina beste pentsamendu batek artegatu zuen, urei begira zegoela: ez ote zeuden euren bihotzak urak bezain zikin...? Burua astindu zuen, eskuak poltsikoetara itzuliaz batera. Halako gogoe-tak ez al zituen aspaldi hil? Hortik oso asago, oso goi, barre garratza sumatu zuen, lepoan hartutako mailukadaren gogorra.

Bibiot bere etxeko idazgelan zegoen, pantailaren aurrean, eskuak ileari helduta zeuzkala, ezeroso, artega, ezinegona zuela buruan. Aldaketa airean zegoen, bazekien, baina ez zuen berarekin zerikusirik. Ez zekien zertan zetzan sentitzen zuen hura, eta zerbait idaztera behartuta aurkitu zen, bere burua ideia kontrajarrien zurrunbiloan murgilduta. Azkenean, burutik igarotzen zitzaion guztia harrapatzeko prest, tekla bati sakatu zion, eta hola hasi zen, izenburutik:

TEORIEN AURKAKO TEORIA edo  
HIPOKRISIARIK HAUNDIENA HIPOKRITARIK HAUN-  
DIENAREN ESKUTIK edo

ZELAN SARTU ZIRIA NORBERE BURUARI edo  
INOIZ KALERATUKO EZ DEN TESTU BATEKIN DENBO-  
RA ALPERRIK GALTZEKO MODUA edo  
ZE AXOLA NIRI BESTEEN ARAZOEK edo  
ZERGATIK OTE NAIZ HAIN TXEPELA edo  
ZENBAT ARAZO EDUKIKO DUDAN IZENBURUA AUKE-  
RATZEKO ORDUAN edo  
PANTAILA TXORO BATEN AURREAN ARRATSALDEA  
EMATEKO METODOA edo  
COGAITZEKO ERARIK PATETIKOENA

Gero, guztiz gogaituta, izenburua alde batera utzi eta benetan idazten hasi beharko zuela erabaki zuen, eta hala egin ere:

“Hemen nago, aspaldiko partez, hipokrisiarik handiena burutzeko prest. Hauxe da neure buruari mila bider sekula ez nuela egingo agindu niona, hots, teoriari aurkako teoria idaztea. Eta zeintzuk dira ez idazteko arrazoiak? Alde batetik, teoria guztiak hutsalak dira, eta hori berori esatera natorrela, zertarako eraikiko dut, bada, haien aurkako beste teoria bat? Bestetik teoriarik, idatzi dituzten idazleentzako baino ez dute balio, beraz hau niretzako baino ez da; orduan, neuretzat bakarrik izanik, eta berau idatzi ahal izateko aurretik badazagut, zertarako idatziko dut, zertarako galduko dut neure denbora hain produktibitate gutxikoa den zeregin baten? (Agian, nire denborarekin egiteko daukadan gauza bakarra, galtzea da).

Kontua da hemen nagoela. Eta agian hemen egoteko arrazoia neugandik kanpo bilatu behar dut, kanpotik sortutako kezketan. Bitxia da sentitzen dudana, egunen baten nire sinesmen guztiei aurre egin beharko diedala, alegia. Aurten ezagutu dudana pertsona bat da ezinegon hau sortu didana, edo haren zalantzazko jokabidea, agian. Eta horregatik akaso, unea heltzen denerako nire ideien lekuko ukaezina salatari edukitzeko, tentelkeria hauek idatzita uzteko larritasuna etorri zait.

Eta zein da hipokrisia honen gakoa? Bada, subjektibotasuna, nire irakurle maitea (ni neu, alegia). Gizakiak subjektiboak gara, ezin irten dugu geugandik; beraz zertarako bilatu ditu gizakiak egia handiak, teoria biribilak, moral tinkoak, arau betirakoak, e.a.? Zergatik sinistu dute euren pentsamenduak betiko geldituko zirela?

Eta kontua zera da: pentsamenduak gelditu egin direla, baina pentsamendu hutsak, testuinguru guztietatik at. Eta jokaera guztietatik at, baztertuta, ideia bakoitzak subjektibotasun batetik irten duelako, eta subjektibotasun horretara mugatzen delako.

Baina, zer axola niri besteek idazten, pentsatzen edo egiten dutena? Eta zer axola, orduan, besteei, nik pentsatzen dudana? Ezer ere ez. Moral unibertetsala ez da inoiz hil, ezta hilko ere, inoiz izan ere egin ez delako, eta hori hala uste dudala, zer dela-ta iragazten dut beti ikusten dudan guztia neure kontzientziaren galbahetik? Bakoitzak bereari ekin diezaiola, bere erosotasuna aurki dezan, bere ideiek bere kontzientziarekin lasai bizitzeko balio dieten heinean; eta testu hau ordenadore honetan, kondenaturik, gera dadin, inoiz argia ez ikusteko, hasitako hipokrisia honekin jarraitzea ez du merezi eta.

Beharbada hastea bai, merezi izan du. Hola, gauzak bertan utziz gero, ez ditut berriro hartuko, eta honetan geldituko dira, inongo garrantzirik ez eraginik eduki gabe. Betiko erbesteratuta (edo, kasu honetan, betiko disketeratuta), ez diezaioten inori kalterik egin.”

Atzera mugitu zuen burua, idatzitakoa osorik irakurtzeko. Eskuak garondoan ipini, eta arnasa sakon hartu zuen.

—Bueno, hipokrisia osotzeko, Unaxeri erakutsiko deusat, barrutik barre egin dagian. Behintzat, holan zeozertarako balio izango dau. Azken finean bera euki dot gogoan idazterakoan —horretan zegoela, idatzia disketean gordetzen, amaren ahotsak



afaltzen joateko deitu zion—. Bai, ama, oraintxe noa, kanpai intelektualak joteari itxi orduko.

—Zer?

—Ezer be ez, ama, banatortzu.

Klik! Hizkiak pantailatik desagertu ziren, argi urdinxkarekin batera, eta inprimagailuaren hotsa bakarrik geratu zen gelan, hitzak papereratzten zirela.



## VIII

Segundoak tantaka-tantaka jausten ziren asteleheneko goiz hartan. Eta ez zion ardura hola jarrai zezaten klase hark ziraucino. Erietan ile gorri batzuk korapilatuta zituela, buruak ez zuen lanik egiten irakaslearen hitzen esanahia ulertzeko; nahikoa zuen hain beharrezko bilakatua zitzaion ahots hura entzutea; begiek, amets, esku, ezpain, begi, buruaren mugimenduei, errealitateari lotu gabe jarraitzea. Gelan bera eta irakaslea izan ezik beste inor ez zegoela iruditzen zitzaion, eta arkitektura eklektikoaren gaineko azalpenek berarentzat mezu isilak ostentzen zituzten. Muga eta zehaztasunik gabeko gune argi usaintsu baten ikusten zuen bere burua, arbela, mahaiak, aulkiak, hormak, ikaskideak eta, guztiz ezabatuta; aurrean, berarentzako bakarrik mintzatzen ziharduela, Unax.

Baina Ainhizerentzat eguneko ordurik garrantzitsuena etortzeko zegoen; oraingoa lipar goxo bat, iritsiko zitzaionaren aurretiko bat baino ez zen. Eta bazekien behin une hau amaituz gero, ordu bukaezinei aurre egin beharko ziela; eta horrek izutzen zuen. Ihesbiderik gabe bere lagunekin topo egin beharko zuen—orain Karmele zuen alboan, eta agian hitz egiten arituko zitzaion, ez zekien, baina ez zion axola—, eta derrigorrez bere betiko marraua jantzi beharko zuen, gogorrena eta axolagabearena egin... Guxtien nahi zuena, hain zuzen. Sentimendu guztiak, zain guztiak, bihotza bera ere, azal-azalean zituen, eta egun horretan ezin giltzaperatu izango zituen bere buruaren ziega txiki ilun baten. Hori oinazerik latzena izango litzateke.

Bai, zalantza barik Bibioten klasea, jatordua, jolastordua, Arantxarena eta “Potrozorri”rena —Kimikako irakaslearena, alegia— denbora luzeegia zen; baina eutsiko zion. Saria arratsaldean eta bere etxean bertan edukiko zuen, eta horregatik oinaze guztiak jasateko prest zegoen.

Egun, haren jantziak oso apalak ziren. Unaxek bakarrik begiratzea nahi zuen, ezohikoa eta bere baitan apur bat irrazionala zela aitortu arren. Gauzarik onena, erloju-orratzak arin ibiltzea zen, ezer aipagarririk gertatu barik.

Baina beste aldetik, lagunik minenari mutilarekin lotzen zuten soka guztiak eteten lagundu zionez gero, jaramon egin beharko zion, ezingo zuen bakarrik utzi. Patxirekin gertatutakoa gertatu eta gero, harengandik aldenduta zeuden. Talde osoarengandik, beraz, Ainara eta Urkorekin batzuetan egon arren.

Zergatik gertatu ote zen hori guztia, beste kontu batek arretoa osoa eskatzen zion une berean?

Gainera, ez zuen errudun sentitu nahi. Baina arrastian gertatuko zena (eta berari gerta zedin gustatuko litzaiokeena) Karmeleri ezkutatzek, ondoeza eta artegatasuna sortzen zion. Ez zion axola, egun batzuetako gauza zen, bere buruan gauzak apur bat ordenatu artean. Gero den-dena kontatuko zion eta lagunak, bere benetako lagun bakarrak, ulertuko zuen, beti egiten zuen bezala. Agian ondo letorkioke hurrengo orduak Karmeleri lotuago igarotzea, beste kontuarekin berez-berez ahazteko. Bai, lagunak ondoan behar zuen, eta berak ere bai hura; Karmelek haurdun ez zegoela jakin zuen artean egon ziren bezala, guztiz bat eginda. Isiltzea ez zen betiko izango, beraz ez zuen zertaz arduratu... Baina, berak Unaxekin dezepzioa hartzen bazuen? Orduan inoiz baino gertuago beharko zuen Karmele, eta ordurako esaten ez bazion, une larrietarako baino ez zuela behar pentsatuko zuen hark agian; eta hori ez zen hola, hola ez zela sinistu beharko zuen, esatekotan ibili zela sinistu beharko zuen, bere buruan dena garbi ikusi artean zain egon zela, besterik ez...

Uf! Burua arinegi eta urrunegi zihoan. Hori guztia ez zen gertatuko. Dena ondo joango zen, pare bat egun barru esango zion eta biek elkarrekin biziko zituzten etortzeko zeuden garaiak...

Patioan umeak alde batetik bestera zebiltzan, taldeka, talde bakoitza baloi banaren atzean zihoala, txilioka. Batzuen aurpegiak alai, besteenak ilun —partiduak galtzera ohituta ez zeuden eta—, mutil askok eta neska gutxik ziharduten futboleant. Beste batzuk harrapaketan jolasten ziren, noiz edo noiz futbolariekin topo egiten zutela, eta orduan haien oihiak entzun behar zituztela.

Mutil nagusi batek, handik igaro eta baloia zetorkion bezala ostikoaz jo eta ia teilaturaino bota zuen. Umeak ez ziren ezer esatera ausartu, pilota zelan aldentzen zen zekusaten bitartean. Han zehar patioa jagoten zebiltzan irakasleek ez zuten ezer ikusi, euren berriketan murgilduta. Neskatila izan zen hauengana hurbildu eta, txamarratik tira eginez, gertatutakoa Bibioti kontatu ziona.

—Mutil, erdu hona —hamahiru urteko mutikoa, burumakur eta astiro zuzendu zen—. Hanka bizkorrak daukazuz, ezta? Ba, orain erabili eizuz baloi horren atzetik tximistea baino arinago joan eta honeei ekarteko, aditu dozu?

Mutilak buruaz baietz egin, eta arineketan alde egin zuen esana betetzera.

—Belarrietatik tiratutea be merezi eban horrek —gaineratu zuen Unaxek, begirada eskuaz eusten zion paperera zuzendu baino lehen. Begiak testu erdi inguruan mugitzen ziren. Bibiot beste leku batera begiratzen saiatzen zen, zeren inork bere idatziren bat bera aurrean zela irakurtzen zuenean, nahiko urduri jartzen zen. Gainera, zozokeria hura erakusteari denbora galtzea zeritzon.

Azkenean Unaxek burua orri gaineratik altxatu eta berari begiratu zion. Bibiot, hark zer esango zain zegoen.

—Zurea larria da, txo —Bibiot mutu zegoen, eta Unaxek tentsioari apur bat eutsi ostean, irribarre egin zuen—. Txantxetan

izan da, txo, oso interesgarria da. Laburra, berba oso gitxitan esanda, baina ikusten dot nora jo gura dozun. Agian gehiegi pentsetan dozu, edo zeure gogoetetan galtzen zara, ez dakit, baina gustau jat.

—Bai?

—Benetan. Uste dot zeuk uste baino zuzenago zabilzala.

—Benetan?

—Baietz ba! Eta gainera poztu egiten nau zuk hau idatzi izan-nak. Sen handikoa zara, dinozun guztian, gainera. Egunen baten, seguru nago, papertxo hau gogorarazo beharko deutsut; eta orduan gurago izango dozu sekula erakutsi ez bazeunst. Ze orduan ez dozu ezer garbi ikusiko eta dana birplanteatzen hasiko zara —Bibiotek ezer be ulertu barik begiratzen zion.

—Zer esan gura dozu?

—Ezebeiz. Egunen baten aurkitu dozun egiari aurre egin beharko deutsazu, eta agian ez jatzu gustauko, ze zuk badaukazu zeure morala, eta tinkoa gainera, hemen aitatzen dozun legez. Baina nik gogorarazoko deutsut zuk moral unibertsalari zer deritxazun.

Bibiot zurtuta geratu zen, burua nahastuta, Unaxek bere baitan irribarre egiten zuen bitartean.

“I was lying on the floor just looking at Jim  
Had his finger on the trigger of a 99 twin...”

Bai, holaxe itxarongo diot, dutxatik irten berri, txabusina erdi irekita. Eta esango diot berdin dela, holaxe hartuko dudala kla-sea... Hola ikusiko dut haren aurpegia, haren izerdia, zelan urduritzen den eta zelan saiatzten den handik edo hemendik zer edo zer ikusten. Baina ez diot hain erraz ipiniko. Sufritu beharko du ezer eskuratu aurretik...

“I know what you’re thinking — Sex kick,  
I know what you’re wanting — Sex kick...”

Ez, kanta hau da hain bero ipintzen nauena. Transvision Vamp; Wendy James, beti bezain lizuna. Ondo dakit Wendy Jamesek zer egingo lukeen holango egoera baten. Baina ni ez naiz Wendy James... Agian txartzat hartuko du hola agertzen banatzaio. Ez. Onena ahalik eta apalen eta diskretuen janztea izango da. Osterantzean neska erraza naizela pentsatuko du; zikina, agian. Ez dakit... Zergatik nago hain urduri, zergatik naiz hain txolina? Ez dauka zertan ezer gertatu. Berak klasea emango dit; klasea ematera dator. Erdi biluzik aurkitzen banau, agian larritu egingo da eta ez dit klaserik gehiago emango. Jantzi egingo naiz. Gainera, berak, ni biluzik ikusteko aukera eduki zuenean, bere arrebari esan zion ni erantzeko. Ziurrenik gizon fina da. Bere etxera eroan ninduenean zelan jokatu zuen ikuste hutsak, nahiko garbi adierazten du...

“Screw you in, to being my babe,  
Into being my babe, into being my babe...”

Uf, bai artega nagoela! Zelan galduko nuke aukera hau? Haren arrebak esan zidan: gustatzen natzaio. Beraz, zergatik itxaron beharko genuke gehiago? Zertarako? Gaur bertan has liteke garai berria. Nire esku dago, aise eskura nezake. Nagoen legez agertuko banintzaio, bere hesi guztiak urtuko nizkioke, ez lioke utsiko. Agian bertan egingo genuke. Edo hobeto, amaren ohean...

“Tough to be my man, I’m looking for something  
Extra fine, yeah, something good for my mind...”

Ezinezkoa da. Hola ikusiz gero, atzera egingo du. Urruntzea besterik ez dut lortuko. Ez da nire ondo-ondoan, nik nahi dudana legez, egotera ausartuko. Ezeroso sentituko da, eta gure harremana, hotz ez, izotz bihurtuko da. Huts galanta litzateke hori egitea. Ondo jantzita banago, apal baina erakargarri, gustura sentituko da nire ondoan. Elkarren gorputzen beroa sentitzeko beste.

“You don’t have to go crazy screwy-eyed  
Just to get a reaction, you’re losing your grip...”

Halere, bestaldetik, hola agertuta ere, estu-estu jesartzeko kemena badauka, ziur besarkatuko nauena. Pentsatuko du zein erraz daukan nire gorputzeraino ailegatzea. Eskuak txabusinaren irekiduratik laban egin, eta berea izango du. Tentazioa handiegia da inork eutsi ahal izateko. Gainera, mahaitik hain paraje ohea egonik, honaino ni ekartzea hosto bat eroatea legez izango da beraren beso indartsuentzat. Gero ez da munduan indarririk izango, behin hasitakoa etengo duenik.

“Hey Jim where you going with that look in your eyes?  
I was lying on the floor just lookin at Jim”.

Bere azken hitzek izutu egin zuten: “Gero ez da munduan indarririk izango, hasitakoa ezelan be eteteko”. Egunak, azkenean, txorien kantek gogoan uzten dutena utzi zion Ainhizeri: badakizu entzun duzula, baina ezinezkoa duzu haren notak buruan errepikatzea. Orain ohean zegoen etzanda, eskuak buru azpian zirela, txabusina zabalik eta begiak sabaian galduta. Diskoa amaitu zenean, ez zuen zirkinik ere egin hura aldatu edo kentzeko, eta azken kantaren izena baino ez zitzaion buruan gelditu: “Sex Kick”. Leioha zabalik zegoela, haizea bere azaletik ibiltari sentitzen zuen, aske; eta ez zuen momentuz besterik nahi. Nahiago zuen horrela jarraitzea, azken hausnarketak uxaturik, lemari, itsasontziak harkaitzen kontra jo aurre-aurretxoan bakarrik heltzeko.

Txirrinak bortizki jo zuen bihotzean. Jauzi batez altxatu, eta arineketan abiatzekotan ibili zen. Baina, burua lanean hasita zuen eta, bultzada geldotu zuen. Ez, hobe zuen irrikan zegoenik ez erakustea. Gona leundu (zeukan gonarik luzeena jantzi zuen, belau-



netaraino doi-doi iristen zitzaiona, zuria puntu urdinekin), kami-seta gainean zeraman koratiloaren maukei teink egin, eta txirrina bigarrenez entzundakoan, egongelako atera joan eta zabaldu zuen. Hantxe zegoen, Ainhizek espero zuen bezala, Unax irakaslea, irribarrez. Ainhizek ere irribarre egin eta aurrera igarotzeko keinua egin zion, bere ohiko eta azkenaldi hartan ahuldutako babes-jantziaren ostetik. Ez, ez zion aditzera emango zenbat poztan zen eta zein urduri zegoen. Hura irakaslea zen, eta normalena da ikasleak gehiegi ez alaitzea, arrastia irakasle baten begipean ikasten eman behar badute. Beraz, horrelako kasu baten erakutsi behar den begirunezko irribarrea bakarrik agertu zion. Apurka-apurka, Unaxekin lar kostatzen bazitzaion ere, gizonezkoekin erabili ohi zuen jarrera eta harrera berdintsua eskaintzen hasi zen. Eta hola egin behar, berea izango bazuen.

—Bueno, neska, zeri ekingo deusagu gaur? —esan, eta zorroa, Ainhizek erakutsi zion idazmahaian utzi zuen. Neskatilak aulki bi hartu zituen, eta bata irakasleari luzatu zion eta bestean bera jesarri. Gero, elkarren ondoan paratu zirenean, axolagabearen eginez begiratu zion erantzuteko.

—Zeuk jakingo dozu, zeu zara irakaslea eta.

—Bai, baina agian zer edo zer gurago izango dozu; behintzat lehenengo egunari hasiera emoteko.

—Beitu, niri ez jat gustetan ikasi behar dodana, beraz bardin deust hau zein bestea. Gainera, nik uste neban programaren bat prestauta eukiko zenduala —eta azken hitzotan ñabardura ezkurtua sartu zuen, ahotsa apur bat gozotuz. Ez zuen berenberegi egin, eta agian ohartu ere ez zen egin, subkontzientea lanean zebilela.

—Tira ba, zuri bardin badeutsu, Matematikei helduko deustegu, ea zelan hartzen dozuzan.

Ainhizek hitzak entzun eta orriak pasatzen ikusi bai, baina ez zeukan hartan bere arreta. Egia esan, pentsatzen hasi zenerako, ezertan ere ez zeukan arreta. Ia-ia ahaztuta zeukan non eta zertan zegoen arrasti hartan. Begiak aurreko leihoko gortinetan ipinita, belarria urrunean zebilen “Pulp Fiction”en soinu-bandari eman-

da, sudurra gelako lurrinean igeri zuela, mihia...; a, mihia eta azala ziren irudizko munduan zeudenak, batak bestearen mihia dastatzeko aukerarekin ametsetan, ondo-ondoan zeukan gorputzaren ukimena bereganatu nahian. Bai, azalak oihuka eskatzen zuen beste azalari atxikitzea. Baina, zer zen joko hura? Zertan zetzan? Zergatik sentitzen zuen alboko gorputzak bere azalaren desio uhinak xurgatu besterik ez zituela egiten, ordainetan ezer igorri barik? Ahulduta sentitu zen, gizonaren magnetismo antzeko zerbaitek ezinbestean erakarrita; eta hala ere gizon beraren beste indar batek zeharo geldiarazita.

Unaxek klasea amaitutzat eman zuenean, gaueko bederatzia aldera, nahi zuena harrapatu ezinik ibilita sentitzen zen Ainhize. Egun osoan iristea gura izan zuena joana zen, hegaz, sorginkeriaz desagertuta, norbaitek ebatsi balio bezala. Unax atean agurtu zuenean, gauza bi bakarrik zekizkien: berriro ere bere ondoan behar zuela, drogamenpeketasun antzeko zerbaitek erakaririk, eta gau hartan kostatuko zitzaiola loak hartzea, burua inoiz baino nahastuago eta galduago zuela, adimen ordenatuaz hustuta bezala.

Baina begiak itxiko ziren eta gogoia gau min bihurtuko.

## IX

Osteguneko aurreneko nagia lehenengo klase biek in bat era joan zen; neska-mutilak patiora zuzendu zirenean, Bibliotek astia zeukan irakasle-gelara osteratxo bat egin eta kideekin apur baten solastatzeko. Baina barruan gertatzen zena ikusi orduko, hitz egi-teko gogoa alde batera utzi zuen, zerbait pozgarriagoa gertatzen ari zela igarrita. Gelako txoko baten Arantxak (bera sartu zenez gero pixka bat gorrituta) eta Unaxek berbetan ziharduten, eta estreinako aldiz beste irakaslea maitasun (edo sexu) kontuetan murgilduta ikusteko parada zuen. Txarto zeritzon, baina jakin-minak bultzatuta, belarriak zorrotzu zituen ea zertan zebiltzan ohartzeko. Baina euren autua ez zen hasi berria, eta azken baiez-tapenak baino ez zituen aditu.

—Bederatzietan jasoko zaitut, orduan —Arantxak begiak jaitsez erantzun zuen—. Seguru nago ondo pasauko dogula —gaineratu zuen, neskaren belarria ia-ia ezpainez laztantzen zuela.

—Une horri itxoitzen egongo naiz —Arantxaren hitzei hotzikar-rak lagundu zien, gizonaren hurkotasuna nabarituta.

Gelatik irteterakoan, Unaxek keinu batez agurtu zuen Bibliot, ate ondotik zebilena, bere garaipenaren adierazle. Gazteak irribar-rez erantzun zion, hizketa mutua biek ulertzen zutela.

Baina Unaxen poza Bibliotek uste zuena baino mamitsuagoa zen. Honek ondotxo zekien, andereñoa bere eskuetan zeukala. Bere azalak nabari zituen bestearen uhinak, eta horren bidez eza-gutu zituen haren berotasuna eta hezetasuna. Beraren hitzak ondo

neurtuak izan ziren lortu nahi zuena lortzeko; doinua eta ahoske-  
ra ere eztiak; eta aukeratutako unea ere onena. Bazekien Bibliotek,  
une estuan harrapatuz gero hezatuko zela neska, bai kanpotik bai  
barrutik. Honek beraren alde jokatu zuen psikologikoki, berak  
espero zuen bezala.

Momentuz ez zuen besterik egin behar; hurrengo egunean  
hasiko zen benetako jokoa.

Koadernoan eginda zeuden buruketei begira zegoen. Benetan  
ezohikoa zen klasera etxeko lanak prestatuta ekartzea, eta gaine-  
ra ondo zeudela jakinda, baina Ainhizek ez zekien pozik egon  
behar zuenentz. Alde batetik, positiboa eskuratu berri zuen, bai-  
na bestetik, buruketa haiek Unaxekin momentuz hori baino ez  
zuela egiten adierazten zioten. Behintzat, hurrengo egunean Kar-  
meleri dena kontatuko zion, Alde Zaharretik ibil zitezenean  
—zeren oraingoan bai, oraingoan amak, ikasten zebilela eta, irte-  
ten utziko zion—, gertatzen zena gertatu. Horrela kontzientzia  
arinduko zuen eta burua argitu ere bai, agian, azken aldiko  
zurrumbilao apur bat baretzeko. Hausnarketa hauetan ziharduela  
ohartu zen Karmelek zerbait ziotsola.

—Barkatu, ez nengoan entzuten, zer esan deustazu?

—Atzo Patxik deitu eustan... Eta ez beitu orain atzera. Ez dot  
gura zerenganean gabilzan jakin daian —Ainhizek zeharka Patxi  
eurei begira zegoela ikusi zuen.

—Zer esan eutsun txarri horrek?

—Ba..., zera... Esan eustan seguru dagoala nik oraindino mait-  
te dodala eta txorakeria bat dala bananduta jarraitzea. Gainera  
parkatzeko eskatu eustan hasieratik; esan eban gau haretan urru-  
negi joan bazan, ardaoagaitik izan zala, eta hori.

—Zuk ez deustazu biderik emon, ezta?

—Ez, e...

—Aizu, Ainhize, ez dozu klasea amaitutzat emongo ariketa  
bat egin dozulako, ezta? Eta gauza bera dinotsat zure lagunari be.

—Barkatu, andereño, zalantza bat argitzen genbilzan —erantzun zion Ainhizek Arantzari, bere betiko doinu lotsagabeaz. Artean irudi bat zeukan klasekideen begi aurrean, eta denak begira zituela, irudi horri eutsi behar zion.

—Ba, edozein zalantza argitzeko neu nago.

—Bueno, gero kontauko deusut guztia, inportantea da eta —xuxurlatu zion Karmelek.

Ainhizek atzera begiratu zuenean Patxiren begiak igarri zituen, berari herraz josita. Baina ez zion ezelako beldurrik ematen.

—Harroputzori! —Karmelek ez zion entzun, baina susmatu zuen zertaz ari zen, beraz ez zion galdetu ere egin.

—Badakizu, ikusi zaituedanean neure erromantizismo guztia biztu jat.

—Zure erromantizismoa? —bai, bazekien Unaxek, emandako urratsarekin, puntu asko irabazita zeuzkala Bibioten begietan.

—Bai. Ni oso maitabera izan naz... Neure neska-laguna eza-gutu artean, jakina. Eta gaur zuek ikusi zaituedazanean antxinako kontuak etorri jatuz gogora —Bibiot aulkian mugitu zen, apur bat urduri.

—Neskaren bategaz gogoratzen hasi zara, ala? —gaur lagunari entzuteko prest sentitzen zen, beraz eroso jarri zen bere lekuan, koilarari kafean eraginez.

—Ba bai, egia esan, bai. Badakizu, ni askotan egon naz maiteminduta; bueno, ez, benetan maiteminduta birritan bakarrik uste dot, egia esan; oso txarto pasatzen neban batek ezetz esaten eustanean edo mozten ebanean. Baina azkenean topau neban neurea —edo hori uste dot, behintzat—, eta ez jat ezegaitik bere damutzen, azkenean benetan jagotana daukadalako, urrun euki arren be. Besteak gomutan dodaz, bai, baina guztiz asago, oso lainotuta.

—Guztiak?

—Mmm, ez. Horretara ninoan. Azkenean gertatu behar ebana gertatu zan, eta gainera egokiena, baina badago oraindino beste bat, gogoan gorde dodana. Orain ez neuke neurea beragaitik aldutuko, pentsau bere ez, baina beragaitik sentidu nebana hor lotu zan eta gaur be oraindino hortxe dago, beste modu baten baina.

—Zer gertatu zan, ba?

—Bueno, oso arin gertatu zan dana, oso egun gitxi egon ginan alkarregaz, baina guztiz maitemindu nintzan. Ni baino zazpi urte gazteagoa zan eta gainera valentziarra. Halanda ze, egun bi alkarren ondoan emon eta beraren herrira joan zan atzera.

—Eta horretan amaitu zan dana?

—Ez, gero alkarri idazten geuntsan. *Nobioak* ginan —hitz hauek esaterakoan irribarre malenkoniatsua agertu zuen—. Telefonoz deitzen neutsan astean-astean eta hara bost egun beragaz igaroten joateko bidaia prestatu be bai. Baina azkenean ez neban bidaiarik egin. Gauzak oso gaxak zirala eta, ixteko eskatu eustan. Zelan esango neutsan ezetz...

—Zergaitik ez? Maite bazendun...

—Eta zelan maite, gainera... Baina ezin neban hamazazpi urteko neska lotuta euki, hain urrinetik gainera. Ez joateko eskatu eustan, ez eban gura nik hainbeste diru, hotela, bidaia-eta gas-tatzea, bera ikusi gura neban baxotxean. Eta neuretzako be gogorregia zan jarraitzea, bera ikusterik ez baneukan. Alkar maite genduala itxi genduan, egoereak behartuta, eta beharbada horre-regaitik dirau maitasunak nire barnean, urrin baina hortik non edo nondik.

—Istorio tristea hori —Unax kafeari begira zegoen, malenkoniak bera ere harrapatuta.

—Bueno, bai, baina uste dot beragaitik sentitzen dodana eta oraingo neskeagaitik sentitzen dodana parekatu ezinak dirala. Maitatzeko era ezbardinak dirala esango neuke, bata oroimenean eta bestea momentu guztietan. Oraingoa, ostera, bederatzi urte gazteagoa eta ondino urrunagokoa; ez naz ni erraz aldatzen, antza, baina hemendik aurrera bidea errazago egon leike.

—Bihotz handia daukazu gero, hainbeste maitasun sartzeko gai bada. Nik baten bat maite izan dot, baina orain ez dakit zer sentitzeko gai nazan.

—Zeure kontuak kontauko deustazuz?

—Ez, hoba ez. Gurago dot beste zer edo zeren ganean jardutea; gauza gehiegi hasi jat burura etorten, eta ez dakit ona dan.

—Zeuk gura dozun moduan.

Berriro geldituko zen Bibiot bere barrukoaz hustuta, berriz betetzeko ordainik hartu barik. Baina ohitura bihurtzen hasia zen, eta horregatik, ez zion garrantzirik eman nahi izan. Egunen baten, agian, lagunaganaino heltzeko bidea aurkituko zuen, ahalbiderik bazen behintzat.

Neskatila biek bazekiten atsedena dietan pasabideetan egon ezin zena, eta horrexegatik lekua ezin hobeia zen lasai hitz egiteko. Irakasle bat handik igaroz gero, errieta egingo zien gehienez ere. Handik leihotik, beheko patioa zekusaten, ezer esan gabe. Karmelek kokotsa beso gurutzatuen gainean zeukan, hauek leiho barrutiari zeutsotelarik. Ainhize, urduritzen hasita zegoen eta, barrualderantz itzuli zen, lepoa kristalaren kontra ipiniz.

—Ez deustazu esan behar zer esan zeuntsan babo horrerri? —umeen jokia ageri zen leihotik harantz, baina Karmeleren begiek ez zioten ezeri eusten.

—Ainhi, zu nire lagunik onena zara, ezta?

—Hori da itauna, neska! Badakizu nazana. Ez jatzun burutik pasauko beragaz jarraitzea, ezta? —orain Ainhizek lagunari begiratu zion, honen begiradak galduta legez zirauela.

—Ez, jakina, baina gauza bat esan eustan eta badaezpada zeuri itaundu gura neutsun. Esango deustazu egia?

—Noiz ez, ba...? E, berbea emoten deustut!

Orduan Karmelek begietara so egin zion lagunari.

—Guk, Patxi eta biok esan gura dot, itxita gero ez zara beragaz ezertan saiatu, ezta?

Ainhizeren begiak zabal-zabalik geratu ziren, sinestu ere ezin zuela.

—Baina arren, nor uste dozu nazala... Berak esan deutsu hori? —Karmelek buruaz baietz adierazi zion—. Zelan izan lei holako sasikumea. Hori beragaz itzuli zaitezaz egin dau edo biak batera jodiduta ixteko. Baina nor uste dau dala pailazoorrek.

—Parkatu Ainhi, baina itaundu behar neutsun seguru egoteko.

Ainhizek besoetatik hartu zuen.

—Benetan burutik pasa jatzu, kapaz izango nintzala ni bera eskuratzeko, halan zu beragandik banatzeko?—Karmelek berriro buruaz ezetz erantzun zion, negarrari eusteko begiak ixten zituela—. Horrek zelan pentsau lei inor bere atzetik ibili leitekela, barea baino nazkagarriagoa da eta... Parkatu, Karmele, ahaztu egin jat beragaz ibili izan zarala.

—Lasai, egia baino ez dozu esan. Txarri ustela, harroputza eta kirtena baino ez da. Benetan kolpe zikina izan da emon dauana.

—Zelan esan leike ni bere atzetik ibili nazala? Baina bera zan adurra eriola beti niri begira ebilena... Parkatu ostera be, baina egia da, eta gainera zugaz ebilela behin baino gehiagotan saiatu izan da ni ortura eroaten, eta zuk hori jakin dozu.

—Bai, jakin dot, zeuk zinostan zeozer esaten eutsun bakotxean... Baina telefonoz inoiz ez besteko apala emoten eban, eta bigundu egin nintzan. Ni bai kaikua!

—Indarra baneuka, barrabilak kenduko neuskioz kabroi horri. Bueno, gitxienez berba egin dogu eta orain hobeto ezagutzen dogu ze urde putakume mota dan. Neuk be badaukat zeozer zuri kontetako, eta gogoia daukat gainera behingoz botateko... baina hau ez da momentu aproposa. Bihar Alde Zaharretik urten-go dogu, barruan daroadana atarako dot eta biok mozkortuko gara, bale? —Karmeleren malkoak lehortu zituen paper zapi batez eta besarkatu egin zuen—. Inor ez da gure artean sartuko, inor ere ez, berbea emoten deutsut.



Sirena-hotsak azken ordu biak hastera zihoazela adierazi zien. Laster umeek tropelka ikasgeletara igoko zuten, uholde zala-partatsu baten antzera. Eta gertatutakoarekin ia ahaztua zuen Ainhizek, handik ordu batzuetara Unax edukiko zuela etxean, beste aukera bat berarekin bakarrik geratzeko.

Erlojuaren orratzak segundo bakoitzarekin bihotzean zorrotz sartzen zitzaizkion neskatilari, erlojuan aurreratzen zuten tarte bakoitzak irakaslearen ondoan ezer gertatu barik igarotako unea adierazten zuelako. Ez zuen Fisika ikasi nahi, zerbait fisikoa baino. Alperrik, ordea, inoiz ezin jakinaraziko zion eta. Egun hartan, aste-ko azken aurrekoa zela eta, estrategia aldatu eta bere minigonarik txikiena jantzi bazuen ere, ez zuen Unaxengan ezelako aldaketarik igartzen. Euren hankak bata bestearen ondo-ondoan zeuden eta ia-ia gizonaren eskuak nahi gabe izterra laztandu zion, baina milimetro bategatik baino izan ez bazen ere, ez zuen itxarondako ukitua nabaritu. Gizon hura harrizkoa zen, edota haren arrebak gezurra esan zion eta bera ez zitzaion batere gustatzen. Gainera ezinezkoa zitzaion arreta jartzea, Karmelerekin hitz egindakoa artean gogoan zuelarik. Bere gorputzari eta aurrean gerizaz ulertezinezko forma iradokorrak margotzen zituen argiari zerien beroa desiozko sukar bilakatzen zen neskatxaren gona barruan. Eta bat-batean Unaxek eskutik heldu zionean, desioa ehun zuri bordatua hezetuz urtzen sentitu zuen. Ezustekoak oihuxka ere aterarazi zion.

—Lasai, neska, hain urrunetik zabilz, ala? Boligrafoa eskutik jausi ez jatzu ba!

Egia zen. Begiratu zuenean, irakasleak boligrafoa itzuli nahi zion eskura. Benetan burua urrunegi zeukan... Ez, hurbilegi agian. Baina horri esker bien azala elkartu egin zen, eta gizonarena ere beroa zen, samurra eta laztankorra. Esango zukeen irudimen hutsa ez zela, Unaxek eskua askatzeko presarik ez zuela eta heldu ez eze, laztana eman ziola. Baina begietara so eginda, betiko legez, bere zalantzei erantzunik ez zien aurkitu.

—Egia esan, honek total aspertzen nau —esan zuen Ainhizek, presiopetik irten nahian.

—Neu be bai. Gurago neuke beste zer edo zer egin ahal bagendu, baina gaur ama dogu etxean eta besterik ezean Fisikari ekin beharko.

Urdailean korapiloa, izterrak izerdiz-edo heze, berak ulertu zuena esan nahi ote zuen galdetzen zion bere buruari. Beste zer egitea gusta lekiok? Ez ote zen buruan zerabilena? Edo beraren irudimenak berriro ere urrunegi joan nahi ote zuen? Baina telefono-hotsa etorri zen hausnarketok etetera, ikaraldiak bihotza ia bertan gelditzen ziola. Beraren egitekoa hura baino ez balitz bezala, berehala isildu zen, eta handik segundo pare batera amaren ahotsa entzun zuten.

—Ainhi, hartu telefonoa, zuretzako da eta.

Nor ote zen? Hartzeko presarik ez zuela aitortu behar bere buruari, horretarako irakaslearen albotik mugitu egin beharko baitzuen. Baina honek, beraren buruan garden irakurtzen baleki bezala, eskua luzatu eta telefonoa hurbildu zion.

—Eutsi —segundo baten baino ez zen gelditu erreakzionatu gabe. Ondoren belarrira eramán eta botoiari sakatu zion.

—Nor da? —ezusteak ezuste, bestaldeko ahotsa entzun zue-nean mutu geratu zen; azkenean, aurpegia aldatuta zalantzazko umorea adierazten zuela, hitz egiten hasi zen—. Ez, ez nago mosqueatuta, baina ez dot adituten zertako deitu behar deustazun... Ba bai, okupauta nago. Zer uste dozu, ba; zuek barik ez dakigula ezer egiten, ala...? Bai, ulertzen dot, haren lagunik onena zara eta bere ondoan behar zaitu, bale, baina zer dauka horrek nigaz zer ikusi? E, Joxe, ea zer dinozun; zu eta nire artean ez da sekula ezertxo be egon; halanda ze, zu zeure lagunagaz eta ni neureagaz... Baina ez izan txotxoloa, guk ez daukagu horren kirtenkeriak jasan beharrik...

—Laztana, jarraitu geinke geureagaz, ala kaiku horrena amaitu artean itxaroten egon beharko dogu? —eta hau esanda batera Unaxek ozenki musukatu zuen Ainhize aho aldean.

—Ba... —Unaxi begira ez zekien zer gertatzen ari zen, eta beste aldeko ahotsak gainera ez zion honetan laguntzen—. Joxe, bakean itxiko nozu, ala...? Bai, mutil bategaz nago; zer uste zenuan, ba, zeuen premian gagozala? —eta Unaxen atzamarrak deia moztu zuen.

—Listo, horrek ez deitsu gehiago nekerik emongo —Ainhizek begietara so egin zion, zer egin behar zuen ez zekiela.

—Suposatzen dot eskerrak emon beharko deitsudazala.

—Bueno, holan hartu gura badozu... Egia esan, ez dot egin zu esturalditik atarateko bakarrik; gustura be egin dodala autortu behar deitsut.

Eta halako berezkotasunaz zioen! Zer egin behar zuen? Hase-ratuarena egin?, besarkatu eta musuka jan?, itxaron...? Baina irakaslea, musukatu zuen berezkotasun bera erabilita, liburura itzuli zen.

—Ea ba, ariketa hau egin behar dozu, ea potentziaren kontu hau asimilatu dozun.

Ainhizek bere burua, ziztu bizian hormaren kontra eztanda egin behar zuen lokomotorara bezala zekusan, Unaxen ahotsak bihotz iraulkorra kulunkatzen zion bitartean. Zeren aurrean amore eman behar? Buru arinagotuari ala bihotz nagia jarraitu? Berak ez zuen lehenengo urratsa eman behar. Baina lehenengo urratsa Unaxek emanda zeukan; orduan, honek hartutako bideari lotu beharko zitzaion? Horri itxarongo zion besteak? Irakaslearen ahotsak samurragoa eta eztiagoa zirudien gertatutakoa gertatuz geroztik. Gerta zitekeen, baita, Unax bera bere egintzarekin lotsatuta egotea ere. Hala izatekotan, erantzuna garbi ikusi artean ez zuen beste ahaleginik egingo. Burua nahastuegi zeukan bidea argitasunez ikusteko, baina ezin utzi euren artean sortutako giroa aldendu zedin.

—Autortu behar dot neuk be gustura hartu dodala zure laguntza —agian minutu gehiegi utzi zituen igarotzen eta Unaxek ez zuen jakingo zertaz ziharduen...

Bai, irakaslearen begiek zalantzarik gabe adierazten zuten ulertu zuela. Isiltasuna Ainhizeren urdailean korapilatu zen.

—Bueno, zer esan jakiten ez danean hoba da ezer ez esatea. Gaurkoz denbora agortu jaku eta ez da ona izaten denbora barik ezeri ekitea... Bihar egongo gara atzera eta jakingo dogu zer egin.

Irakaslea bere gauzak biltzen hasi zen. Ainhizek jesarrita zirauen, honen mugimenduei begira. Neskari barne borrokan iruditzen zitzaion gizona, erantzukizun eta nahiaren arteko borrokan.

—Gura badozu, ez da ezer ger...

—Bihar izango da hemen emongo dogun azkenengo klasea...

—Ainhizek bihotza gelditzen zitzaiola sentitu zuen—. Datorren astetik aurrera neure etxean emotea eskatuko deusatz zure amari, ondo baderitxazu.

Neskatilak Unax besarkatu nahi izan zuen, baina begietara begiratuta, elkar ulertzea sentitu zuen eta ezer ez egitea hobe zela pentsatu zuen.

—Orain, zu lotu hemetik mobidu barik, zure amagaz berba egiten dodan bitartean. Seguru nago konbentziduko dodala, zu agertzen ez bazara.

—Bihar arte, irakasle jauna.

Unaxek irribarre egin zuen. Pozik zegoen neskak bere maltzurkeria eta umorea berriro berreskuratu zituela ikusita. Benetan lore ederra eta lainoa zen. Lainoegia agian, bera bezalako gizon baten azpijokoari aurre egin ahal izateko.

Ainhize logelan hertsirik, etxe hartan gauza bakarra gelditzen zitzaion eguneko jokaldia amaitzeko. Gainera, zergatik ez zekiela, holako kontuetan beti aldeko abagunea izaten zuen. Urratsak, ia soinurik atera gabe, zurezko pasabidetik amaren logelaraino heldu ziren. Beraren belarri zorrotzak dutxaren hotsa aditu zuen, barruko bainugelatik. Logela barrutik atea itxi eta bainugelako atetik hots egin zion.

—Anderea, ni banoa.

—Agur, ba.

—Barkatu, baina joan baino lehen zugaz berba egin behar neban —barruan ur-hotsa isildu egin zen.

—Ezinbestekoa bada, itxaron apurtxu baten, dutxan nago eta.

—Bai, bertan itxarongo dot.

Barrua gortina uztaien soinua entzun zen, barratik mugitzen zirela. Emakumea zerbait kantatzen zebilela zirudien, distraiturik lehortzen balebil bezala. Apalean zerbait, ontziren bat edo orrazia izan zitekeena, uztearen zaratatxoak ere heldu ziren. Azkenean ate-kisketa ireki, eta han agertu zen, eskuoihal zuri batez bularretik izterretara estalirik. Emakumea izutu egin zen gizona aurre-aurrean topatu zuenean, logelatik kanpora egongo zelakoan irten zuenean.

—Zer egiten dozu hemen?

—Itxaron, besterik ez.

—Hori kanpoan egin lei. Biluzik urten banau, zer?

—Ikuskizun ederra zatekeen hori.

Ainhizeren amak goitik behera begiratu zion lotsagabe hari, honek alabarengan askotan ikusita zeukan irribarre bera ezpaintedan zuela.

—Ba, barruan zagozan ezkerro, esaidazu esan beharreko hori?

—Bueno, bardin da bihar izanda be, baina, zeuk esan dozun lez, hemen nagon ezkerro, hoba izango da bertan esatea —Unaxek andreak interesez aztertzen zuela igarri zuen—. Pentsau dot datorren astetik aurrera hoba litzakela zure alabeak nire etxean ikastea, ze, bueno, uste dot han biok gehiago kontzentratuko garala...

—Bai? Biok? Ainhize ez kontzentratzea normala da, baina zuk, zergaitik kontzentratu beharko zeunke hobeto zeure etxean hemen baino?

—Zera..., gurago neban itaun hori egin ez bazendu ze... Hemen, ez dakit, ez naz gaian guztiz sartzen.

—Zer dala-ta?

—Ondo da; treguarik emon behar ez badeustazu... —Unaxek haginak estutu zituen—. Zugaitik da. Zu inguruan eukita urduri sentitzen naz, beste gauza batzuk jabiltaz buruan eta...

—Zer egingo zeunke, ba?

Mugimendu azkar batez, Unaxek esku-oihala lurrera bota eta, esku bat gerrian eta bestea bularretan, bere gorputzaren kontra estutu eta ezpainetan musukatu zuen. Emakumeak, ezustea gainditu ostean, gainetik kendu eta muturrekoa eman zion.

—Lotsabakoori! Ospa lehenbailehen nire etxetik. Nor uste dozu nazala baina?

—Parkatu! —begiak jaitsi gabe Unaxek esku-oihala lurretik hartu eta itzuli egin zion—. Hauxe da gertatzea gura ez nebana. Badakit parkazinorik merezi ez dodana, baina gatxa da zure ederraren aurrean geldi egotea —andereak gorputza estali zuen.

—Hoba izango da hau inork jakin ez dagian. Orain arte Ainhize zugaz ikasten hasi da eta ez dot gura hori pikutara joan daiten... Hau eskandalua... Esan beharrik ez dago, ez zaitudala etxetik ikusi gura.

—Ainhizeri klase emoten jarraitu dagidan gura dozu, orduan?

—Bai, baina zeuk esan dozun lez, guztiontzako hoba zeure etxera badaroazu.

—Bihar orduan...

—Ez, holan bat-batean egin ezkerro, arraroa eretxiko deutso, eta berak ez dau gauza arrarorik pentsau behar. Bihar hemen emongo deutzazu, gainera bihar ni ez naz egongo, baina astelehenetik aurrera ez zara hemendik agertuko... Egia esan, pisu bat kentzen jat gainetik. Pasatu jatan burutik nire alabeagaz interesatuta egongo ez ete zinan, eta orain hau ikusita, bildur hori gitxienez kendu deustazu. Eta eskerrak emon neure lekuan egoten dakidanetarikoa nazana.

—Berehala joango naz, osterantzean lotseak hil behar nau. Astakirten hutsa baino ez naz izan.

—Arrazoia ez dozu falta. Tira, alde, eta asmau Ainhizeri emon beharko deutzazun azalpena —Unax joan zenean, Ainhizeren ama ispilu aurrera joan zen—. Argi dago oraindino gazteen-tzako be erakargarria nazala. Eta irakasle honek be ez dauko

bape itxura txarrik. Azkenean autortu behar dot, hartu nauenean zer egin ezean zalantzan egon nazala...

—Nor da?

—Ezetz asmau!

—Gabon nebatxo, edo oker nago, ala oso umore onez habil?

—Eginda! Bihar neskea eta andereñoa neureak dozana.

—Jolasa benetan hasi dala esan gura deustak?

—Zer uste heuan, ba, hire nebeari txoriak ihes egingo eutse-la? Gainera, bide batez, Ainhizeren amagaz be apur baten jostatzen ibili nona. Oso jostagarria izan dona.

—Bejondeiala. Gero neuri be jostaten itxiko deustak, ezta?

—Andereñoagaz, lortzekoa lortu ezkeru, seguru. Bestea...

—Ui, ui... Zer edo zer mogiduten hasi dok nire nebearen bihotzean, ala? Oso heurekoia dirudik, laztana.

—Egongo gozana. Gabon.

Unax, telefonoa eskegi eta ohean etzan zen. Itsaso epel baten hondoan sentitzen zen, korronteek alde batetik bestera zeramate-la. Eta belarri atzetik karramarroa haginka zebilkiola ere iruditu zitzaion. Arraroa benetan. Aspaldian ehortzitako kontzientzia ote zen? Balantzaka murgilduz zihoala, irudimenean, begiek amore eman zuten eta iluntasun astunean galdu zen, beste mundu batzuei ateak zabaltzeko.





## X

Oihu eta garrasiek artean preso zuten, belarrietan oihartzun mingarriak egiten zizkiotela. Begietan iluntasuna besterik ez, ireki ere ez zituen egin nahi eta. Bazekien ikusiko zuena, aurreneko aldia ez baitzen. Besoetan estuturik, gorpua hozten zihoala sentitzen zuen artean. Hasieran odol epela eskuetan idorturik igartzen zuen. Ez zuen arnasarik entzuten berea baino. Aurpegia garretan zeukan, azken suteek artean bizirik zirautelarik; zainak irakiten.

Zergatik joan ote ziren beraren bizia hartu barik? Zergatik ezin izan ote zuten eraman, besteekin batera?

Begiak ireki zituenean alabarenak ikusi zituen, espresiorik gabe berari begira, zabal-zabalik. Ahoa ere zabalik zuen, aurpegia margul eta minak desitxuratuta. Bere indar guztia erabili zuen gezia bizkarretik ateratzeko. Inguruan beste hamarren bat gezi zeuden, beraren gorputzean ezin sartu izan zirenak. Alperrik izan zen alaba bere gorputzaz babestea.

Hilotza lurrean eztirotz utzirik, ingurura begiratu zuen, malkoak ikuskizun beltza garbitzen ahalegintzen ziren bitartean. Handik metro batzuetara emaztea ikusi zuen, putzu gorri baten hilda, eskua beragana luzaturik. Azkenean bere etxeari begiratu zion, edo suak utzi zituen harri beltzei, barruan oroitzapen guztiak kiskali ondoren.

Leku guztietan zeuden gorpuak. Aurpegi ezagunak ezin eza-gutu ziren. Bazirudien zuhaitzei eurei ere odolezko malkoak zerizkiela. Begiek gorria eta beltza besterik ez zuten ikusten.

Bekokia zerura jasota zutitu zen, biraoa ezpainetan isildurik. Oraingoan ez zituen gorpuak ehortziko, besteetan bezala. Oraingoan hartuta zeukan erabakia, bere arrebak urte asko lehenago hartu zuena. Hildakoak barik, sentimenduak ehortziko zituen, betiko. Herria babestu ezin bazuen, armek eskuetan erre egiten bazuten jareginarazi artean, bere buruarentzat bakarrik biziko zen, arrebarekin batera.

Urratsek herritik urruntzen zutela, basoan barrena, azken begiratua zuzendu zien bere hildakoei. Orduan oihuak atzera etorri zitzaizkion belarrietara, laguntza eske, negarrez, biraoka... Hainbat eta hainbat aurpegi ilunpetatik irteten hasi zen, haiekin ez ahazteko erreguka, amaigabeko bizitzaren ordu beltz guztiak gogoraraziz.

Hasi zen dardaraka, hotzikarek astinduta. Izerdia gorputz osotik zebilkion, hotz. Amaren aurpegia, aitarena, lagun mine-nak...

Begibilak irten beharrean altxatu zen ohean, artean iluntasu-nean irudi batzuk zekuskiela. Argiak astiro-astiro bakea itzuli zion gogora. Joan zen amesgaiztoa. Unaxek ez zuen haren esanahiaz pentsatu nahi izan, ez zuen behar.

## XI

Goiza sargori eta euritsu itzartu zen, ohean gelditzera gonbidatzen duten udaberriko egun alditsu horietarikoa. Unax, ametsen itsasoak sentimenduak izaro baten preso eduki ondoren, lo sakonetik askatu zen. Beraren betiko gela nahasiak ere ez zuen mugitzera bultzatzen, eta bultzada bakarra ametsak oroimen argitik itzal iragazgaitzetara bidaltzean aurki zezakeen, izaretatik irteteko. Dutxa hotz batez bero itsaskorra uxatzea ere arrazoi ona zatekeen. Azkenean ohetik leihora joan, bidean aurreko eguneko prakekin behaztopatu, erdi haztamuka pertsianako hedea aurkitu, eta kanpoko argi goibelari logelarako bidea eman zion. Agian egun berriak burua ere apur bat argituta, erabaki zuen ez zegoe-la ziorik horrelako nagiaren aurrean amore emateko. Goiza astuna izango zen, baina arratsean lortuko zuen egun hartan lortzekoa. Eta sari bikoitza jaso behar zuen, gainera.

Ainhizek, azpikogona artean erantzi gabe zuela, zorrotik aterra zuen bere olerkia, hainbeste hileren ostean berriz irakurtzeko. Ezin zuen oroitu noiz idatzi zuen, orriaren goialdean zioen bezala, data barik zegoen eta.

Gaua,  
bukatzen ez dan gaua.

. . .

Aita, arren, esaidazu,  
erabili nire bihotza;

...

Gau amaigaitz honen ostean  
iritsiko jat argia.

Hala biz, pentsatu zuen. Betor argia, betoz garai hobeagoak eta aldendu bedi betiko gau iluna. Agertu da pozaren iturria, ezta, aita? Zu zaitut beti jagole eta gidaria. Edo honela izan behar zuen behintzat, arratsaldean, ama joanda gero, dena berak, ez, biek —aurreko egunean Unaxek adierazitakoa adierazita, ez zegoen okertzerik honela esanda— nahi zuten bezala gertatuz gero. Egun batez irratitik entzuten zen Π L.T.ren “Bihar” abestiari izena aldatu beharko zitzaion, gertakizunak gaur iritsiko ziren eta...

Bibliotek lata bat garagardo edaten zuen, burua gora eta behe-ra astinduz bere baitan abesten ziharduelarik: “*Construyo la vida, se me caen los cimientos / ahora que el ácido es lo que mueve mi cuerpo / si te odio tú me quieres y cuando me odias te quiero / pero por suerte o por desgracia estamos en el mismo juego...*”. Arantxa arineketan sartzen ikusi zuenean, harengana itzuli zen.

—Zer, hemen zagoz atzera? Ez da minutu bat joan zarala.

Arantxak irakasle-liburua hartu zuen hasperen egiten zuela.

—Liburua ahaztu zait. Gaur ez dakit burua non daukadan.

—Asmatu neike? —Arantxa gorritu egin zen apur bat.

—Ez dakit Unaxek kontatuko zizun gaur afaltzera gonbidatu nauela —Bibliotek baietz buruaz—. Ba, hamabost urteko neskatilen moduan nabil herabe eta urduri. Ez daukat gogoan noiz izan dudan azkenengoz hitzordu bat mutil batekin eta ahaztuta daukat sedukzioaren jolasak. Gainera, honezkero ez gaude gauzak arin hartzeko adinean; badakizu, ezkutuko musu eta zirri batzuk etxeko atarian banatzeko orduan, holako tontakeriatxoetarako sasoian ez gaude...

—Nasaitu, neska, ikusiko dozu zelan dakizun zer egin une baktotxean.

—Bai, jakingo dut, baina orainflan bat bezala nago. Nahiago dut gaur pasabideetatik berarekin topo ez egitea —Bibliotek irri-barre egin zuen.

—Ala, mogidu zaitez, berandu zabilz eta, klasea emongo badozu. Neu lotuko naz irakasle-gelea jagoten, ia inor agertzen dan —eta keinu adierazkorra luzatu zion.

—Ez komentau ezer honezaz, e? —esan zion andereñoak agindua adierazteko atzamarra altxatuta, eta arrapaladan desagertu zen.

Bibiot bere zereginetara itzuli zen. *“Cómo están las cosas, cada vez estamos más jodidos, / pero pasamos por el aro y como borregos asentimos. / ¡Violencia!, ¡dales caña!, ¡venganza! ¡sangüinaria!”*. Handik hamar minutura berriro ireki zen atea. Unaxek pozik ematen zuen barrura sartu zenean, eta Biblioten kanta entzuterakoan alaitasuna areagotu egin zitzaiola zirudien. Hau bere kantuan guztiz murgilduta zegoen, antza; laguna sartu zela ohartu ere ez baitzen egin.

—*“No estudiamos ni trabajamos, somos unos cerdos que comemos con las manos, / escupimos a pobres ancianos, nos divertimos siendo malos. / Nos llamáis ¡asquerosos!, quizá para nosotros eso sea un elogio...”*

—Bardin-bardin egiten dozu, txo. Ez dakidana da zelan daukazun umorea, goizeko ordu honeetan Mortis Causa aukeratzeko —Bibliotek begiak altxatu zituen bere paperen artetik.

—Aupa, zu zara? Ez deustazu esango badazauzula Mortis Causa?

—Esan daigun, berba egin genduana berba egin eta gero, gai horretan zu bestean jantzita nagola, punk nazkagarriari —Bibliotek barre egin zuen.

—Ez dot zalantzan ipiniko, gaurko zure umorea zalantzan ipiniko ez dodan moduan. Zerk zaukoz hain alai, ba?

—Zeu be alai zaukozanak, Celestinoori.

—Egin daigun gaur neska bategaz egoteko zarala, nora erango zeunke?

—Egin daigun gaueko kontuak ez eze, beste eginkizun pozgarri batzuk daukadazala esku artean, surluzeentzako erakargarriak ez diranak.

—Ondo da, ez naz sartuko... Autortu behar dot gustura ordainduko neuskiola zelatari bateri, baina tira, konforme nago zuri garagardoa eskainita —eta lata bat luzatu zion.

—Zer da hau, irakasleak edaten klase orduetan? —baina hori esan arren, Unaxek onartu zion garagardoa.

—Topa egin daigun, hau berez txanpainagaz egin beharko geunke baina.

Unaxek mahaian jesarri eta trago luzea egin zuen. Gero ahoan gelditu zitzaiona dastatu eta begiratu bat eman zion latari. Aurpegiak onespena adierazi zuen, marka ezaguna ez bazuen ere.

—Noiz edo noiz gustaten jat garagardo ona edatea —azaldu zion Bibiotek—; hau marka, Pernštejn, Txekiakoa da. Ez da Plzeňekoa bertakoa, baina oso zapoetsua eta gozoa da, igarriko zenduanek; Pardubicekoa. Gainera neure neska-lagunaren herrikoa izanik... (beraren bidez zuzendu dot, hemen ez dago topatzerik eta).

Unaxek baietz egin zuen buruaz. Atsegin zuen bere eta lagunaren ordu libreak bat etortzea halako une lasaiak solasean igarotzeko. Horrela, eguna laburragoa izango zen harik eta eguneko platerik gozoenak heldu artean.

Ohean etzanda, The Carsen disko zahar bat entzuten, Ida txinatar jatetxera telefonoz eskatutakoari itxaroten zegoen, txabusi-na zuri gardena jantzita. Nagi zegoen egun hartan sukaldean aritzeko eta, bide batez, esperientzia berriei beti irekita zegoenez, janaria ekarriko ziona ere txinatarra bazen...

Lehenengo musuak zeharo ustekabeen harrapatu zuen Ainhize, eta seguruenik ernagarriena zena ere gertatu zen, atea ireki orduko eman baitzion, ama artean etxean zegoela. Berak, behintzat, ez zion amaitzeko presarik eman, eta gizonak ezpainak aldendu zituenean bakarrik adierazi zion egoera, bihotzak bularreran leku aski ez zeukala. Zorionez, amak berehala utzi zien etxe osoa eurentzat.

Ainhizek, ezer gertatzen bazen, dena prest zeukan: logela txukun-txukun, pletinan J.C. Perez-en zinta “Hau berua” abestian, airean lurrin gozoa... Egokia zeritzon berak sortutako giroari. Eta hola iritzi zion Unaxek ere, antza, hitzei astirik eman gabe berriro besoetan hartu eta bero musukatu baitzuen. Neskatilak bere burua gero eta tinkoago korapilatuta ikusten zuen irakaslearen sareetan eta egiten utzi, beste nahirik ez zuen.

Bero estuaren erdian, ordea, eztiki zerabilela sentitzen zuen Ainhizek. Unaxen eskuek ez zuten presarik erakusten atal zainduenetan sartzeko eta askatasun osoz mugitu arren, ile eta lepotik zebiltzan. Neskatilaren eskuak, berriz, lotuta bezala zeuden, nora jo asmatzen ez zutela. Umegorri bat zen haren aldean, pentsatu zuen, maitasun jokoez ezer ez zekiena. Hala ere, ahoa betetzen zion zorientasunean kontzentratzea erabaki zuen.

Unax neskari lasaitasun eta konfiantza ematen saiatu zen, neskaren gorputza apur bat gogor zegoela igarrita. Ahoak banandu ostean, Ainhizeren begietara zuzendu zituen bereak, ezpainetan irribarre goxoa zuela.

—Ez dakizu ondo ze zorientasua nazan ederren artean ederrena nire ondoan eukita —xerloa belarriaren atzean jarri zion astiro—. Ez neban uste musuak hain goxoak izan leitekezanik, inork ez nau hain ondo musukatu —ezpainak segundo batez elkartu ziren, presa barik, Unaxek berbetan jarraitu aurretik—. Nasai hartu beharko, zoratuko ez banozu... Zeurea nozu, laztana.

Ainhizek besoak Unaxen lepoan estutu zituen, honek saman, ilea atzera eramanda, mihiaren ukitze hezea sentiarazten zion bitartean.

Zelan jokatu behar zuen? Zeintzuk ziren irudimenean hainbestetan jarraitutako urratsak? Ainhize egoeraren jabe egiten ahalagindu zen. Erakutsi behar zion bera klasean ezagutu zuen neska gogor eta zer nahi zuen ondo zekien hura zela. Baina hain zen zaila irudimenetik kanporako mundua... Sorbaldatik hartuko zuen, ohean jesarraraziko zuen, astiro-astiro atorra erantziko zion. Hark gauza bera egingo zuen beraren nikiarekin eta gero berak, apur baten itxaronaraziz, sentsualki, bularretako zuria askatuko zuen, gutxika-gutxika titiak agerian utzi artean, haren eskuei laztantzen uzteko...

Ohartu zenerako, berriz, bere gogoetak aurrera eramateko berandu zen. Unax ohean zetzan eta neska eratzan zuen gainean. Ainhizek bien gorputzen beroa sentitu zuen inoiz baino nabariago, eta gizonaren praken barrutik sumatzen zuen gogortasuna zer zen ere jabetu zen. Bularra gora eta behera mugitzen zitzaion Unaxen bularraren gainean. Musu batzuen ostean altxatu eta goitik begiratu zion. Ainhizek ilea zeukan aurpegian, nahastuta, eta ileen artetik Unaxen goiko aldea zekusan, atorra erdi erantzita. Eskuak sabelaldean ipini zizkion haren azala eta izerdia sentitze-ko. Haren gainean hanka-lepo jesarrita, gerrikoa askatzen hasi zitzaion, desioak eroanda, baina Unaxek jaso eta magalean hartu zuen, grinaz besarkatuz.

—Gauza batzuk beste egun baterako itxi behar doguz, ez dozu uste? —Ainhizek begiak jaitsi zituen, lotsatuta.

—Parkatu, zer pentsatuko dozu nizaz!

Unaxek kokotsetik hartu eta musutxoa eman zion.

—Ez dago zer parkatu. Neuk be dana egingo neuke orain, barruak eskatzen deustana egin ezker. Ez dakizu zelan eskatzen deustan, gainera... Baina uste dot biok behar dogula burua apur bat freskatu eta gaurkoa geureganatu, jakiteko zer sentitzen dogun.

—Nik badakit zer sentitzen dodan, maite zaitut eta ez dot gura hemetik joan zaitez. —

Unaxek burua Ainhizeren sorbaldan ipini zuen, laztankor.



—Holan izango al da! Bardin esango neuke, baina erraza da maite zaitut esatea holako une baten. Ez dakizu zelan poztuko nindukean orain esan deustazuna benetan eta betiko izango balitz... Barnetik jabiltan guztia aztertu daidanean neuk be esango deutsudaz horreek berbok, ez euki zalantzarik.

—Ea arin izaten dan, ezin dot luzaro itxaron.

—Arin izango da, bai, eta orduan ez jatzu damutuko apur bat itxaron izana, orduan askatasun osoa emongo deutsegu gorputzei daroen guztia alkarri adierazo degioen, berbea emoten deutsut.

Ainhize Unaxen gorputzean estutu zen, begiak itxita.

—Bale, gaur neurriaren barruan ibiliko gara, baina horregaitik ez dogu zertan bukatutzat emon, ezta?

Eta hau esanda albora etzan zen, Unax gainean jar zedin. Honek musukatu egin zuen, eskuak nikiaren barrutik sartuta, bularretakoa askaturik zegoela. Baina gainean barik aldamenean geratu zen, alboz etzanda neskatilaren gorputza eskurago edukitzeko. Orduan musuak banan-banan etorri ziren, ezpainak elkar-tu besterik ez, eztiro elkarri begira zeudela. Ainhizeren bularra gora eta behera mugitzen zen, gizonaren eskuaren laztanpean. Gustatzen zitzaion atzamarren ukitua goietan igartzea.

—Badakizu, musukatzen nauen lehenengo gizona zara —esan zion irribarretsu eta apur bat lotsak gorrituta—, eta eskuak hor ipinten dozuzana bere bai —tartetxo bat egin zuen azken hitzak esan aurretik, esan-ahala are lotsaz gorrituago egiten zela—..., eta autortu behar deutsut ako gustau jatala.

Unaxek bekokian egin zion musu.

—Ezti hutsa zara, Ainhi, ezti goxo beroa. Sorginduta nauko-zu, paradisura naroazula sentitzen dot.

Irakasleak gogor besarkatu zuen neskatila, ezpainez belarria laztanduz. Orduak arin zihoazkien elkarren gorputzetan bilduta.

Unaxek plaza Biribileko hiripeko geltokiaren ondoan geratu zuen gurdia Ainhize uzteko. Jendea ugari zebilen Corte Inglesetik

BBVA ondoko semafororako tartean; gazte asko lagunei itxaroten iturriaren inguruetan. Artean estatua-gizona han zegoen, lan-eguna oraindino amaitutzat eman barik, azken txanponak jasotzen. Azken musua kotxe barruan eman ostean, Ainhize eta Unax banandu egin ziren. Neskatilak nahiago izan zuen gizonak Alde Zaharreraino ez eroatea; hiruzpalau minutuko bide hura oinez egingo zuen, inork irakaslearekin ikusteko ahalik eta aukerarik gutxien egon zedin. Abandoko geltokia atzean gelditzen zitzaioa, Unaxen kotxea Udaletxeko zubirantz galtzen ikusi zuen, espaloitik agur egiten ziola. Ez zuen jakin gizonak ikusi zuenentz, baina ez zion ardura. Zorionez gainezka, Areatzako zubia zeharkatu, Arriaga antzokiaren aurretik igaro, eta Zazpi kaleetatik galdu zen, Karmeleren bila. Barrenkalen sartu eta Kaixo tabernan topo egin zuen lagunarekin, honek ordurako garagardoa edaten zuen bitartean.

Pozik zegoen egun hartan eurak bakarrik lotu zirelako. Agian mozkortu egingo zen, ez zekien, baina gau hartan ez zuen beharrezkoa izango gogoia alaitzeko. Dena dela, kalimotxoa eskatzen hasi zen, Karmele bakarrik edaten ez uzteko. Mutil batzuk hurbildu zitzaizkien asmo jakinez baina, bizkarra emanda, ez zieten jaramonik egin. Ainhizek ez zuen ezein mutilen ezetariko beharrik, ezta barre egiteko ere. Gustura zegoen La Pollaren maketako kanta zaharrak haxix ketan igerian, Karmeleren hitz lagunak belarrietan, eta kalimotxoa eskuan sentituz. Pote batzuk hartu eta gero, burua sentimenduen lainotik pixka bat jaitsita, hasiko zen lagunari azken aldiotako berri guztiak zehaztasunik txikienetaraino kontatzen.

Kaixotik irten eta berehala, Laukinizen sartu behar izan zuten, mozorro batzuen arineketak harrapa ez zitzaizkien, Ertzaintzaren istiluen aurkako indarrak atzetik zituztela. Tabernako atetik ohiko oihuak entzun ziren, airean harri koskorrak zebiltzala ke artean.

—Aspertuta naukie ume lerdo honeek —esan zuen Ainhizek. Karmelek besotik heldu zion.

—Ssss, ez esan ozenegi.

—Asko ardura deust niri nork entzuten deustan! Aurpegiak estalduta eta taldean babestuta oso ausartak dira, ume moko aluak!

—Tira ba, hartu daigun hemen zer edo zer, Ainhi.

—Benetan; zergaitik ibili behar dabe beti guztiok izorratzen? Herriko heroiak diralakoan dagoz...

—Ainhi... —Karmelek laguna isiltzea nahi zuen.

—Gainera zer uste dabe, lau katu baino ez dira eta gehiengoa euki behar dabela euren esanetara?

Karmelek kalimotxoia ipini zion eskuan.

—Badakizu nortzuk egongo diran tartean, ezta?

—Bai, lagunak, baina gure lagunak izateak ez dau esangura txoriburuak ez diranik. Gainera batzuk nortzuk diran jakinda, ez nau bape harritzen...

Taberna barruan Iron Maidenen musikak estali zuen istilua-  
ren zarata.

—*Es que* benetan dinotsut, amorrua emoten deust. Badakit eurretari-  
ko batzuk egiten daben horretan sinistuta dagozala, baina  
zer aurreratu dogu holakoakaz? Hobeto ulertuko neuke egurra  
Espainiako indarrei banatzeko balitz! Nik nekarren pozagaz...

—Bai, egia da, igarri deustut poza Kaixon sartu zaranetik.  
Zer darabilzu ba buruan?—Ainhizek irribarre gaizkidea luzatu  
zion.

—Gero kontauko deustut, giro lasaiagoan gagozanean.

—Jakingura daukat zer gertatu ete jatzun.

—Ez neutsun esan ba klasean, zer edo zer neukala konteta-  
ko? Topa egin daigun eta gauzak komeni danean esango deust-  
daz —Karmelek zeren alde ez bazekien ere, topa egin zuen adis-  
kidearekin—. Orain hoba izango da hau bukatu eta Piratara joa-  
ten bagara, handik gauzak nasaiago ibiliko dira.

Alde Zaharreko irteerak begiratzen zituzten ertzain kasko  
gorridun eta beltzez jantzien baimenaz, San Anton zubirantz  
abiatu ziren, gurdiei bidea mozten zieten suteak atzean utzirik.

Zubian furgoneta ondoko *beltzek* ez zieten jaramon handirik egin, irratiaz kuartelarekin hizketan zihardutela. Zirkulazio argiaren inguruan kristal apurtuak ageri ziren behearen gainean banatuta, beira birziklatzeko edukinontzia iraulirik eta paperarenari kea zeriola: “ekologista” batzuen birziklapena ulertzeko modu berezia.

im Herzen die Galerna  
das Gesicht zur Wand  
Ihren Basken Korsen Kurden  
Bürgerkrieg in Urlaubsland  
el que no bailla es policia national!!

Leloaren azken lerroa denek batera oihukatuz, Pirata tabernak ongi etorria egin zien Ainhize eta Karmeleri, eurak ere burua astintzen hasi zirela. Bai, egokia zen K.G.B. alemaniar punk taldearen “Euskadi (Baskenland)” abestia, kaleak haien hitzak egia bihurtuta erakusten zituela baitzirudien: “*wie lange kann man Wut verwalten / den Deckel auf dem Topf behalten*”.

Kanta amaitu eta txiriboginak zinta aldatu zuen, handik gutxira The Adicts entzuten zela. Taberna hondoan, saltoka dantzan, Urko ageri zen. Ainaro ondoan zeukan, pittin bat lasaiago. Neskak haiengana joan ziren, edariak eskuetan zituztela.

—Kontuz, Urko, burua jausiko jatzu eta —esan zion Ainhizek. Ainarak irribarre egin eta porroa luzatu zion.

—*I'm a joker in the pack!!* —Urkoren agurra, abesteari utzi gabe.

—Eskerrik asko, momentuz honegaz nahikoa dot.

—Itxi niri, atxikitxu bat hartuko dot —eta Ainhizek onartu ez zuena Karmelek hartu zuen.

—Neuk eskatu deutset hau ipinteko, eta gero gainera zintea itxiko deust grabatzeko! Bazen garaia! —Urkok, berean poz-pezik.

—Joxe-eta ez dabilz hemetik, ezta? —itaundu zion Ainhizek Ainarari.

—Ez, Joxe harriak botaten ibiliko da, eta Patxi beragaz edo auskalo non, gaur ikusi be ez dot egin eta.

—Askoz hobeto, ea makilada batzuk hartzen dabezan.

—Antza ez dozeu zeuen artekoa konpondu —Ainarari Karmelek eman zion kanutoa.

—Beharrianik be ez dago; izorra daitezala horreek biak —Karmeleren burua haxixaren eragina igartzen hasi zen.

—Txarrena zuek biok erdian harrapatu izana.

—Lasai, Ainhi, guk badakigu geure lekuan egoten eta gainera, nik behintzat, ez deritxat bape ondo Patxik egin ebanari —esan zuen Urkok, dantza egiteari momentu batez utzia.

—Bueno, baina gugaitik ez haserretu hareekaz, gero! —eskatu zien Karmelek.

—Ez, neska, esan deusut badakigula geure lekuan egoten. Pasa kanutoa.

Lagunekin minutu batzuk emanda eta Bilbo Zaharreko taberna batzuei bisita eginda, Alde Zaharrerantz itzuli ziren, biak bakarririk berriro. Istiluek baretuago ziruditen, *beltzek* artean kaleen sarrerak zaintzen bazirauten ere. Neskatilei zirrara eragiten zien aurpegia estalita zuten gizonen artetik igarotzeak, makilak euren-gana luzatuko ez ote zituzten beldurrez, baina beti bezala begiratu besterik ez zieten egin. Ainhize egoeraz galdetzera ere ausartu zen. Kasko gorri baten barrutik, ikusten ez zuten ahoak erantzun zien:

—Kontrolpean dago dena, aurrera lasai.

Argi zegoen egoera kontrolpean egoteak esanahi guztiz bestelakoa zuela, gatazkaren aldearen arabera...

Atzera Barrenkalera heldu zirenean, Paradixera abiatu ziren. Barruan, Offspringen “No hero” giroaz nagusitu zen. Ordu haie-tan arraroa zen, baina barra ondoan aulki bi aurkitu zituzten hutsik. Jesarri eta kalimotxo erdi bana eskatu zuten, jesarleku kuxindunetan nor zegoen begiratu gabe. Ainhize, lepoa hormaren kontra ipini eta edarian igerian zeuden izotzei begira lotu zen. Karmelek distira berezia sumatu zuen haren begietan, zoriontasu-naren distira.

—Kontauko deustazu orain zer dozun buruan? —Ainhizek irribarre egin zuen, begiak izotzetatik kendu barik.

—Kontetan deustudanean ez deustazu sinistuko... Ez dakizu zenbat kostau jatan orain arte zuri ezer esan barik eukitea, baina hasieratik entzun ezkeron ondo adituko dozulakoan nago.

—Bota ba!

Ainhizek Karmelegana jaso zituen begiak. Lagunarekin guztiz zintzoa izateko garaia zen.

—Gaur Unaxegaz egon naz, etxean esan gura dot, biok baka-rik.

—Zer? —Karmelean burutik zebilkiona ezin sinisturik gelditu zen.

—Bai, eta bero-bero musukatu nau, nire lehenengo musuak izan dira... Eta zelango musuak, ezin gozoagoak. Uste izango dozu nire irudimen zorua dala, baina nire amesik onenetan be gertatzea espero ez nebana gertatu da. Urteten gabilzala esan lei.

—Baina, zelan? holan..., noiz? Ez dot ezertxo be adituten.

—Bai, hasieratik hasten ez banaz ez dozu adituko... Beitu, azken asteotan Unax nire etxeko irakaslea izan da, egunean-egunean etorten da etxera gaiak azaltzen eta ikasten laguntzen, eta...

Astiro-astiro, gogoratzen zituen xehetasuntxo guztiakin, Ainhizek Unaxekin bizi izandako orduak kontatu zizkion Karmeleri, honek harrিতuta eta aldi berean hunkituta eta sorginduta bezala entzuten zuela. Ernagarria gertatzen zitzaion; berari gertatu baltzaio bezala bizi zituen lagunaren hitz guztiak. Bitartean, bigarren eta hirugarren kalimotxo erdiak etorri ziren, Bad Religionen “Recipe of hate” eta Metallicaren “Kill’em all” pletinatik igarotzen zirela. Nirvanaren “In utero” entzuten zen taberna argi-ilun eta hormak graffiti modura margoturiko hartan, Ainhizek kontakizuna amaitutzat eman zuenean.

—Hobeto oraindino egin ez badozue. Ez euki presarik, gero kontrola galtzen dabe eta...

Ainhize konturatu zen bere adiskidearentzat mingarria zela iragandakoaz berriro gogoratzea, eta sorbaldan pausatu zion eskua, lagun modura.

—Ez pentsau horretan, Karmele. Tira ba, eperdia mobiduko dogu beste taberna baten? —hori esaten zuela, jertsea hartzera-koan, atzeko jesarlekuetara begiratu zuen. Bat-batean irribarrea ezabatu zitzaion: burua ia hanka artean zuela, guztiz mozkortuta eta itxura baten lo, han zegoen Patxi, bakar-bakarrik.

—Itxaron kanta hau amaitu artean —baina Ainhizek besotik heldu zion.

—Ez, goazen arin baino arinago, hor dagoana Patxi da. Zorte apur bategaz berak ez gaitu ikusi, kriston atxurra dauka eta. Ala, altza eperdiori *mobidarik* euki baino lehen. Gainera Joxe inguruan badabil, jodiduta nago.

Patxiren izena entzun orduko, Karmelek gauzak bildu eta neskabila biek Paradixetik alde egin zuten.

Itsasapo txingarretan erreriko hura ezin gozoago zegoen; olioia dastatu bai baina arrainaren ahogozoaren gaintik ez zen nabarmentzen neurri egokienean. Buruko hezurak banandu eta haren zati mamintsuak, oliotan apur bat bustita, ahora eraman zituen. Ogi zati batez lagundu eta arabar Errioxako ardo beltz 82ko uztakotik labur edan zuen. Artean Arantxak txipiroien saltsan ogia basitzen zuen, Unaxek baino astiroago afaltzen zuela. Gizona andereñoaren mugimenduei begiez jarraitzen geratu zen, ukondoak mahai gainean zituela eta ogi kuxkurrari zatitxoak kentzen, konturatu gabe bezala. Arantxa ez zen konturatu begiradapean jaten zegoela, txipiroiei buru-belarri emanda. Albinoniren adagioak pastel margoko giro lasaia betetzen zuen. Unaxek ardo botila hartu zuen.

—Beteko deusut ontzia? —Arantxak jaso zituen begiak plateretik, irribarre ezta ezpainetan zuela, eta eskua edalontziaren ahoan ipini zuen.

—Ez, azkenean mozkortu egingo naiz, bestela —zertxobait gorritu zen, besteak zuzenean begiratzen ziola ohartzean.

—Eta? Egunero ez da holango ardaorik edaten, gero! Gainera, ardao onak ez ei dau osterik ixten.

Une batez zalantza egin ondoren, andereñoak eskua kendu zuen basotik.

—Aurrera, baina tantatxo bat baino ez.

—Zeure esanetara, andereño —eta eskua bularrean jarrita komeria eginez, edalontzia bete zion, besteak eskatutakoa baino hainbat gehiago.

—Ze geldoa naizen, aspertuta egongo zara ni jaten ikusita.

—Ezinezkoa da zu ikusita inork gogait egitea.

—Elexuri galanta! —Arantxak irri lotsatia egin zuen gizonaren ateraldia zela-ta. Gero ardo apur bat edan zuen—. Honek, gutxienez, klaseko burrukak ahaztaraziko dizkit.

—Bueno, hainbesterako be ez da izango, neska.

—Ez dakizu ondo. Zu gehiago errespetatuko zaituzte agian, gizona zarelako edo, baina nik egunero entzun behar ditudan hitz gordinak... —eskuak belarrietarantz mugitu zituen, hitz haiek artean entzun eta barrura sartzen eragotzi nahi balie bezala.

—Izan lei zuretzako berba gordinak diranak hareentzako piropoak izatea be.

—Ez, txarto ulertu duzu, ez dira niri zuzenduak, bueno, batzuk bai. Piropoak zeuk entzungo dituzu, akaso. Nire mutiltxoak oso “finak” dira iritziak adierazten, batez ere ados ez daudenean: “potroetatik irteten zaidana egingo dut”, “zergatik ez didazu ‘lalala’ jaten?”, “zoaz zure txakurrekin eztakitzer botatzera!”...

—Ez, zorionez niri ez dinoste halakorik.

—Eta gero euren artean ere oso atseginak dira: “tortolabero-orri ez egin kasurik!”, “hi, itxi ahoa eta zabaldu hankak”, “hik zergatik duk ipurtzuloa hain gorri”, eta abar, eta abar. Uste dut ezagutzen duten hitzik gozoena putakumea dela. Uf! —Unax barreari eutsi ezinik.

—Uste dot kalera botako neukezala holakorik entzungo baneutse. Dana dala, batzutan onena arma bardinak erabiltea izaten da. Normalean irudimena apur bat landu ezkerro erraz ixten dozuz baragarri.



—Puf, nik ez daukat umorerik ez pazientziarik. Lehenengo aukera erabili ohi dut, kalera botatzea, alegia, baina azkenean horrekin be aspertu egiten zara. Armarik eraginkorra gurasoen mehatxua da, baina ezin zara ibili gurasoekin hitz egingo duzula esaka beti; hori etsita zaudenerako gorde behar duzu, eta gurasoak ezagutu, jakina; ikasle txarrenen gurasoak dira euren umetxo maitagarriak gehien babesten dituztenak eta —Unaxek eskua luzatu eta Arantxarena hartu zuen, samurkiro. Arantxak hotzikarra sentitu zuen, ustekabean harrapatuta, baina ez zuen kendu.

—Hobe izango da horregaz ahaztu eta azken goxo-goxo bat eskatzea, ados?

Arantxak, Unaxen ondoan orduak zeru garbian hegaka, berriro ez itzultzeko aldentzen diren koloreetako puxiken forma hartzen zutela sentitu zuen, askatu dituen umearen begi goseberen gainetik. Eta berak ez zuen ume hura izan nahi, ez zien zorioneko une haiei ihes egiten utziko.

—Axola ez badizu nik ez dut azkenik hartuko, kafearekin nahikoa dut. Ez dut gehiegi bete nahi.

—Ondo da, ba nik bardin egingo dot, ebagi bat eta kitto.

Zerbitzariak, eskatutakoa idatzi eta erabilitako platerak atzera eramane zituen.

Arantxak, lehoinabar ehiztaria urrats batera jarraika duen gazelak bezala, saman igartzen zuen Unaxen arnasa laztankorra, mehatxugarri ez bazeritzon ere. Igogailua zazpigarren solairuan gelditu zen eta bikoteak estu besarkatuta irten zuen.

—Pazientzia pixka bat, atea ireki behar dut eta —ziotson andereñoak gizonari, giltzak bilatzen zituen bitartean.

Itxaron ezinda, Unaxek Arantxaren alkandoraren botoiak askatu zituen pasabidean zehar, atzetik heltzen ziola, bere gorputza haren ipurdiaren kontra estutuz.

—Ez nuen imajinatzen hain sutsua zinenik.

—Ba ez dozu ezer ikusi, berehala aukerea eukiko dozu baina.

Emakumea ohean eratzan eta haren aurrean, mugimenduetan sentsualtasun apur bat ipiniz, guztiz erantzi zen. Arantxak age-

rian geratu berri zenari begiratu zion, barrutik urduri zegoela. Argi eduki zuen gizona prest zegoela, hura erne eta goia heze eta distiratsu ikusi zuen eta.

—Gustatzen bajatzu, zeurea dozu, gura dozun lez jostatu daizun —esan zion Unaxek, hurreratu ahala.

Arantxa mutu zegoen, hari begira, begien aurre-aurrera zelan zetorkion ikusten. Esku zalantzakor bat barrabilen azpian ipini, ukituan hauek gehiago bildu eta gogortzen zirela, eta bestearekin haragizko iskilua hartu zion, goitik zerizkion tanta gardenak ton-tor gorritik zabalduz, labainago uzteko.

—Hori da, ez euki presarik hau erabilerakoan.

Arantxa larrutan egindako azkenengo aldiak gogoratu zen. Ez zuen oroitzapen oso ona gurdian egindako egun hartaz. Gainera, leku hain hertsian ez zuen hura ondo ikusi eta jolasteko beta handirik ere izan. Orain, berriz, bazeukan, eta bere buruari aitortu zion, pixka bat ikaratu eta lotsatu arren, gustatzen zitzaiola, aurrean eta esku artean edukitzea. Barrua ernatzen zion gizonari eragiten zion dardara igartzeak; berea ere hezetu egiten zitzaion gonaren itzaletan.

Unaxek, gehiago eutsi ezinik edo, garondotik heldu zion burua harantz eramateko. Nahi zuena ulertuta, Arantxaren ezpainek barraburua laztandu zuten, leunki haginka egiten ziola. Unaxen gorputza goitik behera dardaratu zen.

Merezi izan zuen Ainhizerena xamurrago eramatea. Harekin ez zeukan azkar joan beharrik, dena gozoagoa zen eta ez zion axola nahiari eusteak, gero sumendiak eztanda non egin edukiz gero. Batentzat eztitasuna gordetzen zuen bitartean, bestearekin gogok eskatzen zion gordinkeriarri bidea eman ziezaiokeen. Giroak ere guztiz bestelakoak ziren. Batean musika lasaia eta lurrin gozoa; bestean arnasen eta hasperenen soinu bakarra eta gorputz izerditsuen eta jarioen usaina.

Gorputzak izara artean nahastuta, Arantxak zakila sentitzen zuen, atseginak min eman artean haragia bereizi eta arima ukitzen ziola. Alperrik ahalegintzen zen marruei eusten, Unaxen

gerriko kolpeek leherrarazi behar zuten eta. Batez ere bien atseginak goiena jo zuenean.

—Banoa, banoa! —Unaxek esan zuenean, mugimenduak baretzen joan ziren, ia guztiz gelditu artean.

Bosgarren isurialdia amaitu zueneko, gizonak emeki higitu zuen, artean, biguntzen hasi orduko barrutik atera eta latexezko babesa kentzen zuela. Biak blai eginda gelditu ziren, arnasberritzen, besarkatuta. Arantxak ezin zuen sinistu horrela irauteko gai zen gizonik izango zenik.

—Arraroa da! —hasi zen Arantxa, ahal izan zuenean—. Esango nuke emakume usaina daukazula azalari atxikita.

—Izan lei, bai —Unaxek irribarre egin zuen beste ordu gozokein gogoratuz—, Ida nire arrebearen lurrina izan lei arropetan sartu jatana.

—Zuzen ibili naiz Bibiotekin, tontakerietarako sasoian ez gagoz —gero sabaiari begira gelditu zen, pentsakor—. Astelehenetik aurrera zelakoak izango ete dira gure artekoak ikastetxean?

—Itxi denporeari ekarri beharrekoa dekargun.

Unaxek ez zeukan burua hausten hasteko gogorik, dutxa hartzeko baizik. Arantxari laztan ziezaion utzi eta loak eroan zuen ez tiro.



## XII

Xaboiaren aparra gorputzetatik behera zerien. Unax Arantxaren ipurdiaren kontra estutzen zen, haragi sendo haren presioa, ostera ere, min apur batez gogortzeko bidean zegoen adarrean igartzeko. Gizonaren eskuek ogi-orea bezala zerabiltzaten emakumearen biribiltasunak.

—Ez deustazu esango txiki honeen gogortasuna hotzagaitik dala, ura bero-bero dago eta —xuxurlatu zion Unaxek.

—Berriro egiteko gai zara oraindino? —Arantxak aurpegia gorantz zuzendu zuen, dutxatik ura jaus zekion.

—Uste dot behekoak berba egiten dauala nire ordez. Zabaldut izterrak apur bat eta zuzenean kontauko deutso zure alutxoari dana.

Neskak dardaraz zabaldut zituen, beheko ezpainak berehala zelan bereizten ziren sumatu zuelarik. Hura zen, hura, eguna has-teko modua. Ordura arte, bere harreman bakanetan inork ez zuen orgasmoraino eramane, eta gau bakar baten hamaikagarrenaren bila zebilen, ia kontua galdurik. Erotu egin behar zuen. Gizonak isuri arte behar zuen denbora luzatu bitartean, beraren sexu gero eta sentikorragoak gutxiago eskatzen zuen hartaraino. Eta gizon hark modu asko ezagutzen zituen mugaraino eramateko, erabili zerabiltzanak...

—Kaixo, nor zaitugu?

—Irene, Uztaritzetik.

—Kontxo, Iparraldetik. Bai herri ederra. Eta zein dira zure botoak?

—Igaiteko Π L.T. eta sartzeko Marilyn Manson.

—Ondo. Eta proposamenik?

—Bai, Txakun, Zuberoakoak izanda, Iparraldeko norbait ere ea sartzen duzuen!

—Ba, oso ondo. Inor agurtu nahi?

—Bai, ikastolako lagunak, eta Iruñeko Gorkari pot bat. Ea Herri Urratsean elkar ikusten dugun.

—Bale, ba, han egongo gara denok. Ez dugu Senperen dugun urteroko hitzordua ahaztuko, eskerrik asko deitzeagatik. Musu handi bat, edo zuek diozuen bezala, pot handi bat zuretzat eta Uztaritze eta Lapurdiko entzule guztiontzat.

—Zuendako. Adio.

—Aio, bai. Bueno, bero-bero dugu gaur gure Top-Gaztea. Orain lehendik eskatuta geneukan eta bosgarren postuan dugun Kashbadeko mutil, eta batez ere neskarekin utziko zaituztegu. Hemen duzue, ba, Kashbad eta euren aurreneko diskoan atera zuten “Lehertuz” kanta indartsua. Martxa honekin geuk ere leher egin behar dugu!!

Unaxen gurdia Mundakako itsasadarrari lotuta zihoan, erre-pideko bihurguneetatik itsasorantz. Laida hondartzak urrea itzultzen zion zeruari udaberri amaierako itsasbehera hartan. Iza-ro itsaslehorrak, lehorreratuko balea baten antzera, inartxiz begiratzen zuen kostaldera, ilargiak inoiz atzemango ez duen Lurrari bezala, besteari edertasun berezi eta bakarra berak ematen ziola jabetu barik. Antzora auzoa adierazten zuen kartel inguruan kotte batzuk zeuden. Agian, oskarbia eta beroa ustiatuz, erlijio aske eta berezko baten jarraitzaileen antzera, urteko lehenengo eguzki-jale gorrizaleak Antzorageko hondartzatxotik ibiliko ziren, soin erantziak itsasoari eskaintzen, uraren sakramentua betetzeko. Unaxi hara jaitsi eta parte hartzeko gogoia itzartu zitzaion. Gainera, ematen zuen Kashbad taldeko neskak hauxe eskatzen ziola irratitik:

Orduantxe jakingo niake  
hi haizela heu, hi heu!!  
hi haizela heu, hi heu!!  
hi haizela heu, hi heu!!  
Hire pentsamenduak ez ditukela hitz hilak,  
aske haizela nahi duana izateko...

Esateko ala izateko? Ala biak? Batek daki! Argi zegoen, hagatik, ahots eder hark, aurpegi eta gorputz ederrari bakarrik zegokiekeenak, egiteko eskatzen ziona:

Beren zentsurari uko egin dioala,  
hirea heurea, heurea dukelako  
hirea heurea, heurea dukelako!!

Gehiago pentsatu barik, gurdia galgatu, eta sastraka eta asunen arteko bidezidorretik jo zuen. Zegoen sokari helduta haitzeta-  
ra jauzi egin, eta handik hondartzara begira jarri zen. Ez zegoen jendetza handirik. Haitzetan, ezkerrean, hogeita hamarren bat urteko bikote bat, eguzkitan etzanda; behean, hondarretan, mutil gazte bakarti bat liburu bat eskuan zuela, eta itsas naietan 14-16 urteko neskatilak pilotan jolasten. Denak biluzik, denak berezko-tasun osoz, denak azal huts, top-less egiten zuen titi zuri sendo-dun neskatiletariko bat izan ezik. Neskatilak Zornotzakoak zira-tekeen segurutik. Durangokoak edo Gernikakoak ere izan zitezke-en, baina ez, Zornotzakoak zirelako egin zuen.

Soinean zeraman guztia erantzi eta uretarantz abiatu zen. Ur ertzera iritsi orduko, lehen ikusi ezin zuen beste bikote bat ageri zen, eskuineko haitzen atzean. Neskatilek alaiki begiratu zioten, eta euretariko batek harenganantz jaurti zuen pilota. Egia esan, mutilak ez dira beste sexuko ezaugarriei erreparatzea gogoko duten bakarrak.

—Parkatu, emongo deuskuzu pelotea? —esan zion ile beltz luzedunak.

—Zein?

—Zein ba, aurrean daukazuna —barre egin zuten besteek. Hitz egin zuenak ez baina, Unaxek egindako txantxa antzekoa ondo aditu zuten haiek.

—Bai, gura barik honaino jausi jatzu, ezta? Eutsi! —eta bereen ondoan zegoen pilota hartu eta itzuli zien. Neskatilek berriro eman zioten barreari, itsas lamia jostalarien antzera (Mundakako Lamiaran auzokoak, agian?).

Azkenik, uhin baten apar aurrean murgildu eta metro batzuk egin zituen urpean, neskatilak atzean utzirik. Orduan garbi sentitu zen. Fresko eta garbi. Gero San Pedro Atxarrekoa joatekoa zen, eta hango bakea dastatzeko, gogoia garbi eroan behar zuen. Baina, zer dela-ta garbitu behar zuen arima itsasoan? Zikin sentitzen al zen? Noizdanik halakorik? Garaipen bikoitza bart, eta ez al zuen ospatu behar, ba? Ez, ezin uler zezakeen zergatik bainu hark baketasun sentsazio hura uzten zion. Ez zuen ulertu nahi. Bere buruari dena zuzen zebilela erakusteko, neskatxa haiekin olga zezakeen... Baina ez zuen egingo. Igerian lasai egin, eta goian zegoen baselizara joango zen ogitartekoa jaten, munduko ikusbi-derik ederrena oinetan zuelarik.

Zelako askatasuna ematen zion larrugorritan igeri egiteak! Ez zeukan horretarako ohitura handirik, baina gorputzaren atal guztiak hesi guztietatik at mugitzeak benetan ondo sentiarazten zuen. Zergatik ez ote zuen mundu guztiak hala egiten? Gero, neskatilei begira, hausnar jarri zen. Euskaldunak, euskara ezpainetan zera-biltenak, gehiengoia inon baziren, hondartza gorrietan ziren zalantzarik gabe. Baina jakin behar zuen nongoak ziren. Orain, barrua guztiz bare zuela, aukera zuen haien artetik atzera igarotzeko. Astiro igeri egin zuen haienganantz eta, jaso behar zuenari aurrea hartuta, pilota bereganatu zuen.

—Ezetz niri kendu!

—E! Emon hori gero!

Hiru neskatilek gainera jauzi egin zioten, top-less egiten zuena alde batera lotu zelarik, begira. Gizona ondo sentitu zen neskatxan



azal eta bihurguneen ukitua berean igarririk. Bata samatik eskegi-ta, bestea beso batetik, gerritik hirugarrena (baietz azkenengo hau beraren gorputzaldiaren lekukoa izan!), aurrera egin eta laugarre-nari luzatu zion pilota. Honek hartu eta irribarre egin zion, lotsati.

—Jaregin, mesedez, nik ez daukat eta.

—Bardin deutso, zeuk gura izan dozu eta —erantzun zion ile beltz luzedunak, askatu barik.

—Tira, tira, askatu ala ito egingo zaituet.

—Saiatu ba!

Baina saiatzeko astirik eman gabe, laga egin zuten, gerritik heltzen zionak izan ezik. Azken honek askatu nahi ez, eta masai-lak bero-gorri zituela begiratzen zion behetik.

—Ondo, nahikoa da. Nongoak zarie?

—Gernikakoak —erantzun zion top-lessekoak, pilota lagun bati utziaz.

—Huts egin dot, orduan. Bueno, orain joan egin behar dot. Nobiak ikusten banau, hilgo nau.

—Nobia daukazu? Hori lastimea! Ez dozu gugaz gehiago jolastu behar?

—Gustora egingo neuke, baina ezin dot. Orain honek aska-tzen banau, joan egingo naz.

Neskatxa jaregin eta besteengana joan zenean, Unaxek, ur ertzetik, artean gorrituta, lagunei irribarreka zerbait kontatzen ikusi zuen, eskua zirraraz astintzen zuelarik.

Bai, orain burua kontrolpean zuen. Eguzkitan lehortu eta Atxarrera igoko zuen lasai jatera. Benetan ere belaunaldi berriek aurrekoek baino konplexu gutxiago zuten sexu kontuetarako...

Honetan zegoela, udako txingorrak igerilariak bezala, ahots ezagun batek harrapatu zuen ustekabeen. Alde batera begiratu eta Bibiot ikusi zuen, beragana zetorrela, hau ere larrugorritan, eta ezpainetan amamak kontatu berri dion ipuin miresgarria sinetsi duenaren itxurak egiten dituen umearen irribarre. Hau bai ez zuela espero... Edo hobeto pentsatuta, zergatik ez, Bibiot izanda?

—Hau dok hau! Zer, neskatzak ikusten zatoz honaino? —galdetu zion Unaxek, agurtzeko eskua luzatuz.

—Ikusi dodanetik, beste nonor da neskatan ibili dana —Bibliotek, eskaintzen eutsan eskua hartuta—. Atzoko afariak ez zaitu ase, ala?

—Ixo, surluze. Ez dakizu ohe kontuak ez dirala hordik zabaldu behar, ala?

—Bueno, bueno. Gitxienez ohe kontua egon dala esan gura... —eta txantxetan zebilela adierazteko, sabelaldean kolpetxo bat emanda, barre egin zuen—. Lasai, ez deutzazu ezer kontau behar barritsuoni. Harritzen nauana da zu hemen ikustea.

—Ba, egia esan, ez daukat honako ohiturarik. Barrua garbitzen etorri nazela esan lei —eta azkar, azken hau oharkabean igarorarazteko, jarraitu egin zuen—. Zu ikusteak ez nau harritzen, oster.

—*Hombre*, Mundakan egonda, minutu bateko kontua da. Neska bategaz nago. Han atzean daukazu, haitz horren ondoan etzunda. Zatoz ezagutzen, Sopolakoa da.

Halaxe ba, hasieran ikusi ezin izan zuen bikotea zen. Bibliotek adierazitako lekura begiratu eta han zegoen, honek esan bezala, neska bat eguzkitan. Eta bai neska ederra, gainera... Unaxek sentitu zuen, lagunaren neska biluzik eta bera bero zegoelarik, ez zela unerik egokiena hura ezagutzeko, eta atzera egin zuen.

—E, beitu; honek lotsa apur bat emoten deust, ze, egia esan, ez nago ohituta holan, jentearen aurrera biluzik agertzen eta... —desenkusatu zen, benetan inoren aurrean biluzik egoteko arazo handirik eduki ez arren— holango unean aurkeztu behar...

—Gugaitik ez zenduke estutu behar, guretzako hau dana arrunta baino arruntagoa da eta. Badakizu, ni gaztetarik etorri naz hona eta berak be ez dauka ezelako arazorik, baina aituten deustut. Ez da gauza bera neskabila ezezagunen aurrean agertzea edo ezagunen aurrean —Unaxek, polizia bat hil berri duen eta kide bihurtu nahi duen gaizkileari bezala begiratu zion—... Ez, ez deustut txarrean esan, egia da; edonori gerta lekio. Egun baten

neure etxera etorri behar dozu eta orduan neure neskaren argazkiak erakutsiko deutsudaz, ze bera nahiko urrun dago oraindino, badakizu... Zergaitik ez gaur bertan?

Apurka-apurka, Unaxi topaketa honek sortutako asaldapena lurruntzen joan zitzaion. Bibioti afariaz mintzatu (jandakoaz bakarrik), eta hegaldatzeko gogaldi egokia galdu nahi ez duen lamaren antzera, ahalik eta azkarren agur esan (agian gero ikusten joango zitzaiola gaineratuz), eta mendi tontorreko baselizarantz (kasu honetan sekulako elurretan murgilduta ez zegoena) abiatu zen, ordurako eguzkia idor zegoelarik.

Larrabasterrako Barinatxe hondartzan, Ainhize eta Karmele eguzkitan ajea gainditzen ahalegintzen ziren, elkarren ondoan etzanda. Buruko mina itzela izan arren, Ainhize pozik zegoen eta Karmele baino ez zuen ondoan nahi. Artean zeruko andereak ez zuen agorrrilean beste berotzen. Hagatik, eguratsa ezin egokiagoa zen eguna hondartzan emateko, eta aitzakia ezin hobea, ajea etxean, amaren begipean, ez igarotzeko. Coca cola bana (edabe miragarria, holakoetan) eskuan zutela, betaurreko beltzek begiak ezkutaturik, isilari eman zioten hitza. Jende gutxi zegoen, eta ez zuten gehiago behar. Itsas naietan surfzale pare bat, taula inoiz uzten ez duten horietarikoak, eta ur ertzetik ibiltzen jubilaturen bat, txakur bat, olatuei haginka egiten saiatu eta ahoa bitsez beteta zaunka egiten ziharduena. Ertzaintzaren helikopteroa birritan edo ikusi zuten ortzia zeharkatzen, holako egunetan, artean, sorosleen faltan, itsasaldea jagoten zutela.

—Hau goragalea, uste dot oraingoan coca colak be ez deustalaba bape lagunduko —esan zuen Karmelek.

—Goazen uretara, on egingo deutsu.

—Hori uste dozu?

—Bai, neska, ikusiko dozu.

—Jantziko dozu goikoa? —itaundu zion Karmelek, alboan zeukan bikini zatia harturik.

—Ez, nik ez. Itxizu, ez jatzu gustetan olatuen artean titiak aske igartea?

—Bai, jakina, baina niri apur bat gehiago higitzen jataz, badakizu?

—Bueno, ez sartu nire neurriakaz, e?

—Dana dala, gaur ez dago ezer aitatzekorik hondartza honetan.

—Niretzako orain ez dago bat baino aitatzeko, *asi que* bardin deust.

Neskatxa biak zuzendu ziren uretara, arineketan. Lehenengo naien gainetik jauzi egin, oztopo probetan arituko bailiren, eta ura izterretik gora iristen zitzaiea, jauzi egin ziren, barreka. Ainhize inoiz baino alaiago eta sentikorrago zegoen, xehetasunik txikienaz gozatzeko gertu. Itsasoaren besarkada sentitzen zuen azalean, gorputz atal bakoitzean, oztopo barik, eta irudi egiten zuen zelakoa izango zen Unaxen azal epelak inguratzen zuen uea. Haren irudimenean ur fresko hark atzamarren ukitua hartzen zuen, bularra hotzak gogortzen zionean. Urak kanpotik bakarrik hartzen zuen, baina berak barrutik ere beteko zuen ordua antzeman nahi zuen. Egun bi, besterik ez...

—Ainhi, oka egin behar dot.

Tamala zen hodeiertzean lanbro apur bat egotea, hola Iparaldeko lehenengo zantzuak ere ezin igar zitzakeen. Gipuzkoa aldeko mendi batzuen irudi ezabatua bai, ordea. Baina nahiago zuen begiak beste aldera itzuli, Mundakako itsasadarrak margotzen zuen bide bihurriari jarraitu, eta Mundakako barra itxuratzten zuten itsas naien marra meheak, han behean, urrun, geldirik ematen zutenak, ikusi. Zorionez, egun hartan inork ez zuen Atxarrerera igo. Otartekoa patxadaz jan eta noiz edo noiz zahatotik Arabar Errioxako ardoari arimaren tanta batzuk ohostu bere gogoa betetzeko. Hura zen bizimodua! Zer gehiago eska zitekeen, eta gainera goizera arte haragiaren beharrak betetzen egonda gero?

Otartekotik piper-gorri zati bat atera, eta atzamarretatik zintzilik utzita, mihiaz ahoratu zuen, ondo dastatuz.

Baina zaila izaten da bolada osoan dena ona izatea, eta lege hau betetzen laguntzeko hara non agertu zen igandekari talde oso bat, argazki-makinak, lapikoak, irratia, eta egun zoragarria izorratzeko behar den guztia aldean zekartela. Ordua zen, beraz, lagunari agerralditxo Mundakara egiteko.

Ez zuen gogoko han egon izanaren zantzuak mendian uztea; beraz, hondakin guztiak poltsan bildu, zahatotik beste zurrutada bat egin, eta alde egin zuen gurdia utzi zuen lekuraino zeraman bidezidorretik. Ez zeukan presarik, baina mendizaleen urrats biziari heldu zion, ohitura zuenez.

Lehenbizi Antzorapera jo zuen atzera, ea Bibiot artean handik ote zebilen jakiteko, Mundakara alperrik joan barik. Inondik ikusi ez zuenez, Mundakarako bidea hartu zuen; Gernikan gelditu zen lehenengo, han opil batzuk erosteko, hain gogoko zuen opildegian... Bibioti ere gustatzen ote zitzaizkion! Baina lagunarekin jateko nahi bazituen ere, ezin eutsi, poltsa ireki eta bat jan barik... Gurago zituen esnetan bustita, bigunduta, horrela apur bat idor gertatzen ziren, baina ondoan edukita tentazioa handiegia zen, eta berak modu bakarra ezagutzen zuen tentazioak hiltzeko: eurretan jaustea. Handik aurrera inon geratu gabe jarraitu zuen zuzen-zuzen Mundakaraino. Gutxi gorabehera bazekien, Bibiotek esanda, non zegoen haren etxea. Zailagoa izango zen holako asteburu-egun eder baten aparkalekua aurkitzen. Hortaz, burua lar nekatu barik Portutxura gidatu zuen, zuzenean, eta kiroldegiaren ondoko zabalgune harritsuari utzi zuen, han, uda ez zen denboran, lekuren bat beti zegoela bazekien eta.

Gurditik irtetean atzeritar talde handitxo bat ikusi zuen, alemanak antza, inguruetara begira, seguruenik haiek ere ibilgailuak han inguruan utzita. Kiroldegiko hegaztegiaren gazteek futbolearen zihar-duten, ume batzuk euren txandaren zain jesarlekuetan zituztela.

Ez zen luzaro ibili lagunaren etxearen bila. Eraikina zaharra zen, gehiena zurez egindakoa, eta sitsak utzitako hautsa ugari

zuena. Ate ondora iritsi orduko, gitarra zorrotzen hotsa entzun zuen bestaldetik. Badaezpada gogor jo zuen txirrina, eta berehala hurreratu ziren urratsak barrutik. Bibiot bera agertu zen atera, ile busti eta nahasiaz. Laguna ezagutu zuenean irribarrea marraztu zen haren ezpainetan.

—Aupa, txo, ez neukan zure itxaropenik gaurko; hau ezustea! Konturatuko zinan dutxatik urten barri nagoala. Aurrera, bakarririk nago.

Unax besteak luzatzen zion eskua hartu eta barrura sartu zen, ingurura begiratzen zuela.

—Garagardorik gura dozu?

—Txekiar garagardo gozo horreetarikorik badaukazu?

—Jakina ba, Staropramen ala Budweiser? Gaur ez daukot Pernštejn; ha gitxitan zuzendu ahal izaten dot —Unaxen begiek jera ona egin zioten bigarren izenari.

—Budweiser, benetan Txekiakoa bada; tabernetan ha amerikar txiz hotza baino ez da topetan. Egunen baten, aldatzeko, poloniar garagardoa probau behar dozu, Warka Strong, adibidez, baina gure merkatu urri honetan nekez topauko dozu...

Bibiot hoztegraino joan eta garagardo bi eskuan zituela itzuli zen, biak irekita.

—Eutsi, hau egon seguru České Budějovicko dala, ez dauka besteagaz zerikusirik. Baina hobeto egongelara bagoaz, eroso-ago egongo gara.

—Ez deustazu zeure gelea erakutsi gura, ala? —ihardetsi zion Unaxek, txantxetan—. Norberaren logelak erakusten dau ondoen norberaren izaerea.

—Tira ba, ez dago gauza handirik erakusteko. Itxaron, musikea amatauko dot, osterantzean berba be ezingo dogu egin —musika katearaino heldu eta Wanastowi Vjerci isildu egin zen.

Baina Unaxek, erakusten zuena baino jakin-min handiagoa zuen Bibioten logela zelakoa zen ikusteko. Gela txikia zen, baina nahikoa apaina, batez ere hormak. Txintxetek eutsirik zenbait hormirudi zegoen: Bilboko Athleticena (nahikoa handia), Euskal

Herriko paisaiak, eta gehien harritu zutenak, *animeko* batzuk: Dragoi Bola, Ghost in the Shell, Ultimate Teacher eta Dominion Tank Police, azken bi hauen marrazkirik handienak neskatila eder eta ezaugarri nabarmenekoak zirela.

—Oraindino be ikusten dozuz marrazki bizidunak? —galde-tu zion, apur bat sinesgogor.

—Bai, zer ba? Ikusiko bazendu bideoan daukadan bilduma, harrituko zinake. Ehundik gora, txo. Tamalez danak dagoz gazte-leraz, ETBtik hartutako Dragoi Bolako berezi batzuk izan ezik. Hemen komiki eta marrazki bizidunen industria gitxi dago, honek gauzok euskeratuta jaristeko.

Leihoaren aurrean ordenadorea zegoen, pizturik, eta pantailan neska gazte eder baten argazkia.

—Zer, idazteko prest, ala nesken irudiak ikusteko... —itaundu zuen Unaxek maltzurki.

—Hi, hori nire neskea dok. Jakina, oraindino ez deusut haren argazkirik erakutsi, ni bai ergela!

Unaxek teklatuaren ondoan zegoen markoa hartu zuen. Barruan Bibiot ageri zen, pantailan ikusitako neska berari helduta, irribarre urtua ezpainetan. Unaxek ere irribarre egin zuen, atseginez.

—Egia da, hemen be oso dotore dago... Bikote polita egiten dozue, txo —Bibioti bularra harrotu zitzaion hitzok entzutean.

—Zuk uste? Bai..., hain da ederra nire loretxua. Gaur nengoan eskutitza bidaltzeko.

Unaxek mahai gainean zegoen paperari begiratu eta, ia ohar-tu gabe, irakurtzen hasi zen: “*Ahoj, moje Aničko, lásko má; jak se máš?...?*”.

—Joño, zer da hori... Ai, barkatu, irakurtzen hasi naz eta... Txekieraz dago hori?

—Bai, bueno, baina ez uste, beste guztia ingelesez dago. Txekiera gatxegia da gauetik goizera idazten hasteko. Inoiz ikasten ahalegindu nazan hizkuntzarik gatxena da. Cogoko dot eskutitze-tan Ani?kari berbaren bat bere hizkuntzaz zuzentzea, baina ia beti berba berberak. Berak be badaki berbaren bat euskeraz.

—Ta... jakingo dozu ‘maite zaitut’ esaten, ezta? —eta ukon-  
doz jo zuen urdail aldean, lagunkoi.

—Bai, hori da ikasi neban lehenengo berbea, *miluju tš*. Baina  
goazen egongelara, han berba egingo dogu hobeto. Hamen ez  
dago zer ikusi gehiago.

Unaxek laguna artegatzen hasi zela igarri zuen. Oroit mina,  
bururatu zitzaion. Hain urrun egonda, laztan mina ere baietz,  
egin zuen berekiko. Pentsamenduen norabidea aldatu gurean,  
eskuan zuen poltsatxoaz gogoratu zen, hasieran baino hustuago  
zegoela.

—Ai, ia ahaztuta egon naz. Beitu, opiltxo honeek erosi dodaz  
honantzean, zugaz batera jateko —Bibiotek besteak erakusten  
zion poltsa eskuetan hartu zuen.

—Baietz Gernikan erosita egon. Gozoak dira bai, baina gara-  
gardoaz lagunduta jateko... Tira, honek amaitutakoan akeita  
egingo dot, opilak jateko. Nik ez dot akeitarik hartzen, baina egun  
bategaitik, zuri laguntzeko...

Lagun biek lekua hartu zuten egongelan, besaulkietan patxa-  
daz jesarrita. Unaxek alde guztietara arretaz begiratzen jarraitzen  
zuen. Azkenean buruan zerabilenaz galdetzea erabaki zuen.

—Aizu, hamen ikus...

—Kontuz, ez itxi botila mahai gainean, ze marka itxi ezker-  
o amak neu garbituko nau. Hor dozu azpikoa —eten zion Bibiotek.  
Unaxek men egin zion—. Barkatu, moztu egin zaitut. Zer esateko  
izan zara?

—A, bai. Dinot, sartu nazanetik margolan asko ikusi dodaza-  
la hormetan, zeure gelan izan ezik. Leku guztietatik dagoz.

—Bai, amarenak dira. Ez deusut inoz esan gure ama margo-  
laria dala? Ba, berarenak dira. Gehienak zaharrak, gaztetan egi-  
nikoak, baina azken boladako baten bat be badago.

Ama margolaria... Unax pentsakor lotu zen une batez, Bibio-  
tek garagardoari aho gozo osoa ateratzen zion bitartean. Gero  
gauza batez eta besteaz jardun zuten. Bibiotek argazki ugari era-  
kutsi zion, bai bere neskarenak, bai lagun eta senideekin eginda-



koak. Argazkizale handia zen, nonbait. Eginbidean zuen eleberri baten orri batzuk ere atera zituen, olerki zaharrak, ipuinak eta marrazki lizun batzuk ere bai. Ez zeukan esku txarra, nesken gorputzak paperean ipintzeko, bederen. Idatzitakoa, ostera, ez zion bertan irakurtzen utzi, lotsatu egingo zelakoan. Egunen baten, nahi izanez gero, zer edo zer etxera eramaten utziko zion, bera aurrean egon barik irakur zezan.

Esan bezala, garagardoak amaitu eta Bibliotek akeita usaintsua ekarri zuen, opilekin jateko. Bien aurrean Biblioten umetako zenbait irudi. Unaxek gero eta hobeto ezagutzen zuen Bibliot hitzuna, ia-ia hitzontzia. Bere barrua hustu nahi zuela zirudien, gogo biluztu besteen aurrean alaitasun osoz, eskuak mugituz eta aurpegiera oso adierazgarriak agertuz. Umorea eta zipriztin gordinak ere ez ziren falta izan, eta batzuetan Unaxek gustura barre egin zuen gainera. Bibliotek, opilak kafesnean bustitzen zituen bitartean, hitz egiten zuen.

—Gure amak be askotan erosten deuskuz holakoak, baina goxoagoak ziran berak egiten ebazanak, gu umemokoak baino ez gintzazala. Orduan etxe aurrean egoan dendatxuan erosten genduan esnea, hango andreak baserrian eratsi barria, eta gero etxean egosita kipur guztia kendu, ze pilo batek urteten eban, eta amak gorde egiten eban opilak egiteko. Tira, askotan aitak eta anaiak jaten eben azukereaz, koilarakadak, baina nik hori ez neban oso gogoko aldi haretan. Nik beti kentzen neban kipurra esnetatik. Baina ze gozoak amaren opilak! Gogoan dot zelan ataraten ebazan labatik ezkaratzeko marmol gainera, eta gero plateretan imini eta geuk gura genduan beste jan ahal izaten genduan, amaitu arte. Honeek baino sendoagoak ziran hareek, tripea betebete egiten genduan amaren opilakaz.

Amaren opilak... ama... non geratu ziren amaren laztanak... Unax harritu egin zen ohartu zenean zein ondo eta argi, aurrean balego bezala, gogoratzen zen euren amarekin. Hainbeste gauza, hainbeste jende, hainbeste gizaldi gomutaren galbahetik galdu ondoren ere, amaren irudia, aurpegia, usaina, ahotsa garbi-garbi

zetozkion begi aurrera. Baina guztiarekin ere, ezin gogoratu zuen ama edukitzea zer zen. Seme sentitzea zer zen. Hori guztiz lainoturik agertu zitzaion. Baina handik aurrera, hizketaren norabideak hainbat aldaketa berri eginda, lagunaren zoko ezkutuak argira eroanda eta galdera askotatik trebeziaz itzuri ibilita, azken gogoetok ezin baztertu izan zituen.

Eguna amaierarantz abiatu zen, eta Unax gurdian zegoen belutu baino lehen, Bilborako bidean. White Zombie ozen entzuten zen, baina ez hausnarketak estaltzeko beste. Gurpilak errepidea erre beharrean zebiltzan, Sollubetik behera; Larrauri atzean eta muturra Mungiarantz, kilometroak irentsiz, baina, zer zen amaren beroa sentitzea...?

## XIII

Astelehen goiz hartan, ikastetxeko ikasle eta irakasle askoren ahotan ez zebilen beste gairik: Joxe atxilotu zuen Ertzaintzak barikuko istiluetan eta artean ez zen eskolara agertu; goizetik epaitegian hitza hartzen ari ei zitzaizkion. Patxi, haren lagun mina, zebilen batez ere urduri. Haren esanetan, larunbatetik ibili zen harekin hitz egin nahian, baina alperrik, ez ei zen modurik egon inon topatzeko. Larunbat egun osoa komisarian eman ei zuen, eta igandean batek daki non, etxean ez ei zuen inork telefonorik hartzen eta.

Ez zegoen argi zertan harrapatu zuten. Batzuek ziotenez, suhesien atzetik *beltzei* harrika ziharduela, manifestarien artean nahasturiko ertzain bik atzeman ei zuten, eta ezertarako astirik eman barik, furgoian sartu. Beste batzuek ziotenez, istiluetatik nahiko urrun harrapatu ei zuten, beste lagunekin batera zerbait larriagoa egiteko gertu, baina inor ez zen ausartzen zerbait hori zer zen zehazten. Jakina, askok zioten komisarian jipoi galanta hartu, eta domeka erietxean eman zuela, kolpeak ezkuta ziezazkioten epailearen aurrera agertu baino lehenago. Hau zen Gestorek zabalduriko esamesa, Joxerekin batera atxilotutako bederatzi lagunen gainean.

Zurumurrak zurumurru, Joxe hamaikak inguruan iritsi zen aitak gidaturiko Peugeotaz. Aitak, oster, ez zion barruraino lagundu. Joxe burumakur jaitsi zen, leihoetatik begi asko beragan iltzatuta zituela (batzuek aita jaitsi aurretik kokotekoa ematen

ikusi zutela zabalduko zuten), eta behera begira ibili zen ataritik aldentu artean.

Joxek horrezaz guztiaz esango zituen apurren artean, jipoiaren kontua gezurtatzea egon arren, furgoian sartu eta handik ateratzeko bultzakada zakar batzuk edota mehatxu eta irainak ez baziren, artean ibiliko zen baten bat, esaten zuena gorputzean sarturiko beldurraren emaitza zela guztiz sinisturik, eta disimuluz kolpeen zantzuren baten bila, alperrik (benetan ondo lan egin ei zuten erietxean holako gauzak ostentzeko, alajaina). Bazirudien kartel batzuetan ikusitako benetako torturatuen irudien morboa bilatzen zutela batzuek. Eriden ahal izan zen gauza bakarretarikoa, ordea, eskuetan burdien behealdeek barrikadetarako bidean utziriko ildo ia ezabatuak ziren; gurdiren baten motorea artean beroegi, antza. Dena dela, ahalegin guztiak eginda ere, inork ez zuen lortu Joxeren ahotik berri handirik ateratzea. Honek baketan uzteko eskatu zien batzuei eta besteei, kopetilun; gogoratu beharra batere gozoa ez zitzaiola gertatzen, edozein kasutan.

—Ikusten dozu? Planak egitea alperrekoa da. Egizu nire moduan: planak gaurko gauetik aurrera ez dira igaroten —Arantxak nabarmendu nahi gabe begiratu zion bere lekutik, hau entzunda.

Bibioti planak zeintzuk ziren itauntzea bururatu zitzaion, jolasti, baina Arantxa ere mahaiaren beste aldean zegoela kontuan izanik, txantxei bere golkorako eustea erabaki zuen. Gustu txarreko esanak gai ez-pertsonaletarako uztea hobea...

Planak oso aurretik zeuden gertu. Hori zen egia. Baina, egia esanda, berak helburuen bide nagusiak baino ez zituen zehazten. Beste guztia ibilian asmatzen joateko, aldatu, dastatu, jolasten joan ahal izateko uzten zuen, ezusteen esku. Hau aspaldi-aspaldian ikasi zuen: gauzak zenbat eta zehatzago planifikatu, orduan eta aukera askoz gehiago dena hankaz gora geratzeko. Eta horrekin batera, helburua hutsik egin gabe jotzeko trebezia ere aspaldi bereganatu zuen. Pazientzia zen lehenengo legea, ia bakarra, bere arreba Idari artean ezin irakatsi izan bazion ere. Dena dela, Idak ez zuen inoiz pazientziaren beharrik, berarekin baino; nahi zuen guztia, sagar zuhaitzetik erori berria lurrera makurtu hutsaz hartzea bezain erraz lortzen zuen beti. Lortzearen atsegina zen hura, bideak aspertu egiten zuen; Unaxen atsegina, ordea, ehizarena zen; ehiza eta bereganatzearena, baina ez zuen bata bestea baino atseginago. Halabeharrez ikasi zuen eurentzat presak ez zuela lekurik, denborak ez baitzituen inoiz inora eramango. Zer gehiago nahi zukeen berak hainbestetan...

Ainhizeren logelan ez zen giro. *After-suna* gorputz osoan zabaldurik, minutuak, segundoak zenbatzen zituen Ainhizek etxetik irteteko. Ordubete Unax ikusi gabe mundu oso bat bazen, egun batzuei, ia astebeteri, eternitatea zeritzon. Lau aldiz ipini zuen armairua hankaz gora, jantzirik egokiena aukeratu baino lehen, eta jantzi-erantzi zen guztietan, giltza poltsikoan zeramala behin eta berriro egiaztatu zuen.

Haren konpaktoan ere girotzeko musika egokia jarri zuen, beste batzuetan baino lasaiagoa, baina rockaren ildotik urrundu gabe. Beraz, Sasoi Ilunaken doinuak, Txumaren ahots hautsiaz eta hitzen zalantzarik gabeko zentzuaz, barnean berez zuen sua areagotzen laguntzen zion.

Nire ganbararen sakonian  
gorderik daramadan nik



maite haunak, ezpain mamitsu eta lehorrak.  
Ohe zabalegian jotzen dinat nire sexu motel eta  
puztuaz, puztuaz, puztuaz

—Ezin dut gehiago... Hau zoramena da... Zergatik egiten duzue hau... —ahotsa arnasaren erritmo etenaren arabera hausten zen, eutsi ezinik. Atzazalak izaretan sartzen ziren zorrotz, norabait heldu beharrean.

—Gustatzen jatzu, ala ez?

—Bai..., bai..., bai...

—Eta ez dozu gu gelditzea gura...

—Ez dakit..., ez dakit...

—Hik zer usten dona? Emakumea haz, hobeto ezagutzen dozana.

—Ezetz. Bero-bero jagona. Ez dok ikusten izarak aldatu beharko dozanala?

—Zelan... zelan sartu nauzu hemen?

Arantxak, neba-arreben eskuetan, atseginak alde guztietatik iritsirik buru barruan zer bait apurtuko zitzaiolakoan, mamarro erraldoi baten amaraunean sentitzen zen, haren ziztadaren pozoia liluraturik eta gorputz adar guztiak indargeturik. Eta ez zuen argi bereizten egoera hartatik askatu nahi zuenentz. Egia esan, guztia zelan hasi zen eta bera zelan iritsi zen puntu hartaraino ere ezin zehaztu zuen. Ez zekien aurretik hura saihesteko aukerarik izan zenentz, ezta ze unetan hasi zen bide hartarantz jotzen. Dena ilun eta nahasi zegoen haren burmuinetan, eta ukitzen zuen eskua Unax ala Idarena zen ere ezin bereizi zuen. Bakarrik ezagutzen zuen Unaxena zen gauza bat, halaberrez harena behar zuena, eta bere azala edo barrua erretzen sentitzen zuen bakoitzean, kristal zorrotz eta finezko zeru baten aurka eztanda egingo zuela begitnantzen zitzaion.

Kaleko hego-haize beroak agurtu zuen ataria zeharkatu orduko, minigona aireratzeko mehatxuaz. Esku batez atzetik helduta, autobus geltokira zuzendu zituen urratsak, giltzaren metalezko hotza aspaldian epeldurik zegoela bere eskuaren beropean.

Higanat erakarri nindunan  
hire ohatzian leku egin yidan  
dakitan geyena ekutsi yidan:  
letretan, musikan, larrutan

Bai, Txuma Murugarrenen ahotsaren oihartzunak artean errepikatzen ziren Ainhizeren gogoeten artean. Bizitzako gertaera guztiak daude aurretiaz abestietan; edozein une bizi duzula ere, guztiz egokitzen zaiona aurkitzen da. Baina, abesti osoa gogoratutik, guztiz bat etorriko ez zela zioen bere baitan, beste bertsoak errepikatu ahala.

—Ito behar dut. Hau lorra, zoratu egin gara.

—Ez, Arantxa, hau da zentzua, berreskuratu doguna. Baietz aspaldian ez lez gozaten zagozala —erantzun zion Unaxek, bestearen bilo ilunaren artetik, ezpainez ezpain, mingainak isuri labainkorra eragiten zuela ezari-ezarian.

Arantxa ihardesten saiatu zen, baina Idak ahoa bete zion bere eztiatz, belaunak ohe buruan, lepa hezurak katu malgutasunez barrurako arkua marraztuz, adats beltza Unaxen sorbaldak laz-tantzen.

—Eta onena oraindino iristeko... —esan zuen ahopeka.

Igogailua zegokion solairuan gelditu zen. Ez berak ohi zuen bezain ausart, baina oinak ezagutzen zuen aterantz zuzendu zituen. Ate aurrean gelditu, eta deitu gabe, zuzenean sartu behar zuela gogoratu zitzaion. Agian artean ez zen etxean egongo, baina

egun batzuetan kabi bihurturiko logelan itxaron zezakeen. Ertzak azala mintzeraino estutu zuen giltza esku barruan, patrikatik atera baino lehenago. Sarrailan pausatu, astiro barneratu, eta behin baino ez zuen itzuli behar izan. Etxean egongo zen ordurako, seguruenik. Ateari bultz egin, eta barruan zen. Ezkaratzeko argia amataturik zegoen eta berak ere ez zuen piztu. Pasillorantz abiatu, eta hango atea gertu zuenean, barrutik zetozen arnas antzeko hotsak iritsi zitzaizkion... Belarria erne, hitzik atera gabe, senak isiltasuna eskatu balio bezala, aurrera egin zuen. Arnasak ziren, zalantzarik gabe, baina azkartuak, etenak, hautsiak, sakonak... Bihotzak txokorik urrunenean ezkutatu nahi izan zion, uzkur. Zerbaitek itzuli eta arineketan alde egiteko eskatzen zion, aldarrika, baina hara joan behar zuen, logelara, non Unaxek itxarongo ziola esana baitzion. Buruak gero eta ozenkiago zulatzen zion ari-ma, kantuaren beste bertsoez, ahots hura isildu, ukatu nahi bazuen ere, indar osoz. Baina ez zen, ez, isilduko.

Ta gero traizione, ta gero traizione  
beltzena egin yidan,  
ta gero traizione, ta gero traizione  
alu, alu, alu alena, beltzena egin yidan.  
Higanat erakarri nindunan  
hire ohatzian leku egin yidan...

Ez, kantuek ez zekiten guztia. Guztia ez zen betetzen. Alderdi batzuetan bakarrik zetozen bat bizitza eta abestiak...

—Mesedez... eman atsedena... leher eginda nago... Bihar ezin ibiliko naiz...

Unax azken erasoaldirako, azken isurialdirako prestatu zen. Arreba aserik utziko zuen denboraldi baterako, bereari lasai ekin ahal izateko. Gainera, Arantxarekikoa eginda zegoen. Bat gehiago, eta handik irtenez gero, lotsaren lotsaz, ez zen berriro ausar-

tuko besteen aurrean begietara begiratzen, ezta berarekin berriro geratzen. Ez zuen arratsalde hura ahaztuko, baina errepikatzeko adorerik ere ez zuen izango. Gainera, onartu behar zuen ondo pasatzen ari zela joko harekin. Bultzada pare bat gehiago, eta...

Logelako atea hotsik atera gabe ireki zen, astiro baina zabal-zabal. Bestaldean, neskatala margul eta izutu baten aurpegia ikusi zuten hirurek. Gorputza dar-dar, ikusi gabe begiratu zuten. Arantxaren odola izoztu egin zen, ezer ulertzen ez zuela. Egia esan, pertsona bakar batek ulertzen zuen gertatzen ari zena. Hiru gorputz biluzik, korapilaturik, izerdi eta sexu usain sarkorra, gela itogarri eta iluna, neskata ilegorria atean iltzaturik. Denboraz ezin neurtu den dimentsio baten menpe. Segundoa, bere ehuneko guztiak agortu nahi ezean.

Malko txiki baten distirak eten zuen segundo amaigabearen lilura. Baimenik eskatu gabe, tantak bere bidea egin zuen Ainhizeren masailetik, neskatalak itzuli eta arrapaladan alde egin baino lehenago. Ez zuen negar egin nahi, are gutxiago txerri nazkagarri haien aurrean. Gorroto zien. Bertan hil nahi zuen, ulertzen saiatu behar ez izateko.

Inork mugitzea lortu orduko, atearen danbada entzun zen. Unaxek, artean burua guztiz nahasirik, altxatu eta lasterka irten zuen atera, biluzik egoteak ardura izan gabe. Neskatalaren izena errepikatu zuen oihuka, baina alperrik. Urrun zen ezer entzuteko, buruz eta gorputzez.

Arantxak, nahasmena ulertzen hasita, ahal izan zuen moduan jantzi, bere gauzak bildu, eta negar baten alde egin zuen, ahal bezain azkar. Bizitza osoan ez zen hain iraindurik sentitu.

Unax bakardadera itzuli zen, Ida ere desagertua baitzen. Burmuinak erretzen, ohe gainean etzan zen, kaosaren erdian abandonaturik, gogoa azala baino asago. Zer egiten zuen Ainhizek beraren etxean? Zelan sartu zen haraino? Hango izara bustiek ez zioten, baina, erantzungo.

## XVII

Ukabilkada zoli bat izan zen pasabidean jaso zuen agur bakarra. Beste inor ez zegoen aurrean eta Bibiotek, ikusi bezain laster, zuzen jo beragana eta ezkerreko masaila astindu zion gogoz. Ezpainak desagertu artean estaturik, erdeinu eta herraren arteko begiez begira geratu zitzaion, isil-isilik.

Unaxek ez zuen eraso itzultzeko keinurik egin, ezta min hartu zuela adierazten zuen ezer agertu. Begirada urrunaz segundo batzuetan so eginik, guztiz hotz, sentimendu izpirik azaldu barik, mintzatu zitzaion:

—Barriak arin heltzen dira, antza.

—Hori da esateko daukazun guztia?

—Zertarako gehiago, guztia dakizu eta. Holakoa naz.

Bibiotek goitik behera aztertu zuen, neurria hartuko balio bezala, keinua aldatu gabe.

—Eta oraindino hona agertzen ausartzen zara...

—Hemen behar egiten dot, honen ostean bota egiten ez bana-be, behintzat.

Bibiotek tristeziak jaitsi zituen begiak, burua alde batetik bestera mugitzen zuela, balantzaka. Zirudien une batetik bestera negarrez hasi behar zela. Begiak jaso ezin zituela, jarraitu zuen:

—Ez dakit nondik hasi be.

—Nigan ipinitako uste ona saldu dodala, agian?

Buruaz ezezka bezala, berriro begietara begiratu zion.

—Ez dakizu ezer, ezta? —Unax zer erantzun ez zeukala geratu zen—. Ez dakizu, eta seguruenik ez deutsu ardura be. Ez dakit

nor zan gehien ardura eutsuna, segurutik ez bata ez bestea, baina guztiz harro eta pozik sentitu zaitezana, esango deusut Ainhize ospitalera eroan behar izan dabela. Zuzendaria eta beste asko han dira, goizeko lehenengo orduan deitu dabenetik. Ni hemen geratu naz, zu etorteari itxaroten...

Odola lehitzeko moduko naiek astundu zuten bereizten zituen tartea, bien ordeiz isiltasunak hitz egiten zuela. Eta Bibiot izan zen berriro aire beruna ebakitzeko aizkora atera zuena:

—Amaren lotarako pilulak hustu ei dauz. Iruditzen jat gogoregia izan behar dauala hamabost urteko neskatila batentzako maite dauan gizona holako egoeran ikustea. Gogorregia, agian nahikoa haren bizitza eroateko.

Eten labur baten ostean, Unaxek ezpainak mugitu zituen, hotz:

—Ze ospitaletan dago?

—Beste inork ez daki oraindino zergaitik egin dauan, baina nik ez deusut itxiko ha ikusten, nahikoa euki dau zugaz.

—Ez deusut baimenik eskatu, ospitalaren izena baino ez dot jakin gura.

—Eta..., Arantxagaitik ez deustazu ezer itaundu behar?

—Zuri guztia kontau badeusutu, iruditzen jat ondo egongo dala, ezta? Baina agian ez da ausartu dana kontetan. Agian ez deusutu esan ze ondo egon ginan igaroten, hirurok...

Bibiot mutu geratu zen, nondik jo ez zekiela. Zer esan nahi zuen “hirurok” horrek?

—Argi dago ez deusutula esan. Ikusten? Danok daukagu zer isildu.

—Ez dot ezer jakin gura, zein apurtuta itxi dozun jakitea nahikoa dot.

—Apurtuta, horixe da berba egokia. Seguruuenik ez dau atzoko esperientzia errepikatuko, baina seguru egon inoiz baino gehiago gozatu ebala be. Itaunduiozu ene partez ikusten dozunean.

Bibiotek ukabilak estutu zituen, baina barruan ez zeukan indarririk ezer egiteko. Gainera, hotzean pentsatuta, aurrekoaren

emaitza eskasa ikusirik, zertarako ahalegindu berriro. Duintasuna behar zuen, han ez zeudenen orde.

—Zuk ez daukazu ezer barruan, hutsik zagoz. Ez dozu ez moralik ez sentimenturik. Pena emoten deustazu, Unax! —esan bazuen esan zuen, baina egia esan, bera zen barru-husturik sentitzen zena Unaxen aurrean, indarrak, hausnartzeko gaitasuna, sentimenduak zurgaturik.

—Esan neutsun, ahaztu ez bazara, zeure testua erakutsi zeustanean, egunen baten han topautako egiari aurre egin beharko zeuntsala. Ez dakit sentimenturik daukadan, baina morala aspaldi itxi neban albo batera, halabeharrez. Nire lekuan edonork egingo eukean gauza bera, zeuk be bai... Baina zuk, inoiz esan deustudan lez, moral tinkoa dozu, holako gauzak idatzi eta anarkista izan arren. Lehengai ona eukiko zenduke liburu baterako, nire kondaira kontauko baneutsu. Harrituko zinake, eta bide batez, gizakien morala, etikea, legea eta zuzentasuna ze hutsalak diran aditu be bai.

Bibiot pentsakor geratu zen. Entzuten ziharduena ulertzen ez bazuen ere, zentzu osoa bederen, argi zeukan burua zeharkatzen ziona.

—Ez dot uste zu lako morroi batez ezer idatziko neukeanik, baina inoiz egin behar banegu, izenburua, behintzat, argi daukat: “Hamaika ispilu ganbil”.

Unaxek bekainak altxatu zituen, harrituta, baina ispiluek itzultzen zizkieten hamaika irudi deformatuen artean bere burua ezagutzen ote zuen itaundu zionean, galdera hori lar ezagun egiten zitzaiola aitortu behar izan zuen bere artean, bere buruarekiko zintzoa izanez gero. Dena dela, une hartan burua beteegi zeukan ezertan luzatzeko. Handik ez zuen ezer irabaztekorik, eta ordurako ikastolak ez zion ezer eskaintzen. Alde egitea hobe, Bibliotekin interesgarri bihurtzen hasi zitzaion elkarrizketa moztea bere damu bakarra.

Irudiek burua zeharkatzen zioten, bere etzanguan luze. Irudi ilunak, kolore biko irudiak, gorri eta beltzean. Irudi ahantziak, irudi mingarri eta mingotsak, iragan urrunekoak, batak besteari lekua azkar eta etengabe kentzen ziotenak. Brasilgo Legião Urbana taldearen “Quase sem quere” kantak ez zion burua argitzen laguntzen. Hitzak ez al ziren inoiz egiazkoak? Ia nahi gabe egin al zion horrenbesteko kaltea? Zer ez zuen ondo neurtu? Baina erantzunaren bila, aspaldiko partez lehen aldiz bilau sentiturik, iraganeko labana zorrotz gupidagabe haiek osten zizkieten orainaldiko irudiak. Eta Legião erasoka tematzen zen, “Tempo perdido”.

Burua astindu zuen, erretzen zitzaiola. Ezpatak airean, odola belartzan, gorpuak inguruan, maitasuna urraturik, bihotza azken aldiz erdibiturik, bizitza iraingarriro bere zainetatik saltoka igartzten zuela, inguruko odol lehor antzuki lurra busti duena madarikatuz. Andre zahar baten azal ihartua bere azal izerditsuaeren kontra, mutil gazte batena, neskatila hilotz batena, titi margul gogortuek zirkiniei uko egiten... Aiztoak airean, jantziak urraturik, indarrez hartu beharra, limurtasuna erabili beharra, arrebarekin azpi jokoaren emaitzak trukatzeko apetak... Behin izandako gurasoen negar arteko ehorzketa trumoitua, arbasoen azken gurpena euren etxe zaharraren hegaztegiepean; jauntxoek eskutiko garrak iraganaren azken kondarrak errautsetan deuseztatzen...; azken negarrak. Ehortziriko sentimenduak gorpu ibiltarien antzera lurra arrotzen haragi usteldua eta zornea ikusi nahi ez duen eguzki baten aurpegira azaltzeko...

Eta hainbeste aurpegiren artean, ikusi nahi zuen bakarra ostentzen zen, setati. Zigortu nahi bide zuen eginiko saldukeriagatik. Haren ordeztan, beste aurpegia agertzen zitzaion, bere oroitzapenen artekoetan bizirik zirauen bakarra, iruzurti, irribarre maltzur garailea eskainiz. Sama estutuko zion arnasa eten artean, baina ondoegi zekien ahalegin alperrekoa zela. Muga bat ezeze, ezarritako muga biak batera apurtzen saiatu behar al zuen, aurretik garaiturik zegoela sobera ezagaturik?



Borroka bakarra zuen Unaxek une honetan: aurkitu nahi zuen aurpegia, zeru, hodeiertz bakarra, buruan osotzea. Erietxe-ko ohean etzanda begitandu nahi zuen, baina burmuinak ere aurka bide zituen. Zurbil egongo zen, berez zena baino areago, bezuloak ilundurik, itxaroten zion amaiera ezagutu nahian, agian, ile gorria surik gabe, amataturik... Baina ez zion guztiz amatatzen utziko, ez horixe.

Beltz. Beltza. Beltza da, beltza duzu, beltza besterik ez zuretzako. Beltza duzu lagun bakarra eta gehiagorik behar ere ez, gainera. Kotoi beltza; iluna baina samurra, babesgarria, aterpe, abarro... Eta kanpoko arantza zurietatik urrun zauzka, leiar zorrotz mingarriei kanpoan eutsirik. Zertarako irtengo duzu, beraz, epeltasun itsu honetatik? Aitaren besoen indar kulunkaria sumatzen duzu, sumatzen du, aitaren irribarre beroa beltzetatik agertuko balitz legez. Eta seguruenik goiz, kotoi beltzen artean utziriko azken zirrikitua, nondik freskotasun eta argi puntu bakarra sartzen den, itxi bezain laster, aitaren ondoan zabalduko ditu begiak.

Badu Ainhizek begiak hango aldera zabaltzeko gogoia, baina, bestetik, presarik ere ez dago. Nagi da kabi ilunaren erosotasuna uzteko. Badaki zerbaitez babesten duela, bere izatearen zatitxo bati lokartuta eusten diola, eta hain erraza da han geratzea, izu guztiak ahantzirik...

Badauka jakin-min apur bat ere, beldurtzen duena zer den jakiteko, baina hori horma bigunaren bestaldean dago, zirrikiturik utzi ez duen aldetik. Errazagoa da, naturalagoa, beste mandan dagoen puntutxoa handitzea eta, burua aurretik sarturik, aitaren bila hastea. Hala ere zerbaitek eragozten dio. Badago gar txiki bat bere gogoaren lekuren baten dei isila luzatzen, otoi behin eta berriro errepikatu baten, zehaztugabeko esparru hartan luzatzeko eskatzen diona. Eta guztiz lokartu ez zaion senak aintzat hartzeko aholkaturik, kulunka jarraitzea erabaki du neskatilak.

Kotoizko kuskua hura zelan eta zertarako eraiki zuen baleki, agian irekitzen nondik hasi jakingo...



## XVIII

Aparkaleku bakarti isilerantz ematen zuen leihotik, kale argien izpi urdinxkek pertsianen marra etenak marrazten zituzten, luzatuz eta moztuz, izara zurien tolesduretara egokituz; belz-tasuna mozten zuen argi bakarra. Aire ilun epela betetzen zuen aldikako hots mekanikoak, makinaren kableen bestaldeko gorputzak aldaketa berezirik gabe jarraitzen zuela adierazten zuen. “Pip”. Beste suero tanta bat jausten zen gomazko hoditik. Tantak eta marra berdearen goitik beherakoak ziren denboraren igaroaren adierazle bakarrak. Gelan igarotzen zen denborarenak, ohe barruko gogoan denbora neurtzeko parametroak aldatu baitziren, neurgaitz bilakaturik.

Kanpotik, ohe ertzetik, beste begi pare bat zituen begira, ohi-ko hoztasuna zertxobait urratzen zutenak. Baina begirada honetan ere ez dago minutuak neurtzerik. Greziako estatuen betikotasunaz begiratzen dio, irmo.

Ez du sinistu hileetan ikusitako aurpegi bizia hain bizigabe egon daitekeenik. Basurtuko erietxerainoko bidea ez zen aurkitzen zaila izan, Bibioten buruan errepedetako jarraibideetan baino argiago irakurtzen baitzen, baina orain aurrean zeukan Ainhizeganako bidea aurkituko ote zuen ez zekien hain seguru.

Eskua masailean ipini zion, laztankiro. Hotz zegoen, hotz eta izerditsu, begiz igarri ez arren. Atzamarra betzulo ilunetik biribilka ibili zen. Ile amatatua ferekatu eta eskua hartu zion. Neskati-larenak senez estutu zion, indarge, dena dela. Ez zegoen zalantzarik, handik aterako zuen.

Argi puntuari begira zegoen. Ez hura zeharkatzeko asmorik agertu zitzaiolako, ezpada begiak beltza ez zen zerbaitetan unetxo batez pausatzearren, besterik gabe. Baina zerbaitek beltzera bihurrazazi zuen, epeltasuna ito eta berotzen zuen zerbait sumatu zuenean. Beroaren iturria ezin kokatu zuen; sena zen, azala barik, bero horrezaz mintzo zena. Eta aspaldiko partez, ezinegona, urduritasuna, artegatasuna erne zitzaion. Ez zuen nahi. Ez zekien zer zen, baina ez zuen jakin nahi. Zerk etorri behar zuen bake ilun hura galeraztera? Noren baimenaz? Utzi ziezaiotela bere kuskuan lasai bizitzen, argirako bidea nahi zuenean guztiz itxi zein alderik alde zabaltzen. Ez zuen nahi odola zainetan hain zoro arintzea... Baina, bestetik, zentzuak korapilatzen bazizkion ere, ez al zen tentagarria milaka inurri horiek nondik zetozen jakitea? Zibotean kuzkurtu eta amaren sabelaren babes bilatu zuen. Hain zen erraza dena, mundura bultzatua izan aurretik...

Nirea zara. Neurea zaitut. Nirea zara. Ez dut onartuko aurrean ezer jartzea. Nirea zara gaur. Jokoak amaitu dira nirea zaren unetik. Kableak euren makinetatik eskegirik geratu ziren, hilda. Hodiaren muturrean orratz bustia, suero tantak nori eman ez, bidea lurrean amaiturik. Bat. Bat. Bat. Putzua ez zen oso zabala izango. Noren informazioa bidaliko diozu orain, noren bihotz tau-padak? Lerro jarraitua, laua, zentzurik gabea, pantailatik alde batetik bestera.

Besoetan gorputza ez zen astuna, bai malgua eta babesgabea. Orain konexio bakarra burmuinetik burmuinerakoa zen. Konexio ahula artean, baina lortuko zuen barru-barruraino heltzea, bat egitea, eta bananduko zituzkeen ezer ez zen munduan izango. Bai, zerbait bai. Bera betiko eraman nahi ez zuen dama beltz gorra. Baina berea zuen, bestek ez zuen ardura. Betorke etortzekoa.

Leihoak giroa lar aldatzen ez zuen haize epelari utzi zion sartzten, gortinak nagi alderatuz. Kalea, gaua, ilargia, izar itsu mada-rikatua, zain zeuden. Baina beste aldera begira sentitu zituen,

betiko legez, berekoitasunez bizkarra emanda. Jauzi geldoa nahikoa izan zen aparkalekuko asfalto aspertuan lurra hartzeko. Bihotza azkartzen igarri zuen, baita begi itxien barruko mugimendu inkontzientea ere, euren ametsen irudiei jarraika. Aurrera begiratu zuen. Dekoratu antza zeukan etxeen multzo ilunak bete gabeko ametsez zipriztindutako ortzi beltza zorrotz mozten zuen, mitologiako liburu batetik ateratako izaki bakarra ziruditen bat egindako gorputzen aurrean. Baina izaki haren buru bakarrak aurrera egiteko asmorik ez zuen agertu.

Jokoa, partida osoa amaitzeko, jokoaren arauak apurtu eta berea asmatzeko, mugimendu bakarra falta zen, hitzordura huts egiten ez bazuen, behintzat. Atzean utzitako leihotik heldu zen garrasiari ere ez zion jaramonik egin. Belarriek, garunetatik zetozen beste mila zarata, doinu, oihu, burdin-hots, negar, kanta baino ez zuten entzuten. Eta iruditu zitzaion, guztien artean edozein talde industrialek amestuko zukeen melodia betea sortzen zutela. Musika, erritmo horren atzetik ibiliko ziren Marilyn Manson edo Fear Factorykoak. Mamuek biziak baino kanta ederragoak aire-ratzen zituzten. Eta mamu horietariko baten antzera, mugitze hutsaz musika isila zainetaratzuz, itxaroten ziona gauzatu zen gerizpetatik. Irribarrea biztu zitzaion ezpain lotuetan, haren irudia begiztatu zuenean. A ze pare! Iruditu zitzaion unearen haraindikotasunari izugarrizko begirunerik eza zor ziotela; baina hobe horrela. Agian aro bati amaiera emateko, bata txerriz janzte, *playboy* untxiaz bestea, ez zen egokiena; edo agian bai, zergatik ez. Egunkariak agertuko zituzten izenburuak begitandu zitzaizkion, eta barreari eman zion, ozenki.

BULMAREN PLAYBOY NESKA BERTSIOA NESKATILA  
BAT BAHITZEN SAIATU DA ULOM TXERRIARI AURRE EGI-  
NEZ

—Zeri egiten deusak barre, txarri alaena? —arerioaren lehenengo hitzak.

—Nor dok hemen txarria? Benetan be ederto jantzi haz gaur. Eta mesedez, berba egiten deustanean, gogoratu aurrean andereño bat doala.

—Halanda be umoreari eusten deutsak, guzti honen erdian. Barka, “deutsana”.

—Banazaguk, holakoa izan nok beti. Orain kendu nire paretik, banajoak eta.

—Zer ba, hain erraz amaitu gura dona gure artekoa, ala? Beitu atzera, ikusleak batzen hasita jagozana. Burrukan egin behar-ko jonagu; ala gogo onez itxiko deustana neskatilea bere ohera itzultzen?

—Hau amaitu dok, eta hik badakik. Hau azkenengo maskarada baino ez dok. Guretzako denporea ez dok ezer; halan ba, ez jak luze egingo ni barik aldi baten egotea, ezta? Hauxe dok nire azken interpretazinoa; bihartik “dona” ostabere.

Ulomek begietara begiratu zion, irribarre maltzur batez aurpegia okerturik. Baina ez zuen asko behar izan ulertzeko Bulmaren hitzek ez zutela atzerabiderik uzten. Txarto neurtu zuen jokoren azken aurreko mugimendua, eta galtzea gustuko ez bazuen ere, ondo zekien unea ezagutzen. Arerioari aitortu zionez, etorri aurretik ere bazuen susmoa.

Bai, antzerkia amaitua zen. Utziko zion berearekin irteten, eta itxarongo zuen momentuko apeta igaro artean, beste jolasen bat asmatu eta bizitzari, amaierarik ikusten ez zuen bizitzari, piper eta gatz apur bat botatzeko. Egia esan, bera ere aspertzen hasia zen, orain jabetzen zen bezala. Baina jakingo zuen denbora zertan eman hurrengora arte, beti jakin zuen bezala; hainbeste ziren gizonak, emakumeak eta izadi osoak eskainitako beste fruitu motak...

Neskatilaren begiak irekita agertu ziren, lausoturik eta nora-biderik gabe. Zentzu mundura ireki berriek ez zuten, hala ere, ezer ulertzen, zuriz zein orlegiz kaleraturiko erizain eta osagileek ulertzen ez zuten bezalaxe. Urteetako ikasketek ez zieten biderik eskaintzen ametsetatik irtenda zirudien aparkalekuko eszenaren zentzua antzemateko.

—Adituko dona ezin nazala luzatu, ezta? Txoria kordea berreskuratzen hasi dok.

—Hoa ba, ez deunat galerazoko..., ez deuat galerazoko, nebatxo —gehitu zuen ahopeka.

—Ondo etorri. Zelan bururatu jatzun holako ergelkeria egitea? Nik ez dot hainbeste ardura merezi, badakizu?

Hiruzpalau ordu eman zuen ohe ezezagunean mozkor antzeko zorabioan, amesgaizto zoroan, bigarrenez begiak zabaldu zituen arte. Gela iluna zen, eta bekokian esku epel laztankorra zuen, betidanik hor zegoela iruditu zitzaiona. Ez zuen aurrean zeukan aurpegia erraz ezagutu, argirik eza zela-ta, baina hitz egin zion ahots gozoarekin orduak zeramatzala hizketan bururatu zitzaion. Ez zekien zehazki zertan zetzan berbeta hura, baina orain guztiz urrun eta itogarri zeritzon kuskua beltzetik irteteko indarra eman ziona izan zela egingo zukeen. Guztiz lagun sentitu zuen, bederen.

Baina, hasieran zioa ondo jakin gabe, iltzaturik zeuzkan begiak eta iragan urrunetik zetorkion irria ezagutzen joan zenean, negarrari eman zion. Gero haren bularrean uzkurto eta, bularrean ukabilez joaz batera, marmarka hasi zen:

—Gorroto deusut..., gorroto deusut. Zeuk hil nozu, alua. Hil egin nozu.

Indarrak ahiturik berriro konortea galtzeko zorian egon zen, burua sutan zuela.

—Edan hau eta gero jarraitu ni gorrotatzen, eskubidea dozu eta.

Ainhizek, luzatu zion edalontzitik edan zuen, eztarritik igarotzen kostata, lehenengo dzangadak arrantzale trebeak eginiko lokarri sendoa gaudituz behar zuelakoan. Ez zuen jakin zer zen, baina nahikoa indarberriturik sentitu zen berehala.

—Korapilo ederrak askatu behar izan dodaz zure buru labirintu horretan. Esan behar deusut inoiz bere ez zala nire asmoa

izan zu mintzea. Hainbeste gauza dago nire bihotz pozointsu honetan...

Ainhize ezpata batek bezala bihotza erditzen zion gertaerarekin gogoratzen saiatu zen, alperrik. Hodei gris iragazgaitzak eragozten zion ate haren atzetik zegoenari heltzea. Bakarrik Sasoi Ilunaken hitzak errepikatzen ziren ezin argiago bere garunen bihurtuneetan. Orduan beste irudia etorri zitzaion: txerri barre-garri bat, *playboy* neskatilea untxi belarri luzez, kale argi lainotsuak...

—Zeuk askatu nozu izaki haren eskuetatik? Bueno, behar-bada neure amesetea, beste ameseta bat baino ez da izan...

—Ez, amesetea ez; hori zeuk ikusi dozu. Baina nik ez zaitut askatu, bahitu baino. Parkatu hori baino dotoreago apaindu ez banaz aukera horretarako, baina armairuan erabili barik neukan bakarra zan, eta gainera ondoen ezkutatzen ninduana.

—Txarria? Uste dot ondoen joatzuna dala.

Ainhizek ez zuen adorerik aurkitzen bere baitan, kontzientziaren zati batek eskatzen zion bezala gorrotatzeko. Gogoratzea lortuko balu, behintzat...

—Agian, baina ez, ha Ida zan. Eta esan behar, berari be ez joakola bape txarto.

Neskak irribarre egin zuen, sinistu ezinik.

—Bai, untxi belarriak nireak ziren. Badakizu, Dragoi Bola iturri agortezina da irudimen eta jolaserako. Erraza zuen adineko edonork ezagutu ahal izateko. Telebista gehiegi ikusten dozue...

—Txarria, txarri alaena. Zelan ausartu zara niri hau egitera? Zelan ausartu zara ni osterara be bizitzara ekartera? Zergatik ez nozu hiltzen itxi? Badakit, bigarrenez hil gura nozu. Hau da zuen mundutik ekarri dozuen jolasaren zati bat? Hala nire ama bankuko gizon ospetsu horren maitalea dalako aukeratu nozu?

Unax zur eta lur geratu zen azkenengo hau entzunda. Orain askoz argiago ikusi zituen biharamuneko egunkarien izenburuen nondik norakoak. Egia esanda, korapilo ederra sortu berri zuen hiri hartan. Idak ere barre egingo zuen irakurtzerakoan. Horrela



behintzat, zorrak ordaindutzat emango zituen, zientzia-fikzio-poliziazko pelikularako nahi zuen gidoia biribilago geratuko zen, korapiloa, Unaxen esku bazegoen behintzat, sekula askatu barik geratuko zela.

Gero neskatilari begira geratu zen, min zahar bat azalean zuela. Argi zegoen Ainhizek Idaren izena entzunda guztia gogoratu zuela.

—Benetan be nahikoa nahastau doguz gauzak. Baina zer edo zer zor badeutsut, egia osoa jakiteko eskubidea dozu, behintzat. Ez dakit holan bere adituko dozun, baina entzungo dozun lehenengoa eta bakarra izango zara. Gero, sinestu nahi sinestu ez, bakarrik pentsau gauza batzuk zuk aprobatzeko baino ez nebazala egin, eta zeozelan amaitu behar zala. Parkatu.

Egunaren izpiak pertsianen zirrikituetatik luzatzen saiatzen ziren, eurek ere entzun nahi balute bezala. Gelan ez zegoen denboraren joana adierazten zuen beste ezer. Agian adi jarri zen Ainhizeren bihotz nekatuaren taupadak.



## XIX

Udaren erdialdera ilbeteak herri menditsu ihintzaz hezetutik bere argi zilarra isurtzen du eskuzabal. Eguratsa egokia, gurasoen basetxetik irten eta belartza zabaletik ibiltzeko. Izarrek ezin dute indarra neurtu gaueko erreginarekin, baina jarraigo ezin hobe eskaintzen diote, ñir-ñir sabai beltzean. Nebak hoberen darabilen iskilua hartu du, aizkora zorrotza, gerritik balantzaka, piztiaren batengandik arreba babestu beharko balu edo. Gaua gauekoentzat, badakite, baina haiek ere gauekoekin bat egiten badakite. Eta badakite amets egiten, mundua berrasmatzen euren solasetan. Nebak ez du gogoko gudarako zuhaitzpean aukeratu duten buruzagiari men egitea, ez beste inori ere, baina aitak ez zion barkatuko bere ondoan eta beste gizonekin batera bihar-munean ez agertzea. Herritik sarkin berriak bidali behar dira azkar, euren etxeetara sarraskirik ekar ez diezaieten. Agerian dago, ezpatak eta aizkorak ez dituztela ekarri, lurra zulatu eta barazkiak ereiteko, hori berak ere inork baino hobeto daki. Baina ez du borrokatu nahi. Ez du nahi belartzak odolez ziprztindurik ikustea, are gutxiago berak odola isurtzea, iskiluak, aizkora batez ere, ondo baino hobeto erabiltzen jakin arren.

Ondo entzun du aukeraturiko Jaunak esan duena, eta bada-ki, zahar gehienek aitortu duten bezala, guduaz jantzi-ena dela aukeratua, baina ez du gogo- loak erraz eroateko moduan. Lo egin behar luke, goiza luze joango delako, gudu gogorra izanik giharrak atsedenduta behar dituelako, baina nahiago du arreba-

rekin ibili, ortzi zilarrez apaindua euren aterpe bakarra dutela; abarkak erantzirik belar hezearen ukitua igartzea.

Arrebak ere ez du gudua maite, berak zuzenean parte hartu behar ez badu ere. Baina Unaxek ondo daki zer den Idak maite ez duena: barruan ezin itzali den sua, grina darama, eta gudura gazterik gogor eta trebeenak joango dira, haietariko asko berriro ez itzultzeko. Hori da bide ergela mutilak inguruan galtzeko, esango luke zerbait galdetuz gero. Pentsamendu honek irribarrea marraztu zuen nebaren ezpainenan.

Elkarri eskua hartu, begietara irribarre erdi ezti erdi goibelaz begiratu, eta Unaxek itaundu dio, ea ez zukeen azken gau hau, agian itzuliko ez zen beste gazteren batekin igaro nahiago izango, bere gogoeten hariari jarraikiz. Eta, neba galtzeko zoria ez al da askoz ere latzagoa? Unaxek ingurura begiratu du, ea zori horiek zerbait esan behar duten, erantzunen bat bidali, baina ondo daki hontza dela gauzez dabilen zori bakarrenetarikoa, eta erosoago egoten dela basoko adarren baten, saguen zain, haien etorkizunaz arduraturik baino.

Landa zabal maldatsuan elkarren ondoan etzateko toki egoikia aurkiturik, luze geratu dira lurraren freskotasuna barnerrazten. Besoak zabaldurik elkarren atzamarren goiak doi-doi ferekatzeko hurrean geratu dira, ortzi isilari begira.

Baina ortzia ez da hain isila, isiltasun horren atzetik ezkutatzen dituen hitzez ohartzeko gai izanez gero.

—Zergatik joan behar duk?

—Zer nahi dun, aitak etxetik bidaltzea?

Ez dago erantzun beharrik. Argi dago gudari uko egiterik ez daukatela.

—Zergatik ezin bizi gara betiko? Hola ez nitek hi inora joateko beldurrik.

—Badakin hau ez dela arazo bakarra. Ezin jasan zezakenat inor hil beharra.

Orduan biak mututu dira. Unaxek nahi duen gauza bakarra, herioari aurre egin baino lehen, gauak eta izadiak eskaintzen

dituzten emariez atsegin hartzea da, ondoan aita-amekin batera gehien maite duen gizakia izanik.

Baina Idaren burua ez dago lasaitasunaz bakarrik gozatzeko eginda. Honen barruan ideiak biribilketan dabilta eten barik. Ez du inoiz amore ematen nahi duena lortzeko bidea ediren artean. Eta orain begi aurrean mugarik бага zabaltzen den ortzian bilatzen du erantzuna. Beltzaren sakontasunean itaunak galtzen dira non gelditu aurkitu ezinik. Ilargiari ez zion itaunduko. Harroegi bizi da mailegaturiko bere distiran bildurik. Haizeei ere ez, haiek hitz egin bai, baina inori entzutera ez dira gelditzen. Bidea goian dago, badaki, eta amorrus bilatzen du.

Bat-batean arrebaren begiek ortziaren sabaia urratzen dute, eta dantzan dabiltzan izarrak, banan-banan, zein bere bizitzarekin ikusten hasten dira. Ez da ortzia argi orbanetz osaturiko marrazki laua, dimentsio bikoia, hirugarren dimentsioan ere zeharkatu ahal den eremua baino. Eta han hasi dira Idaren begiak izarrez izar jauzika, zeinetan gelditu ediren nahirik.

Eta su txikien itsaso hartan irmo heltzeko uhartea agertu zaio ezin neurtuzko urruntasun hurbilean.

—Badakusak izar ha? —eta atzamarra luzatu du ezin zehaztu den norabidean.

Unaxek begiak zorroztu ditu, ezer berezirik ikusteko ustea ez badu ere, beti arrebari jaramon egiten diolako, ametsetan mintzatzan denean ere bai. Zelan asmatu zeini buruz diharduen, milaka badaude borroka geldian elkarri distira ostu nahian?

Arrebak ahalegin berezia eskatu dio, eta ekinaren ekinez, begiak itsutuko zaizkiola sinisturik, azkenean zeinez mintzo den badakiela uste du. Bai, mila izarren artean bat eurei begira sentitu du. Milioi bat urteko lasaitasunaz begiratu ere. Oraindik ez du ondo ulertzen Idaren asmoa, baina minutu batzuen buruan atzera pausorik ez daukan dohainak bizitza betiko aldatuko die.

Unax amets baten murgildurik sentitzen da, Idaren hitzak dantzuzkien bitartean. Denboraren joana gelditzen nabaritzen du

zainetan. Bihotzean beste ahots bat ere badantzu. Zoramena behar du.

Baina goiz egiaztatuko zuen Idak eskaturikoa oparitu ziela izarrak: haientzat ez zegoen hiltzerik ez zauritzerik. Eta Unaxen kezkek ere ezaguturik, bigarren muga bat (azken finean, gerora ezagutuko zutenez, mugagabeko bizia, ezin hil izatea, muga bat zen, paradoxi-koa iruditu arren) ezarri zitzairen, luzarora Unaxentzat gogorrena bihurtuko zena: ezin inor hil zuten, egiten zutena egiten zutela.

Gudu eguna zain zegoen. Opariaren mingotsa dastatzeko lehenengo aukera ezin arinago etorria zen. Gudu zelaian hilotz jausten ziren lagun eta ahaideak; arerioak ere bai, baina lehenengo aldi honetan bere aizkoraz ezin jausi zirela egiaztatzeak zoriontsu sentiarazi zuen. Gudua irabazia zen, baina inguruan sarraskiak belarrietara aldarri egiten zion. Gogoz borrokatu zen, baina kolpe hilgarririk ezin eman, gogoia kiskaltzen igartzen zuela, aizkora eskuetan dardaraka.

Zoritxarrez betiko bizitza oso luzea da, eta herrien zein ahai-  
deen arteko gatazkak naroeziak. Senitartea eraiki, ondorengoak hazi, hiltzen ikusi; senitartea eraiki, ondorengoak hazi, hiltzen ikusi... Gurpiletik irten ezinik zekusan bere burua. Maitasuna aurkitu, maitasuna galdu. Ingurua zahartu eta usteldu haren begi aldaezinen aurrean.

Zenbat herri saiatu ote zen Euskal Herriaren gainetik igarotzen? Zenbat gudu euskal herritarren artean? Bere herriaren kontzientzia sentitzera ere heldu zen, iraganaren kutxa, oroimen ezabaezina. Partaide... inoiz ere ez.

Idak goiz ikasi zuen sentimendu oroz biluzten, atsegin hutsa bilatzen ezertaz arduratu barik. Burua ez galtzeko bide bakarra, esaten zuen. Eta gizaldi batzuek joan behar izan zuten berak ere onartu artean. Gizakien artean ezerk ere ez dirau: ez legek, ez moralek, ez fedek, ez onek, ez txarrek. Herriak berak dirau, bere hildako guztien gainetik, bere zoritxar, bere patu gaiztoaren gainetik. Bere askatasunaren gainetik. Adurraren apetek erabakiko zuten herriaren norakoa: noren menpe, noiz eta noiz arte.

Gauza bera gertatzen zen inguruko gizakiekin. Alperrik ikusten zituen euren bizitzen norakoa zuzendu nahirik. Inozoak. Ez ziren sentimenduak behar zoriontsu bizitzeko, ezta ohiturak ipintzen zituen arau eta ekintzarako muga aldakorrak, iraupen laburrekoak ere bai. Batez ere denborak zentzu guztia galdurik zeukanean.

—Neu be ez nozu maite, orduan. Zure miseriaz ez ohartzeko beste bidetxo bat baino ez naz. Oraindino ez dot aditzen zertarako atara nozun nire gau baltzetik.

—Idak dinoanez, hasieratik hasi ei nintzan zugaz maitemintzen. Egia esanda, aspalditik gauza, ideia arraroak dabilz nire kasko honetatik.

—Gatxa da zuri hitzik sinistea, baina egia bada, gizaki oso zorigaiztokoa deritzut. Ez dozu eskubiderik zure zorigatxean besteak erodateko.

—Zer esan gura dozu?

—Bueno, antza danez, zuen bizitzan denporeak ez dauka zeregin handirik, baina besteonean bai; orain neurean esan gura dot. Eta Arantxarenean, uste dot.

Bat-batean Unaxek oso helduta, bere buruaren jabe ikusi zuen Ainhize. Ez zen galtzen beste galdera inozoetan: zelan lortu duzue orain artean, inork ere zuen aldaezintasuna ez igartzea? zertan datza zuen joko hori, estralurtarren jokoa? zelan aldatzen duzue itxura horrenbeste? Ez zekien, mila galdera ergel zegoen egiteko, baina Ainhizek zuzenean jotzen zuen bien arteko arazoaren bihotzera.

Kontatuko zion zelan eman zitzaien denborarekin itxura aldatzeko ahalmena, hainbeste mendetan arnasa hartzea bezain erraz bilakatu zitzaiena; edota zelan eman zituzten urte batzuk Tibetean, Euskal Herritik kanpoko euren egonaldi bakarrean, eta zelan han euren garunen ezagutza azken muturretara eraman zuten, denboraren mugarik ez egonik, azken txokoetara iristeko aukera irekitzen zitzaie. Eta, zergatik ez, zelan egin zuen bereztako lekua ikastolan, irakasle inozo hura bidalirik. Baina neska-

ren hitzen aurrean ez zeukan erantzunik. Esaldi bakarra bururatu zitzaion:

—Zu maite zaitut.

Ainhize mutu eta mugiezinik geratu zen. Egia esan, barruak hori entzutea eskatzen zion, baina zelan onartu hitz haiek, gertaturiko guztia gertatu eta gero?

—Sinistu beharra deusut?

—Egia esan, ez dago horretarako arrazoirik. Ez dozu zertan sinistu hemen esan dodan ezer. Niretzako ez dago ez guzurrik ez egiarik, lortu gura dodana lortzea baino... Bakarrik esan nei hau guztia ez dodala beste inoiz ez beste inori esan. Pentsau zeinke, inoiz behar izan ez dodalako... Zuk zeuk.

Ainhizeren begietatik negar anpuluak irten zuten. Berriro ume izutua zeukan aurrean. Edo agian ez. Ez zen beharrezkoa umea izatea egoera haren aurrean negar egiteko. Berak ere egingo bide zukeen bere begiak horretarako baleude.

—Sinistu gura deusut. Ni bai babalorea. Txarrena da barruak hasieratik eskatu deustala.

Unaxek atzamar batez bildu zizkion malkoak, baina Ainhizek eskua alderatu eta begietara begiratu zion.

—Aldatuko zaitudala sinisteko biderik badot?

Unaxek irribarre mingotsa agertu zuen.

—Emakumeok beti uste dozue aldatuko gaituzuela. Ezin dot ezer egin horren aurka. Baina agindu be, ezin deusut ezer agindu, saiatuko nazanik bere ez. Baina hil behar badot, halan izango al da, zure ondoan hil gura neuke. Edo zu sufritzen berriro ikusi baino lehenago.

Unaxek ondo zekien baina, hori bere esku ez zegoela, eta bere patuaren jabe zen izarrari otoika hasteko prest ere ez zegoen, inondik inora.

—Edozelan be, korapilo ederrean gagoz sartuta —esan zuen Ainhizek, irribarre ezpainetaratzen ahaleginduz.

—Nire ondoan geratzeko erabagia hartu ezker, ez dago korapilorik. Eukiko doguz bideak gura dozuzanak jakiteko, bizi-



rik eta onez zagozala, baina hori izango da munduak jakingo dauan gauza bakarra zuzaz. Hainbeste urteren ostean, ondo dakit betiko desagertzen eta nortasuna... —baina Ainhizek, buruan irakurri balio bezala, atzamarra ipini zion ezpainetan.

—Nigaz zagozan bitartean, zure aurpegia eta itxura, arren, ez aldatu.

—Badinotsut, ez dakit ezertan aldatuko nazan. Ez aldatzea, aldatzea baino askoz errazagoa da, sinistu eidazu...

Bibiotek, ezinegonak jota, zirkin egiten zuen aulkiaren gainean, egunkariaren orrialde hartatik begiak kendu ezinik. Bankugizonaren maitalearen alaba bahituta, eta modu horretan... Azken hiletan ikusi eta entzundakoak burutik iraultzen zituen, zurrunbilo hartatik guztiaren gakoak garbi eta distiratsu agertu behar balu bezala. Ezin zuen ezer ulertu, ez, baina bere ahotik irtendako hamaika ispilu haietan kontatzea merezi zuen zerbait ezkututzen zen. Haatik, zerbaitek ziotson ez zuela sekula ere jakingo...



## XX

Eguna da. Ez naute ikusten. Baina hemen nago, iluntasun mugagabeak inguraturik, nire argiak guztia ikusetik babesten ez nauela. Ez, ez naiz itsua. Bai harroa. Eta harro diot neure esku dagoela egindakoa apurtzea. Are gehiago: agian ordua heldu da horretarako. Batek daki zergatik. Egia esan, zer aldatu da hainbeste urteren ondoren?

Bakarrik ahots batek eskatzen didala, eskaera nori zuzentzen dion ez badaki ere. Ez nau ezagutzen, baina badaki naizela, non edo non. Gorra ere ez naiz, askotan gorra eta itsua izatea eroso izan dudan arren. Behin ez nintzen izan, eta orain ere ez naiz; baina orduan erabakiak hartzeko eduki nuen prestutasuna ete daukat orain?

Horrela ez bada, errua ez da nirea. Garaiz nahiz berandu, atzera egiteko prest gaude? Gaur bertan...?